


Euskal kultura 2005



ALBERTO BARANDIARAN
 MIKEL BUJANDA
 PANTXOA ETCHEGOIN
 TERE IRASTORTZA
 XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU
 XABIER MENDIGUREN ELIZEGI
 ALLANDE SOKARROS
 ANDRES URRUTIA
 IÑAKI ZABALETA URKIOLA

Gaiak

Euskal nerabeak eta Euskal Telebista
 BEATRIZ ZABALONDO



Abegi kosmopolita, Europa eta globalizazioa. Derrida in memoriam
 IGNAZIO AIESTARAN

JAKiN

151


azaroa
abendua
2005



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Zenbaki honetan

► 7

Gai nagusia

Euskal kultura 2005

ALBERTO BARANDIARAN ► 11

MIKEL BUJANDA

PANTXOA ETCHEGOIN

TERE IRASTORTZA

XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

ALLANDE SOKARROS

ANDRES URRUTIA

IÑAKI ZABALETA URKIOLA

Gaiak

Euskal nerabeak eta Euskal Telebista ► 71

BEATRIZ ZABALONDO

Abegi kosmopolita, Europa eta globalizazioa.

Jacques Derrida in memoriam ► 95

IGNAZIO AIESTARAN

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07


jakin@jakingunea.com

2005eko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,10 €
KANPOAN		
Harpidetza	45 €	—
Ale arrunta	7,50 €	10,50 €

Jabegoa: Jakinkizunak, S.L. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

Summary



Basque Culture 2005

Nine authors, professionals from the world of Basque culture, provide us with a critical comment on the cultural events that have taken place during the year 2005. Alberto Barandiaran directs his gaze from Navarra towards different aspects of Basque culture; Mikel Bujanda comments on some of the new features in literature from this year; Pantxoa Etchegoin brings us closer to cultural activity in the North Basque Country; Tere Irastortza recovers several passages from Basque literature and also reflects on the Basque school curriculum; Xabier Mendiguren Bereziartu analyses the current situation of the linguistic policy regarding the Basque language from the *Konstseilua* viewpoint; Xabier Mendiguren Elizegi makes several notes about film, literature, the Internet and politics; Allande Sokarros presents us with and analyses cultural activities in Zuberoa; Andres Urrutia reflects on the official nature of the Basque language in the North Basque Country and in Europe, and adds different comments about literature; and lastly, Iñaki Zabaleta Urkiola focuses essentially on a critical analysis of the cultural and linguistic policy in the Basque Autonomous Region. ▶ *Various Authors*




Basque teenagers and Euskal Telebista

Beatriz Zabalondo, a translator and screenplay adaptor, provides us with the results of her study about Basque youth and Basque television. To be exact, Zabalondo analyses the relationship existing between Basque teenagers from 13 to 18 years of age and the over-dubbed products that Euskal Telebista broadcast. Her research is based both on young people's opinions (gathered from surveys and discussion groups) and those of various experts and professionals from the television dubbing sector. ▶ BEATRIZ ZABALONDO

Cosmopolitan hospitality, Europe and globalization. Jacques Derrida in memoriam

The writer Ignazio Aiestaran brings us closer to the figure of Jacques Derrida (1930-2004), the French philosopher who, starting off from the deconstructionist school of thought, devised a new policy of world friendship and hospitality. His ideas about cosmopolitan policy (based on the hospitality and welcome given to the underprivileged, immigrants, exiles and expelled people) and his stance regarding the «rogue States» and the Iraq war have made Derrida one of the symbols of this era of globalization. ■ IGNAZIO AIESTARAN



e skuetan duzun hau bigarren aldiko 151. zenbakia da eta 2005. urteko azkena.

Urteroko ohiturari jarraituz, urtean zehar kulturaren alorrean gertatutakoaren balantzearekin gatoz azken zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean. Horretarako, urteko hiruzpalau gai hautatzea eta horiei buruz gogoeta eginenez artikulua arin eta freskoak egitea proposatu diegu hainbat idazleri. Bederatziren erantzuna jaso dugu. Mila esker, beraz, guztioi.

Alberto Barandiaran kazetariak Nafarroatik begirada bat botatzen die euskal kulturaren alorreko hainbat alderdiri; Mikel Bujanda Euskal Herria Irratiko zuzendariak aurren argitaratuko literatur lan batzuk hartzen ditu hizpide; Pantxo Etchegoin Euskal Kultur Erakundeko zuzendariak Ipar Euskal Herriko aurtengo hainbat kultur gertakizun aurkezten dizkigu; Tere Irastortzak, Euskal Idazleen Elkartearen lehendakariak, euskal literaturaren historiako zenbait pasarte eguneratzen dizkigu, eta baita euskal curriculumari buruzko gogoeta egin ere; Xabier Mendiguren Bereziartuk, Kontseiluko idazkari nagusiak, hizkuntza politikaren inguruko aurtengo auzi nagusiak aztertzen ditu; Xabier Mendiguren Elizegi idazle eta editoreak zinema, literatura, internet, kultura eta politikari buruzko hainbat ohar eskaintzen dizkigu; Allande Sokarros kazetariak Zuberoako euskalgintza eta kulturgintzan jartzen du arreta; Andres Urrutia notario eta euskaltzainburuak euskarak Ipar Euskal Herrian eta Europan duen ofizialtasun mailaz egi-


ten du gogoeta, literaturari buruzko iruzkin batzuekin batera; eta, azkenik, Iñaki Zabaleta Urkiolak Euskal Autonomia Erkidegoko kultur eta hizkuntz politikaren analisi kritikoari heltzen dio batik bat.

Gaiak saila dator ondoren, eta bertan bi artikulu.

Beatriz Zabalondok, lehenengo artikuluan, euskal gazteek Euskal Telebistarekin duten harremanari buruz egindako azterketaren emaitzak laburbiltzen dizkigu. Zehatzago esateko, 13 eta 18 urte bitarteko nerabeek Euskal Telebistak ematen dituen produktu bikoiztuak nola jasotzen dituzten aztertzen du. Zabalondoren ikerketa gazteen eta adituen iritzian oinarritzen da: batetik, eztabaida-talde eta inkesten bidez jasotako gazteen iritzian eta, bestetik, bikoizketa eta telebistaren sektorean diharduten profesional eta adituenean.

Bigarren artikuluan, bukatzeko, Ignazio Aiestaranek Jacques Derrida (1930-2004) pentsalaria ekartzen digu gogora. Filosofo frantses horrek, mugimendu dekonstrukzionistatik abiatuz, adiskidetasunaren eta abegiaren politika berria eratu zuen. Bere politika kosmopolitikoak (baztertu, etorkin, atzerriratu, herrigabe eta agiri gabekoentzako abegian oinarritua) eta nazioarteko politikaren, irailaren 11ren eta Irakeko gerraren aurrean hartu zuen jarrerak, besteak beste, globalizazio garaiaren ikur bihurtu dute Derrida.¶

Euskal kultura 2005



ALBERTO BARANDIARAN ▶ MIKEL BUJANDA
PANTXOA ETCHEGOIN ▶ TERE IRASTORTZA
XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI
▶ ALLANDE SOKARROS ▶ ANDRES URRUTIA
▶ IÑAKI ZABALETA URKIOLA ▶ *11*

Alberto Barandiaran

Gero eta gehiago entzuten dut, nire inguruan, erdaldunengana zabaldu beharra dagoela. Nafarroatik idazten dut, uler bedi. Entzuten dut, gero eta gehiago, euskal kulturaren mundua mundu txiki eta endogamikoa dela, guk guretzako bakarrik sortua, ingurugiro xume batetik harago erabat ezezaguna. Eta, gainera, hori larriena, ez dugula ahaleginik egiten ezagut gaitzaten. «Horrela ez goaz inora», edo «besteek ikusi behar gaituzte!». Ez dakit hitz hauekin esaten duten, baina hau esan nahi dute, gutxi gorabehera. Erdal komunikabideak aipatzen dira, irabazi beharreko eremua.

Duela hiruzpalau urte, Oinezen jaia Nafarroako ikastola handien eta elitistenak, San Fermin Ikastolak, antolatuko zuela erabaki zenean, euskararen etorkizuna, Nafarroan, Iruñean zegoela azpimarratu zuten han eta hemen. Erdaldun euskaltzaleek egiten duten babes geruza horri esker salbatuko dela hizkuntza, salbatzen bada.

Hortik urratsa logikoa da, begi-bistakoa. Babes geruza hori osatzen dutenei euskal munduan —Euskal Herrian, Euskal Hirian— egiten denaren berri eman behar zaie. Balaria dezaten, ikus dezaten hori ez dela eskasa, bazterrekoa edo politizatua. Intereseko gauzak badaudela egon.

Honaino, ados.

Arrisku bat ikusten dut, ordea. Erakusleihoaren arriskua, dei dezadan. Arrisku hori zein den? Urteak eman ditzaie gurea polito erakusteko, bezeroak, gero, aurretik axolagabe igaro daitezten. Horrek frustrazioa ekar dezakeela. Gertatu izan da espainolera salto egin duten hainbat idazlerekin.

Baina arriskua, batez ere, ahaztu dezakegulako euskal kultura beti egon dela erdarari eta erdaldunei begira, salbu eta, akaso, orain. Ahaztu dezakegulako txikitutasunak ez duela eskastasuna esan nahi. Arriskua, ahaztu dezakegulako barrura begira egin behar ditugula gauzak, gutaz zer

pentsatuko duten erreparatu gabe. Ahaztu dezakegulako guk elikatu behar dugula azken urteotan gorpuztu den euskal kulturaren mundu ajeak jota nahi bada, endogamikoak akaso, txikia, bai, txikia, baina mikromundu bizkor, plural eta kritikoa hau, inola ere ez birtuala. Ahaztu deza-kegulako, horregatik arriskua, hori dela modu bakarra mundua gure begiekin ikusteko eta interpretatzeko. Hori dela modu bakarra mugak gainditzeko.

Euskal kulturak ez du erdaldunen beharrik. Ez, ez da hori. Euskal kulturak ez du erdaldunen oniritziaren beharrik. Nahikoa lan du euskaldunekin.

(Juan Mari Lekuona poeta hil eta biharamunean, lizarditasunaren barnetik lizarditasuna gainditu zuen poeta dela jakin eta biharamunean, *El Paisko Pais* Vascoko edizioan, nekrologikoetan: «Juan Lekuona, jesuita. Dirigió Radio Popular de Loyola y de San Sebastián. [...] Murió ayer víctima de un cáncer que le diagnosticaron hace un año». Ez dut uste *El Pais*ek horrelakorik sekula egingo zuenik Jose Hierro edo Vicente Aleixandreren heriotzaren biharamunean). (Bai, badakit biharamunagoan zuzendu egin zutela hanka sartzea, artxibo informatiko baten transmisioan izan zela akatsa, baina hori ez zitzaien gertatuko, inola ere ez, Jose Garcia Nietoren heriotzaren biharamunean.)

* * *

Nafarroatik idazten dut, badakit.

Mamu handi samarrak entzuten ditut maiz. (Belarriak tente jarrita, isilik egon eta entzuteko bizio eta ohitura daukat, zer egingo diot.)

Immigrazioaz eta entzun ditut handiak. Benetakoa buruhaustea hor dagoela. Euskal kulturaz ari naiz berriro, euskararen geroaz. Uholdeak azpian harrapatuko gaituela entzun dut. Esaten da, arrazoi osoz, Iruñerrira iristen diren etorkin gehienak, ia denak, gaztelania hutsezko eremuan matrikulatzen dituztela. Horretara behartzen edo bideratzen dituztela gizarte zerbitzuetatik. Eta, zergatik hainbeste etorkin nora eta Nafarroara, nora eta Iruñerrira?, galdetzen dute. Politika jakin baten ondorioa da,

erantzuten dute. Horrek zer kezkatua eman beharko ligu-ke, gaineratzen dute. Ez naiz kaleko jendeaz ari. Irakas-kuntzan begiak jarrita dituztenez ari naiz. «Arerio be-riak», esaten dute. Eta harrituta nago aho txikiarekin ez dutelako esaten. Garbi aipatzen hasia da gaia.

Arerio. Nik uste dut etorkinak ez direla euskararent-zat arerio izango. Etorkinak iritsiko dira, eta ikusten dute-na egingo dute. Beti gertatu da horrela. Eta etorkinak Leit-zara edo Zarautzera iritsiko, eta bigarren belaunaldian euskaraz egingo dute txukun. Eta Tuterara iritsiko, eta gaztelaniaz berehala ikasiko dute, lehenago ez bazekiten. Arerio? Ez, erdian geratuko dira. Nik garbi daukat arerioa, euskararen arerioa, Iruñeko Bigarren Zabalgunean, eman dezagun Tafalla kalean, egun bizi eta beti bizi izan diren betikoak izango direla. Atzo, gaur eta bihar. Euskarari go-rrotoa haien dekalogo politikoaren aurreneko artikulua egin dutenak, horiek. Mintza gintezkeen horren arrazoiaz, norena den errua, nola konpondu daitekeen, zein urrats eman behar ditugun. Baina hori da gaur egun daukagun arazoa. Etorkinak, arerio? Lepoa jokatu nuke hemendik belaunaldi batera, hau da, hemendik hoge urtera, ez dela asko aldatuko oraingo hizkuntzen arabera banaketa. Lepoa jokatu nuke haietako askok ikasi dutela euskara. Hemengo askok baino errazago.

(Baina, Santutxun egon naiz hitzaldi batean. Bilbo erdia, iluntzeko zortziak, euria. Argi horiak baino ez ditut ikusten, ez kale izenik ez deus. Autoa utzi dut azkenean, eta Santutxun bertan, Santutxuko bihotzean, inork ez da-ki AEK-ko euskaltegia non den. Ez dut esaten Otxarkoa-gan, edo San Frantziskon, edo Arenalen. Santutxun nago, Santutxu erdian, AEK-ko euskaltegitik ehun bat metrora, eta inork ez daki euskaltegia non dagoen.)

* * *

Nafarroatik idazten dut, badakit. Baina aurtengo pozeta-ko bat, niretzat, Patxi Huarteren *De rerum natura* liburuaren argitalpena izan da. Pertsonaien atzean dagoen mun-duaren ikusmira oso hurbila egiten zait. Patxik astero edo

haritzen nau. Eta astean behin jeniala edo izatea aski dela i ruditzen zait. Eta Patxik, astean behin edo asaldatu egiten nau. Irribarrea sorrarazten, hausnarketara bidaltzen.

ETAren inguruko bere marrazkiak mirestu ditut beti. Uste dut berari zor diogula (batzuek) The Organizationekin lehen aldiz barre egin izana. Uste dut inork ez zuela orain arte horrelakorik lortu. Berak bete-betean asmatu du, ez dut dudarik.

Suetena iragartzen duen marrazki handi bat daukat nire ordenagailuaren atzeko horman iltzatuta. ETAK SUE-TENA IRAGARRI DU!! «Zer ari zara?», galdetu dio Juan Kruz Lakastak. «Deusez! Lana aurreratzen», erantzun du Patxi Huarteren alter egoak. «Ea! Zer dugu aste hone-tan?». «Bonba auto bat», Lakastak.

(Hau idazten ari naizen egunean, Durangoko Azokaren bezperan, ETako zuzendaritza aspertuta dagoela irakurri dut, menia eskaera etengabeak direla eta. Patxiaren marrazkiek ez dute ETako zuzendaritza malenkoniazko giro lakoniko horretatik aterako —«bai aspergarriak zaren, benetan...»—, baina guri, gutxienez, irria marrazten digu goizero. Ez da gutxi. Ez, ez da gutxi.)

(Baina elkarrizketa egitera joan naiz Artelekura, eta Loiolan bertan —ez dut esaten Grosen, Hernanin edo Altzan, Loiolan bertan—, jendeak ez daki non dagoen Arteleku. «Arteleku?» esaten didate, «zer da hori?». Loiolan bertan.)

* * *

Ez dakit hitzaldiak gainbeheran dauden. Gure inguruan bai, nago. Koldo Izagirrek eman zuen bat, arunt interesgarria, Iruñeko Zaldiko Maldikon. Meridianoez, etorkinez, arrazakeriaz... Hamalau lagun egon ginen. Hamalau? Hor nonbait. Antolatzaileak kexu dira. Berdin diola zein ekarri, jendea ez dela etxeko besaulkitik mugitzen. Zer da, alferkeria? Ez dut uste. Iruditzen zait galdu egin dela jendea bertatik ezagutzeko interesa. Komunikabideen arretaren demasa dela eta, gero eta gertuagokoak, gero eta ezaguna-

goak, gero eta ohikoagoak direla gure pertsonaiak. Hainbeste elkarrizketa, hainbeste erreportaje, hainbeste kronika... ez dakit.

(Benito Lertxundiren kantaldia iragarrita zegoen abenduaren 1erako, Iruñeko Baluartean. Idatzia nuen hemen ere, duela bi urte?, ez genuela Benito Lertxundiren kontzerturik ikusiko Baluartean, ez programazio arduraduna nor zen ikusi eta gero. Oker nengoen. Pozten naiz. Gustatzen zait nire akatsetatik ikastea. Lehen kontzertu hura ez zen egin, gaixo jarri zelako kantaria. Anekdota bat. Ez da anekdota, ordea, kontzertu horretarako prestatu zuten afixa. Sekulako amorrua hartu nuen ikusi nuenean. Espainol hutsez, baita data ere. *Benito Lertxundi, el 1 de diciembre, en Baluarte*. Azpian, *Diario de Navarra*. Ikusezintasuna, hori da dotrina. Euskara ez da existitzen. Ez Nafarroan, bederen. Jakingo zuen Benito Lertxundik? Onartuko zuen?)

* * *

Nafarroatik idazten dut. Gai batzuk errekkurrenteak, gainera. Zer egingo diogu.

Oteiza Museoak erakusketa interesgarria dauka jarri ta, Agiñako proiektuaren inguruan. Azalpenak daude ulertzeko nola burutu zuten Aita Donostiari omenaldia izeneko harriztar hori, nola proiektu osoa. Oteizak nola atondu zituen, eskultura altxatu eta gero, han inguruko belardieta-tik jasotako harri batzuk bere erara, eskultura besarkatzen duen eta bisitari guztiei ongi etorria egiten dien halako trikuharria sortu arte. Nola egin zuen Jainkoarena, finean, berak hantxe nahi zuen hilerri megalitikoa sortzeko. Jainkoen paper hori asko maite zuen Oteizak.

Erakusketa interesgarria da, baina ezin dut saihestu pentsatzea, Altuzara hurbiltzen naizen bakoitzean, museo hori mendi puntan paratutako arkitektura handia dela. Agiñakoa bezalakoa, edo Donostiako Paseo Berrian dagoen hori bezalakoa. Esan izan da hori dela Oteizaren giroa. Naturarekin batera egiten duen horretan lehertzen dela bere eskulturak barruan daukan gutzia. Hor begi-bis-taratzen dela bere benetako mezua. Eta Altuzada bada Na-

farroako Gobernuak mendi punta batean ahaztutako eskultura erraldoi bat. Baina, era berean, museo horren barkadadeak erakusten digu zein zaila den Pedro Manterola zuzendariak hainbeste aldarrikatu duena, hau da, Oteizaren lanaren garrantzia eta balioa azpimarratzea.

Horregatik, polita da Altzuzaren eta Agiñaren arteko lotura hori nabarmentzea. Iradokitzailea da oso.¶



Mikel Bujanda

Lurrak eta zeruak

Haize zirimolak eta lurrikarak ezagutu ditugu 2005 urtean. Urrutietako bazterrak jo ditu haize zurrumbilo latzak. Izena beti emakumezkoena.

Lurpeko mugimenduak geure erresuma honetan gertatu dira, hurrenkera luzean. Zientzialariak aditu ditugu: ez da gauza bera zirimolak bere baitan duen indarra, eta horrek sor dezakeen eraginen kalkulua. Egiaztatu ahal izan dugu itsaso zabalean dagoen bitartean haizeteak kalterik ez dakarrela, ez bada untziren bat edo beste hondaraten duelako. Jendeen bizitokietan jotzen duenean, orduan bai triskantza handia. Bi neurgailu behar dira, era beran, lurrikarkin: bat da lur azpi sakonean mugitzen den energia; bestea inarrosaldi horrek lur azal gainean zer eta nolakoa topa, batez ere nor eta zenbat, eta horiei egiten ahal dien astinduaren neurria.

Gutxi gorabeherako azalpena da, geodinamikan adituak direnek barkatuko ahal didate, baina baliagarria izan daitekeena literaturaren alorrean.

Itxaro Bordaren *Zeruetako erresuma* energia kontzentratua da. Osagai indartsuak akumulatu ditu. Erretratu kolektiboa da, izenburua rekin kontrastezko jolasean lurrari guztiz itsatsia, lurrari eta lurralde jakin bati, Ipar Euskal Herriari; dozena bat pertsona hautaturik, horietako baikoitzaren ibilera neketsuak, pairaturiko mesprezuak, komunitatearen arau itogarrietatik ihesi joandakoak, edo egotziak, tropelaren diziplinatik bazter geldituak, opilaren egiterat desherriratuak aletu ditu. Hezur-haragizko pertsona zinezkoak dira, aldika bizipozen eta garaipenen lortzaille, baina galtzaileak gehienbat, apaletsiak ia guztiak, apaltasun hori gizaseme ergel harro baten fanfarroikeriaren

kontrapuntuarekin nabarmendurik; banakako istorioak dira baina noiz edo noiz ospakizun sozialetan elgarretaratuak, bakarkako kontaeren ondotik orok kanta eta dantza dezaten.

Biografiak ez dira beti besterenak; haste eta amaitze, liburuaren abiapuntu eta helmugan, baita erdi-erdiko atal batean ere, hor ageri dena narratzailea da, bere kolkotik mintzo da, intimitatearen barnetik, bizipen esperientzial egiazkoenetatik: haurtzaroa, etxea eta ama; maitasun ezina; helduaroa, heriotza, aita... Haur sortzearen harridurak eta heriotza-agoniaren latzak mugarriturik egituratua dago konposizioa; barnean bizia bera, banaka eta horien bilduma, kolektibitatearena. Guztiaren ondorioz, irakaspena, *aitzina orduan*.

Ez da edozer *Zeruetako erresuma*. Itxaro Bordaren espresio modua, borborka, sabel barnetik sortua da, zinezkoa, indomitoa, odol beroko zaldiaeren pare. Hiperboliko iruditzeke beldurragatik ez dut *opera magna* gisako kalifikatzailerik erabiliko, bai ordea kalibre eta hats handiko lan bat dela. Bere horretan harturik, neurgailuaren eskalan oso gora dagoena. Potentzialitate handiko zirimola.

Bestetik da erreperkasioaren neurria. Olatu handia eragiteko indarra izanik ere, gure panorama literarioan ez du, oraingoz bada ere, mugimendu handirik sortu. Axaleko uhina, gehienez ere. Harrabots zalapartatsuen orde, burrunba gor baten oihartzun moduko bat. Proporziorik ez dago.

Egia da: bere pertsonaiengan ageri den bera da Itxaro Borda idazlea: disidentea. Araupeko diziplinatik kanpo ibiltzeko ausardia eta arriskua harturik dabilena. Estandarren ortodoxiatik libre, Itxaroren erresuma literarioan bameratzea ez da goiz erdi batean egin daitekeen ibilaldia. Zirkuitu balizatuetatik kanpoko lurraldea da. Basa ez bada ere, mendi goietako malkarretan menturatzean bezalako zerbait, irristaka ibili nahi ez bada, eskumakila ez ezik, pioleta eta kranpoiak behar ditu ibiltariak.

Horri gehitu lorategi urbano ibil errazetan promenatzeraz ohituta egonik, deseroso eta neketsu egiten zaigula oihan trinko sarrian ibiltzea.

Itzulingurutan has gaitezke hemen, idazleak norentzat ari den aintzat hartu behar ote lukeen eta gisa abar bilketan. Bitartean, nagiak astintzea komeni da, ibilaldia zenbat kosta, handiago iristearen gusta. Bada saria, agian hori bera da zeruaren metafora. *Aitzina orduan.*

Nork bere Obaba

Ez dago gauza naturalagorik nork bere inguru geografiko eta afektiboa deskribatzea baino. Zer idatzi eta bere bizilekua, bizipenak, hurbilekoengan ikusi duena kontatuz hustutzen du barrua idazleak. Norberaren unibertsoa, *erre-suma* edo *mundua*, gauza bera da.

Alberto Barandiaranek mundua hautatu du, *Mundu txikia*. Dozena bat pertsona dira, banan-banan hartuak. Haien baitan sartu gaitu. Horraino, eskema bera. Hortik aurrera, estiloen kontrastea: pertsonaien instantea hartu du, soilduz, kimatuz, inausiz, hitz bakar bat ere ez sobran, miniaturara jo du Barandiaranek. Erresuma eta Mundua simetrian daude: exuberantzia oparoaren parean, lore sorta, ia ikebana topatu dugu orain.

Bakoitzak bere unibertsoa eta Atxagarena *Obaba*. Armendarizek irudietara aldatu du. Idazkia film bihurtzarekin batera, toki desplazamendua egin du, bere bizipenen unibertsoa eramanez: bazterreko ibar pirenaikora eraman eta hortxe kokatu du, horixe baita Armendarizen lekua. Geografia afektibo hori arrotz egin zaio zenbaiti. Euskal Herriaren ekialdeko periferia da, baina erreala da, Gipuzkoako barne sakoneko parajeak bezain egia, hori bai, euskaragabetua. Aldaketa horren gainean bermaturik, Armendariz Obabaren muinaz jabetu da, baldin eta muinean dagoena mundu ruraleko mentalitatearen krisia bada, mundua ulertzeko molde zaharren txokea, kanpotik datorkion gizarte modernoaren proposamen eta eraginekin. Atzeko paisajea hori dela emanez gero, agertoki horretako gertaearak eta pertsonaiak Obabakoak berak dira. Gertatzen dena, hemen ere, ohiko eskema eta ildo ibilietatik kanpo dagoela Atxaga eta Armendarizen mundu literario-filmikoa.

Quixoteren euskal iturriak

Handikiro, diziplinatuki ospatu da urte guztian zehar Quixoteren mendeurrena.

Lan literarioaren mugak aspaldi gairiditurik, produktu balioanitzza bihurturik dago, eta alde horretatik ez da harrizkekoa gaiaren ustiatze komertzial turistiko emankorra.

Horrekin batera, ohartzekoa izan da, aho batez, ezker eta eskuin, denek egin dutela gorazarre eta goresmen, kritikaren arrastorik txikiena entzunarazi gabe. Espainiarren mito eta enblema gorena da Quixote. Ikur identitario gisa erabilia den aldetik, disidentziarako ausardiarik ez da ikusi batere. Komunitate espainiarraren elementu kohesio-natzaile denez gero, denek norabide berean jokatu dute.

Literaturaren maisulana dela zalantzan jartzeko tentaldietatik aparte geldituta ere, iritzi ikonoklastarik batere ez aditua erreparatzekoa da. Esate baterako, Cervantesen biografiaren argi-itzalak arakatzen ibilitakoek isilean gordetzen dituzte haren balizko jokaera homosexualaren zantzuak. Ez da noski halako garrantzia eduki lezakeen ezer, baina hainbeste mintzaldi eta idazkien artean agertu behar litzatekeen puntu bat izan behar luke. Horrelako kontuak, gure artean eta ahapeka baizik ez dira aditu.

Ozenago entzuten hasi gara Quixoteren euskal sus-traien berri, Pruden Gartziairen ikerketa eta dibulgazioaren lanen haritik. Udaberriko mintzaldi batean jakitera eman zigun lehenik, eta udazkenean idazlan sarituan ja-soa du. Iruñean, Erresumaren hiriburuan, non bestela?

Gerlan urtetan ibili ondotik, gerlaren amaierako garaietara egokitu ezinik, oraindik ere joandako garai zaharretan bizi uste den dementziatua da Quixote. Inadaptazioaren sindromeak joa. Hori bera izan omen zen Larreako jauna, Lazarraga, miresgarriki aurkituriko eskuizkribua-ren egile arabar horren leinuko aitona. Lazarraga Cervantesen garaikidea izanik, honek harengandik hartu ahal izan zuen bere pertsonaia itxuratzeko inspirazioa.

Dibertimendu gisa, hipotesi zoro eta atsegin moduan plazaratu du kontua Pruden Gartziaik. Iruzkinari probet-xamendua ateratzeko bidea zabalik dago orain.

Lazarragaren idazkiari doakionez, egiazkotasunari fede egiten diotenak gero eta gehiago izanik ere, eszeptizismoaren dosi txiki bat erreserban gordetzea komeni dela diotenak ere badira, zer gerta ere.

Bietara jokatzea da hoberena, parioa irabazteko irizpide zuhurra; joka dezagun prudenki, guztiz sinetsi gabe baina probetxua ateraz, arraina balitz okela bihurtuz, 16. mendeko nobela bukolikoa dugu orain eskutan. Azken finean gezur handitan oinarrituak baitaude mito fundazionalik emankorrenak, hala nola Done Jakueren hilobiaren aurkikuntza. *Inventio* homi asko zor dio Espainiak eta honen kristiandadeak. Kidetasun sentimenduaren areagotzaile izateko gailu da, Cervantes den moduan. Orain jakin dugu Lazarragari Cervantesek asko zor diola. Eta guztiok zorretan gaude Lazarragaren eskuizkribuaren aurkikuntza erraztu dutenekin. Badaezpada esan beharra zen. Agian Xabierkoaren beste hura aurkitzeko katebegia baizik ez da. Eta azken hitz bat, aholku eta erregua aldi berean, eskuizkribuaren zalantza argi dezakeen bakarra jar dadila lanean: Amaia Ezpeldoi detektibesa literarioa, haigu fite!¶



Pantxoa Etchegoin

2005: sormenaren urtea iparraldean

Euskal nortasuna hizkuntzan oinarritua da, baitezpada euskarak baitu egunero gure kontzientzia hazten eta kultura barnetik biziartzten.

Euskal kultur erakundeak hizkuntzaren aldeko ekintza andana bat bultzatu du azken urte hauetan, hala nola itzulpengintzan, edo leku publiko batzuetan (Baionako ospitalean, BAB2 komertzio zentroan, liburutegi-mediateketan...).

Baina hori egin du, oroz gainetik ez zegoelako bertze antolamendu publikorik horren bultzatzeko, eta argi da egitura gabezia handi baten ondorioa zela.

2005 urtea garrantzitsua izan da, Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) sortua izan baita hizkuntza politikaren bidean ezartzeko, nola erakaskuntzan, hala euskararen erabilpenean zerbitzu publikoetan. Ondorioz, hemendik goiti, gure eginkizuna gehiago zuzendua izanen zaie euskal kulturgintzaren sail desberdinei.

Martxoan Donapaleun egin zen gure Biltzar Nagusian, hitzarmen bat izenpetua izan da, bi erakundeen eginbeharrak ongi finkatzeko, eta elkarlanak ere asmatzeko, egitasmoak eramaterakoan, loturak eginez hizkuntzaren eta kulturaren atean.

Eiki, euskalgintza ez da bakarrik kulturaren mugatzen. Baina egitura aldetik biak bereiztea begi onez ikus badaiteke ere, eguneroko errealitateak erakustera ematen du biak osagai direla, gorputza eta bihotza diren bezala. Adibide bezala, Baionako ospitalearekin hitzarmen bat badaukagu, euskara begi-bistan ezartzeko iragarkietan, mediku zerbitzuetan, baina horri datxekiola, zuzendaritzak euskal kulturaren oinarrituak diren ekintzak ere nahi ditu, hala nola pe-

diatrian, zahar etxeetan. Eta kasu horretan, euskal kultura ekintzak hizkuntzaren aldeko xedeen lagungarri dira.

Egoera hori kontuan hartuz, Euskal kultur erakundeak euskal kulturaren biziarazteko ekintzak alhan ezarriko ditu; bertzeak bertze espazio berrietan eta publiko zabal bati eskainiak izanen dira, BatekMila programa zabalaren helburu nagusiak obratuz ahal den neurrian.

Atzokoa biharkoan...

Urte nahiko aberatsa izan da sorkuntza mailan, oroz gainetik euskal antzerkiarentzat.

Lehenik, aipatu nahi nuke *Beltzeria* antzerkia, Antton Lukuk idatzi eta Hiru Puntu konpainiak eskaini duena hamalau aldiz (hamaika iparraldean eta hiru hegoaldean).

Antzezlan hau *Tobera* trilogiaren bigarren zatia zen, eta publiko kopuru mugatu baten aitzinean emateko asmatua izan zen, espazio goxo eta bero batean, kabaret modura.

Antzerki politikoa da, zentzu irekian, eta euskara (eta haren etorkizuna) da obra honen bihotza. Baina azpimarra nezake ere arte desberdinen topaketa obra honetan, bereziki kantuak eta bertsoak gurutzatzen baitira antzerki jokoarekin batera. Publikoaren erdian, obra sakona eskaini digute antzerkilariek!

Baliatzen naiz pasarte honetaz goresteko Antton Lukuk eramaten duen lan handia euskal antzerki munduan. Idazle joria izateaz gain, beti gogoan dauka antzerkirako tirriaren helaraztea gazteei. Badu urte andana bat Donibane Garaziko lizeoan euskal antzerki batzuk apailatzen dituela, aurtan egin duen bezala *Tentazioak* eta *Erreak* antzezlanekin. Ekimen ederra da, gazteek euskara bizi dezaten adierazpen artistikoen bitartez, eta haien baitan, ikusgarrietara joateko nahikundea sor dadin.

Beste ikusgarri batek ukan du aipamen udazkenean: *Kaukasiar kreazko borobila* ekoiztu du euskaraz Miarritzeko Théâtre des Chimères antzerki taldeak, Jean-Marie Broucaret zuzendari zutelarik.

Bertolt Brechten *Le cercle de craie caucasien* antzezlan hau nortasunari eta lurraren atxikimenduari buruzko goeta bat da.

Lurra norena da? Ohiturak zaintzen dituen jabearena ala aurrerapena ekarriz lurrari fruituak emanarazi nahi dizkionarena? *Le cercle de craie caucasien* euskaratuz, Itxaro Bordaren itzulpenarekin, Brechten obraren gaiak beste dimentsio bat hartzen du.

Euskal Herriko, Espainiako, Afrikako eta Kubako hogeita bat antzerkilarik eta musikaririk parte hartzen dute abentura eder horretan. Kultura nahasketa horrek oraino indar gehiago ematen dio ikusgarriaren problematikari. Halaber, euskaldunak ez diren jokalarik gehienek euskarazko testua ikasi behar ukan dute, eta hori bera ere miragarria da.

Azkenik, Euskal kultur erakundeak bideratu du *Batek-mila* ikusgarria, hau programa zabalago batean sartzen dena.

Ikusgari honetan, euskal kondairak antzerkiratuak izan dira Théâtre du Rivage taldearen eskutik, eta zubiak eginak izan dira Beñat Achiary kantariarekin, Ballet Biarritz Junior-ko dantzariarekin, Gaël Domenger koreografoaren eskutik eta Laurent Martin konpositorearen musika sorkuntzan oinarriturik, ahantzi gabe Pascal Sangla, antzerkirako musika egilea.

Ikusgari honetan, desafio andana bat bazen, eta horien artean, antzerkia euskaraz ematea, baina edarazko ulermen gako batzuekin. Zergatik hori? Bereziki iparraldeko errealitatea ikusiz (jendetzaren % 75 ez da euskaraduna), baitezpadakoa da gogoetaren eramatea, eta esperientzia batzuen egitea, publiko zabalari euskal kulturaren ezagutaraztea, eta ahalaz maitaraztea.

Ikusgari honek eztabaida sortu du eta hainbat hobe! Artistikoa oro har, ederra eta berritzailea izan da; baina horik aparte, erronka batzuk (ez denak bistan dena) irabazi ditugu: bakoitzak beretik egitasmo komun batera bildu dira artistak; euskal kultura kasik batera ezagutzen ez zuen antzerki talde profesional batek (Théâtre du Rivage) lan egin du euskal antzerkilariekin, gehienak hegoaldekoak,

eta nahitaez, euskal publikotik aparteko jende berriak erakari ditugu ikusgarrira. Azken erronka, eta ez gutiena: egitasmo horren inguruan, iparraldeko kultura egitura handienak (Ballet Biarritz/Dantzaz, Conservatoire National de Région, Scène Nationale) elkartu dira, norberak ekartzen zuela bere esperientziaren fruitua.

Bestalde, dantza alorrean, aipatu nahi dut *Kutx ala pil* k reazioa, Claude Iruretagoiena eta Catherine Arçanuthurry korreografoen zuzendaritzapean emana izan dena, lehen aldikoz Miarritzeko Maitaldia festibalean. Zuberoako maskaradetatik abiatu, konpainiak uztartu ditu ohizko dantza, kantu eta musika, era garaikide batean.

Oro har, sorkuntza horiek guziek erakustera ematen dute euskal kulturaren berritzeko nahia, bakoitzak bere gisara, eta opa dut bertze horrelako anitz obra dadin ondoko hilabete eta urteetan.

Euskara jalgi hadi mundura...

BatekMila programaren barnean, Euskal kultur erakundeak euskal kulturaren internet ataria (www.eke.org) sortu du, guretzat baitezpadakoa baita euskara eta euskal kultura sar daitezen komunikaziorako euskarri berri horietan, munduan gaindi hedatuak izateko gisan.

Egitasmo horren bidez, Informazio eta Komunikazio Teknologietan oinarrituriko zerbitzu multzo bat eskaintzen da lau hizkuntzatan (euskaraz, frantsesez, ingelesez, gaztelaniaz).

Besteak beste, webgune horrek euskal kulturaren agenda bat argitaratzen du, Euskal Herriko arteari, hizkuntzari eta ondareari buruzko informazio trinkoak, bai eta tokiko elkarten eta artisten aurkezpen xehea (datu-basea) ere. Bestalde, atariak extranet-intranet dimentsio bat badauka, beren egoitza edozein lurraldetan izanik ere, Euskal Herriko kultura elkarteek barne komunikazio eraginkoragoa ukan dezaten. Ondorioz, Euskal kultur erakundeak hautu teknologiko egokiak egin ditu, tresna erabilerraza izan dadin baliatzaileentzat eta kultura aktoreentzat.

Iparraldeko jendeak zer nahi du?

Kultura politika baten eraikitzeko, garrantzitsua da jakitea, besteak beste, jendeak zer igurikatzen duen kultura mailan, eta zer atxikimendu daukan gure kasuan euskal nortasunarekin.

BatekMila programa daukagula eta, inkesta zabala egin dugu, nola iparraldean, hala hegoaldean, Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin.

Inkestak lau gai nagusi jorratu ditu: lurraldea, nortasuna, hizkuntza, kultura.

Orotara 4.000 jende baino gehiago galdetuak izan dira, haietatik 1.600 Ipar Euskal Herrian. Lehen aldia da hainbeste arlo hunkitzen dituen inkesta bat antolatua dela Euskal Herriko eskualde guzietan. Hurbilpen kuantitatiboa (galdesortak) eta kualitatiboa (buruz buruko elkarrizketak, eztabaida taldeak) bateratuak izan dira.

Ideologiaren aldetik, zazpi herrialdeek dute Euskal Herria hobekienik definitzen. Baina praktikan harreman haustura bat badago Iparraldearen eta Hegoaldearen artean. Dena dela, jende gehienentzat erreferentziatzko lurraldea bere udalerria da eta dagoen lurralde administratiboa.

Iparraldean, euskal nortasunaren ezaugarri nagusiak dira sorlekua eta euskara; aldiz, Hegoaldean, euskal herri-tar izateko nahia, herrian bizitzeko eta lan egiteko aukera.

Nortasun sentimenduak oso desberdinak dira lurralde batetik bestera, baina oro har, iparraldeko jendetzaren gehiena (% 53) lehenik frantses sentitzen da, euskaldun-frantsesek % 24 osatzen dute, eta bereziki euskaldun sentitzen dena % 16 da.

Anitzek nahi dute hurrek euskara ikas dezaten eta jatorrizko euskal izenak atxiki ditzagun.

Euskararen alde bada maitasun oldarra, baina hori eguneroko erabilerari buruz norabidetu behar da.

Kultura ikurraren eta errealitatearen mugan dago. Euskal kultura aipatzen dutenentzat aipagai nagusiak dira euskara, kantua, dantza, pilota, ohiturak. Halere ohizko praktikan euskarak ez dauka lehentasuna, baina bai zinemak, kontzertuek, dantzak, erakustokiek.

Antzerkia, bertsolaritza eta literatura ez dira hain erakargarriak jende askorentzat, euskara dakitenak barne. Bereziki irakurketak badu sostengu eraginkor baten beharra.

Hona hemen Euskal Herriaren argazki aberats bat, denbora berean berezia eta anitza.

Hitz batez, gauza guztiak bilakaeran daude: lurraldearen kontzeptua, hizkuntza eta kultura adierazpenak eta bereziki nortasunaren sentimendua. Hain segur, horra ze eragatik laginaren gehiengo handiak ez duen globalizazioaren beldurrik.

Gure ondoko urratsa, beste hainbat partaideekin, ikerketa horren aztertzea izanen da. Gero, bakoitzak ekintza zehatz batzuk obratu beharko ditu, nire ustez, bi xede batera eramanez: alde batetik, gure euskararen eta euskal kulturaren indartzea, erakaskuntzaren bidez, eguneroko bizian eta bereziki sormena garatuz, eta abar; eta, bestetik, kultura aniztasuna kontuan hartzea, aldi berean berdinak eta bestelakoak elkartzeko gisan. Hau da Batek-Mila programaren xede nagusietarikoa.¶



Tere Irastortza

XVII. mendean Zuberoan

Legegizonak izan dira euskal atsotitzen aurreneko biltzaileak. Bat, Garibai, XVI. mendean. Hutsetik abiatu ordez, erraneretatik abiatu ziren. Baina Zuberoan izan ziren hiru XVII. mendean. Zalgize (Sauguis frantsesez), Oihenart eta Bela. XVII. mende horretan, aipatuak agertzen dira, gainera, beste bi poeta ere Zuberoan. Hauek ere legegizon. Aski ote da belaunaldi batez hitz egiteko?

Bostak, bizibidez, legegile edota epaile ziren. Zalgize Nafarroako Kantzileria kontseilari eta gero Nafarroako Parlamentuko kontseilari; Arrain Zuberoako epaile; Arnaut Oihenart Nafarroako Parlamentu aurrean abokatu eta J. Bela, Zuberoako Gorteko abokatu, Errege epaile izatera ere iritsi zena. Darthez ere epaile izan zen Aiben.

Bost hauetako hiru atsotitzak biltzen ibili izanak —Garibai bezala— izango du zerikusirik, nire ustean, euskaldunnei epaiak emateko edo euskaldunentzat foruetan oinarritzeko premiarekin. Hala deritzot, Garibaik dakarren beste atsotitz bat buruan daukadala: «Gonzalo Moro, tati tati, / gaxtoa gaxtigaetan daki». J.M. Leizaolak esaten zue-nagatik, Gonzalo Moro korejidoreak euskaldun guztien hiritartasuna definitu zuen, hartara euskaldunek epaitu aurretik torturarik jasan ez zezaten. 1397an bide zen eta ez 1937an.

18/98 sumarioan zein aldetan eseriko ote ziren? Ez dakit. Ez dut eta honen berri han-hemenka irakurritako liburu batzuetan baizik.

Baina Oihenartek bere atsotizetan bildu zuen bezala, «Orhin ekhia bero.- Han izanik hona niz».

Han izanik hona niz. O rhiko txoriak bezala, paseko hegazti bilakatu dira euskaldun asko. Iheslari, sarri. Batzuek,

izena aldatu arren, hizkuntza galdu arren, beti Orhira itzuli nahi dutenak, horregatik.

1938. Itsasoaz bestaldean

Amalia Solórzano Mexikoko Cárdenas jeneralaren emaztea izan da Madrilen, 94 urterekin, Españan aspaldian indarberritu nahi den errepublikanismo «historiko»ari zor zaion justizia-eginahal batean. Bere senarrak eta biek irekitako bideei esker, Españako gerratetik ihes joandako askok bere bizimodua birrosatu ahal izan zuten, Cárdenas Mexikoko buru zenean.

Hori irakurtzen ari nintzela, burura etorri zait garai beretsuan, 1938an, Gabriela Mistral euskal jatorriko poeta txiletarrak, bere *Tala* izeneko poema-liburu eder haren egile-eskubideekin, ume euskaldunak babesten zituzten erakunde katalanei eman ziela sostengu. Artean, Gabriela Mistral goitizena erabili zuen Lucila Godoy Alcayaga ez zen Nobel Saridun. Sari hori 1948an jaso zuen.

Arestian esan dudan bezala, 1938ko hartan *Talan* argitara eman zituen hamasei urtetan zehar idatzitako poemak. Berrito irakurtzen ditut *Ihesa*, *Mendi-zerra*, *Ausentzia-
ren herria* poemak eta beste hainbeste, eta bere biografiaren irakurketa «maternalistak» eman duen irudiaz beste egin behar dela irizten diot. Bere poema liburu honetako edota *Lagar* izeneko liburuiko poemei beste izerdi bat darré, erabat xuka ezin gertatzen den izerdia.

Bere poemak irakurri eta bere biografiak irakurtzeaz batera irizten diot sorterrian, lurrean, herrian indartzen ziren erroetatik ateratako indarra, zuhaitza ipurditik botatzeko aizkolariak behar duen indarraren tamainakoa bazela, bederen... eta urrunago joanda, derrigorrean egin behar zuela erroen bidea ur bila, derrigor, ia-ia, adarrak hausteko eta enborrak botatzeko prest zegoen gizarte hartan. Iruditzen zait nahiago zuela errotzea, enbor etzana izatea baino.

Eta hara nola iruditzen zaidan, Lucila Godoy Alcayagarentzat, bere aurrekoen sorterritik urrun bizi izan behar

zuen emakumearentzat, bere jaioterritik ihes egin behar izan zuen emakumearentzat, euskal umeei laguntzea izan zitekeela euskaldun izateko modu bakarra, ziurrenera; Txileko eta Amerikako bertakoengana hurbilarazi zituen modua izan zitekeela emakume izateko modu bakarra, ziurrenera; familiarik ez izatea suerta zitekeela ama izateko modu bakarra ere, hein batean. Paseko hegazti, *Han izanik hona niz*.

1938-1975

Nola ari zen euskal literatura urte haietan?

Izan ere, hemen jende askok isildu beharra izan baitzuen, Perpetua Saraguetak urte askoan egin zuen bezala. XX. mendearen hasieran idatzi zuen Perpetua Saraguetak nafarrak, gerora, hainbeste urtean, bizimodua aurrera ateratzeagatik, familia babesteagatik, isiltasunerainoko bidea egin behar izan zuen. Berriz idazten hasi zenerako, bere ilobentzat zeuzkan buruan, jakinarazi nahi zien bizimodua ez dela beti erraza. Biziko baziren jakin behar zuten. Biziko bagara, jakin behar dugu.

Bitartean Elvira Zipitria nekagaitz aritu zen euskararen eta euskal kulturaren adar gazteak bere erroetatik elikatzeke ahalegin guztian. Elvira Zipitria edota Gabriela Mistralen lanei erreparatu eta bere obreei umeekiko eta andreakiko darien errespetuaren sakonera ikusita, galdetzen dut —nire artean— familiarik ez izatea deliberatzeko zer-nolako mugak sentitu zituzten. Belaunaldi batetik bestera transmititu nahi ez zutena eta hurrengo belaunaldira transmititu ezin zutena zertaraino ez ote zituen paralizatuko.

Izenez aldatzea, biziarekin izana eman ezina... lotuegi antzematen ditut eta egundoko hotzikarak harapatzen nau. Zein xarea den, izan ere, janzten omen gaituen jakinduria! Baina horrelakorik aitatzeak emakume hauen lanari buruzko interesik eza ere erakusten ez ote duen irizten diot, dagoeneko, hain baita zaila emakume hauetaz interesatutako jenderik aurkitzea literatur munduan eta pedagogia alorretan. Eta gizaldi batekoak ez dira hain kontu zaharrak, nire kontuen arabera. Ez dira hain umutikoak.

Familian bezala eskolan, eskolan bezala kulturaren, mugak eta etenak, eta Orhira itzuli ezina. Eta egunotan eskutan dabilkidan J.M. Leizaolaren *El refranero vasco antiguo y la poesía vasca* lan eskerdaren harira, Buenos Airesko Ekineko Biblioteca de Cultura Vascairen lanak datozkit burura. Eta atzerrian euskal kulturari eutsi zioten askoren nekeak. J.M. Leizaolak Parisko Biblioteka Nazionala arakatu zuen, ikasteko. Eta guk, non arakatu behar dugu, oraindik? Nola zaharberritu gure kultura? Beti hutsetik hasten ari garela emango ez du ba! Izandako ardurako axolagabetasuna etorkizunaz axolagabetutako aldi baten isla ez ote den, nago.

Abenduaren 3koa, egun, euskararena

Pasatu dira urte batzuk. Hizkuntzaren eta kulturaren transmisioarekin bueltaka jarraitzen dugu. Asko aurreratu dugu baina ez nahikoa. Hori da beti-betiko gure esamoldea. Ia gauza guztietarako balio duena. Oraintxe iritsi dira Euskal Autonomia Erkidegoko Parlamenturako alderdi guztiak —bat izan ezik— orain arteko hizkuntza-eredua eztabaidatu behar dela onartzera. Entzun dut euskararen aldeko aldarria instituzional franko ere. Ongi etorriak denak. Euskaraz eta euskal edukiarekin, derragun! Euskaraz eta euskal curriculumarekin, euskal ibilbide batekin.

«Curriculum, Euskal Curriculum eta Euskal Curriculum Espezifikoa». Hona *Derrigonezko eskolaldirako Euskal Curriculum* oinarritzko txostenak dakarren atala.

Hezkuntzaren eremuan, nahiz eta esanahi ugari izan, «curriculum» edukien programa bat da; hain zuzen ere, eduki horiek zehazten dute ikasleek mailak eta ikasketa gainditzeko eta behar den titulua eskuratzeko jarraitu beharreko ibilbidea edo karrera. Lan honetan, curriculum hitza honela definituko genuke: ibilbidearen amaieran eskuratu beharreko kultur ibilbidearen eta kompetentzien proposamena da, eta bi helburu ditu: batetik, pertsonen gizabanako, gizartekide eta izadikide gisara erabateko garapena lortzea; eta bestetik, belaunaldi gazteak gizartean integratzea eta etengabeen berritu eta eguneratutako proiektu komuna eraikitzea.

Dokumentu honetan, orain arte garatutako hiru urratsen ondorioak jartzen dira agerian, eta baita fase horietan jardun duten parte-hartzaileen berri eman ere.

Ondorengo fasean, Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum oinarrizkoa eta komuna *zabaldu, aplikatu, ebaluatu* eta *eraberritu* beharko da.

Gutxi asko, esan dezakegu Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak hasiera batean aurreikusten zuen euskal curriculumaren beharrianaren aldarrikapenarekin bat egin dutela Sortzen-Ikasbatuazek, Kristau Eskolak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak.

Nire galdera da: noraino sentitzen da premia hori? Noiz zabalduko da, euskal curriculumaren asmoa bezala, euskal curriculum, zehatz-mehatz, eduki-programetara?

Franco hil zenetik hogeita hamar urte pasatu dira, bai. Euskal Herriko Hezkuntza Sistema estatuko onenetakoa da. Gauza askotan punta-puntakoa. Testu-argitaletxe batzuk lanean ari dira aspaldian beraien testuetan euskal curriculum hori gauzatzeko. Hori ere egia da. Baina orain ere, Hezkuntza-erreformaren inguruan edukien batez bestekoa Españan erabaki behar bada, ez ote dugu berriz atzerapauso arriskurik euskal curriculumaren eduki-programa zehazteko? Ez ote gaitu larritzen euskal errorik gabeko euskarazko ibilbide bat egiteak?

2005eko Abenduaren 6a

Dena konstituziotik eratorri behar omen da. Eta gaur Españako konstituzio eguna. Gainera, dena interneten dago, eta ez dakigu zer dugun gure inguruan, askotan.

Juan Mari Lekuonaren hiletetatik bueltan, irakurri gabe neukan prentsari gainbegiratu eman diot. Poztu nau *El País*en ere Juan Mari Lekuonari tokia egin izanak. Argazkia ere bai. Edo, hobe esanda, argazkia bakarrik. Juan Mari Lekuonaren argazkia eta Juan Lekuona jesuita eta Herri Irratiko zuzendari izandakoaren biografia. Gaur bigarre naldiz hilik. Aurreneko heriotza, lotara eramane duena, «ez esnatzeko» loaldira, bere ilobak hiletan irakurri duen tes-

tuan bezala. Bigarrena, deskuidua —gure artean, horrean maiz errepikatzen den deskuidu horietako beste bat—.

Euskal curriculumaren beharra gizarte eta identitate beharra da.

Deskuiduak, sarri, funtsean, axolagabekeriaren isla dira. Besteoi izatea ukatu izanaren ahazturan datorrena. Norberari bere bizia ere opa ez diona. Euskal Herriari euskal kultura opa ez diona. ♪



Xabier Mendiguren Bereziartu

Legegintzaldi berriaren ataritik

Legegintzaldi baten amaiera eta berriaren hasiera beti da ga rantzizko epemuga etorkizuneranzko pausoak emateari dagokionez bizitza politikoan. Alde batetik, agindu eta bete diren edo ez diren promesak zertan diren jakiteko ordua delako, eta bestetik, hurrengo lau urteetarako ibilbideak zer itxura har dezakeen ikusteko. Ondoren egingo ditudan azterketa eta balioespenak beti Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren ikuspegitik eginak izango dira.

2001-2005 Legegintzaldian euskararen garapena balioesteko, VII. Gobernua osatzera iritsi ziren EAJ eta EA alderdien hizkuntza-politika dago Legegintzaldirako Hizkuntza Politikaren oinarrian. Alderdi horiek sinaturiko hitzarmen politiko eta programatikoan honako hauek azpimarratzen dira:

Herritar guztiek hizkuntza ofizialetatik edozein erabil dezaketela, ekintza positiboko hizkuntza-politika egin nahi dela, politika malgua herritar gehienek nahi duten erritmokoa. Beraz, koalizioak honako konpromiso hauek hartu zituen:

- Hezkuntza-eredu guztiak hobetzea.
- Europako beste hizkuntzen ezagutza areagotzea.
- Teknologia berrien alorrean euskarari bultzada ematea.
- Euskara eta kultura indarberritzeko Erakunde bat sortzea gure kulturaren eta hizkuntzaren berri eman dezan mundu zabalean.

Ibarretzek lehendakari izendatzeko Legebiltzarreko eztabaidan (2001-07-11) antzeko ikuspegiak azaldu zituen eta honako konpromisoa hartu zuen: euskara eremu guztietara sustatzea egoera soziolinguistikoari egokitutako po-

litikaren bidez, edozein pertsonak edozein hizkuntza ofizialean bizitzeko eskubidea erabiltzeko aukera izan dezan.

Hirugarren alderdia, IU-EB, gehitzean gobernu-programa egokitu eta eguneratu egin zuten, baina dokumentu horretan ez dago hizkuntza-politikari buruzko inongo atalik; aipamen soil bat bakarrik dago hasieran, eredu eleantza partekatzen duela esanez. Gero dokumentuak zehazten dituen puntuetan hizkuntza-politika ez da lehentasunetan aipatzen, ardatz programatikoan ez da hizkuntza-politikaren garapena aipatzen eta immigrazio politikan ez da hizkuntza-integrazioa aipatzen.

Kontseiluak bere garaian aditzera eman zuenez, «gizarte elebiduna sortzeaz» hitz egin zuten, eta «euskararen etorkizuna ziurtaturik ez dagoela» aitortu ere egiten zuten; baina gero ez zuten hezkuntza-ereduak gainditzeaz ezer esan, hobekuntza baizik ez zuten proposatu. Bestaldetik, immigrazio-politikari zegokionean, ez zuten aitortu hizkuntza-integrazioak duen garrantzirik. Funtsean «gehiengoaren nahiari men» egiten dion hizkuntza-politika paternalista baterako zuhinak ezarri ziren. Lau urte geroago ez da harritzekoa izan hezkuntza-ereduen ebaluazioak eman dituen emaitza murriztak izatea, lan-munduan lehen pauso herabeak baizik ez agertzea, unibertsitatean oraindik hutsune nabariak izatea, Osakidetza eta Eitzaintzarekiko harremanetan euskara erabiltzeko eskubidea murrizturik agertzea. Hitz batean, instituzioen arteko koordinaziorik gabeko politika, behar besteko baliabideak ez dituen, helburu eta epe lausoak dituen gauza da.

Ondorioz, 2001-2005 Legegintzaldiak ez du aurrerapauso esanguratsurik ekarri; «errealitate soziolinguistikoa», «gehiengoaren nahia», «malgutasuna» eta antzeko esamoldeak erabili izan dira neurri eraginkorrek hartzeko.

Lau urte horietan sortutako lege, dekretu eta planak «lagundu», «bultzatu», «sustatu» gisako aditz ebaluagaitzez beterik daude. Hizkuntza-politika ez da sektore guztietara iristen, hutsune larriak ditu, eta behar besteko baliabidez eta koordinazioz hornitu gabe dago.

Alde positiboan daude Unibertsitate-legea, bere sortze-prozesu eredarriarengatik, Osakidetzaren euskaldunt-

ze-plana, nahiz eta 20 urte igaro eta gero sortua izateko eduki urrikoa izan, baita ahozketasuna (*Mintzola*) eta haur-literatura (*Ipupomamua*) lantzeko oinagiturak sortu izana ere. Estatistika Plana eta EAEko II. Gazte Plana bi ekimen interesgarri dira baina azterketa gehiagoren hutsunea ere nabari da: hedabideen euskararen erabilpenarena, Osakidetza, Ertzaintza, Administrazio Orokorra ren, Justiziaren... Planak betetzearen inguruko datuak, adibidez.

Aitzitik, alde negatiboan daude Estatutu berriaren proposamenak euskararen estatusen aurrerakuntzarik ez ekarri izana, ereduak gaingitu ez izana, Administrazio Orokorra euskalduntzeko II. Planaren porrot nabaria eta III.aren gabezia ukaezinak. Halaber, onartezina da euskalduntzeko plana abian jarri baino lehen 1.800 langile hizkuntza-eskakizunik gabe hartu izana. Bestalde, gizarte-eragileekiko harremanek eta gardentasun gutxiarekin kudeatzen diren zerbitzuak euskalduntzeko planek nabarmen hobetu beharko lukete, azken urteotako ibilbidea ikusita.

Hauteskunde-egitarauak eta euskararen normalizazioa

Apirilaren 17an hauteskunde autonomikoak zirela eta, Kontseiluak azterketa bat egin zuen. Alderdi bakoitzak euskararekiko bere burua nola kokatzen zuen ikusteko.

Ondorioen artean, nabarmendu behar da alderdi politiko gehienek ez dutela hizkuntza-politika eraginkorrik proposatzen hauteskunde-egitarauetan. PSE, UA eta PPren kasuetan atzerapausoak nabari ziren. Euskararen normalizazioa «inposizioa», «diskriminazioa» eta «opresioa» hitzekin asoziatzen dute, baina behin ere ez dute euskaldunek etengabe jasan izaten duten hizkuntza-eskubi-deen urraketa aipatzen.

EAJ-EA koalizioaren egitarauan ere ez da ageri euskarak behar duen eraginkortasunerako proposamenik. Asmo, helburu lausoak eta behar besteko bitartekorik eza nabari dira. Eta bi puntutan aurkezten duten egoera larria da: Estatutu berriaren proposamenean ez dute jasotzen euskarak

beharezkoa duen estatusa, eta ez dute hezkuntza-ereduen sistema gainditzearen aldeko apustu garbirik egiten.

Gainera, Kontseiluak ez du egokitzat jotzen Administrazioaren zerbitzuak euskalduntzeko funtzionarioen hizkuntza-errealitatea baldintza izatea. Jarrera hori EAJ-EA koalizioak Osakidetzaren kasuan eta PSE, PP eta UA alderdiek Administrazioaren arlo guztietan adierazi dute. Eta, oro har, ez dute proposamen eraginkorrik egiten hainbat arlotan: lan-mundua euskalduntzen, hedabideak euskalduntzen, dirulaguntza-behaketan, Euskalgintzaren babesean, eta udal politikari dagokionez hutsuneak nabari dira PP, UA eta PSEren egitarauetan; halaber, ez dute konpromisorik hartzen barne-euskalduntzean.

Azkenik, Kontseiluak interesgarritzat jotzen zuen bi alderdi (Aralar eta Batasuna) Akordio Soziopolitikoak bultzatzeko prest agertzea, baita EBren proposamen zehatz batzuk ere.

Garai berean eta ildo beretik Kontseiluak legebiltzarkideen hizkuntza-gaitasuna ere aztertu zuen eta honako ondorioetara iritsi zen:

- Legebiltzarkideen artean euskara eta Europako beste hizkuntza baten ezagutzaren ehunekoak antzekoak dira. Legebiltzarkideen %78k gutxienez bi hizkuntza ezagutzen baditu ere, erdiak soilik ezagutzen du euskara (Europako beste hizkuntza % 52, euskara % 56).

- Alderdien artean bada euskararen ezagutza-tasa oso baxua duena (Alderdi Popularrean % 6,6, nahiz eta bertan % 53k Europako hizkuntzaren bat ezagutzen duen).

- Positiboki azpimarratzekoa da EHAK eta Aralar alderdiek eserleku guztiak euskaldunez betetzen dituztela, eta EAJ bidea egiten ari dela, 22 legebiltzarkidetatik 19 euskaldunak baitira.

- Mahai osatu berriak ez du betetzen ezagutzari dagokionez Legebiltzarreko batez bestekoa (% 56).

- Alderdi abertzaleen artean, kasu guztietan, ezagutza % 50etik gorakoa da eta EAk du tasarik baxuena % 57,14rekin.

- Alderdi ez-abertzaleen artean lortzen den tasarik altuena % 33 da, eta baxuena Alderdi Popularraren %6,6.

Baldintza horietan euskara nekez izan daiteke lan-hizkuntza eta Kontseiluak konpromiso bat eskatu dio Legebiltzarrari urtez urte euskararen ezagutza eta erabilera gehituz joan dadin.

Hizkuntza-ereduak gainditzera

Legegintzaldiaren amaieran jakin dira datuak eta zer-pentsatu eta zer-esan ugari eman dute. Ez da ezer berririk azaldu. Euskalgintzako sektore bat baino gehiago aspalditxoan ari zen gertatzen zenaren berri ematen. A ereduko batek ere ez zuen gainditu 16 urte rekin beharrezko euskararen ezagutza maila; B ereduko % 33k gainditu zuten maila eta D ereduko % 68k. Begi-bistan dago orain ateko hezkuntza-ereduen emaitza: eskola ez da euskalduntzen ari eta gehiengoa da euskara behar adina ikasten ez duten ikasleen kopurua. Lehen aditzera eman dugunez, gai hori iragan den legegintzaldian bideratzekoa zen baina ez da lortu. Oraingoan ezinbestez heldu beharko zaio gaiari eta lehen bi urteetan egin beharko da, bestela beste legegintzaldi bat galtzeko arriskua legoke. Gaiak behar baino karga ideologiko eta politiko handiagoa du eta seguru asko ez da erraza izango solaskide eta interesatu guztien interesak kontsentsuz bideratzea. Tontxu Campos Hezkuntza Sailburu berriak aditzera eman duenez azterketa pedagogiko hutsean (*puro*) oinarritu beharko litzateke debatea, eta PSEk proposatzen duen «eredu misto malgua» eta Euskadiko Eskola Kontseiluak ikastetxeei eman nahiko liekeen autonomia ez da teknikoki erraza gertatuko uztartzea ikastetxe guztietako ikasleek 16 urterako euskara, gaztelania eta ingelesaren ezagutza egokiarekin, gaur-gaurkoz eskura dauden baliabide, irakasle eta abarrekin. Teorian posible izan litekeen eta behar duen hori, praktikan atzera, atzeraegi geratzeko arrisku larria dago sasi-interesak tarteko badira. Bestalde, azken bolada honetan aipatu den laugarren hizkuntza ere ikastearen diskurtsoa bultzatu nahi bada, norbaitek serioski aztertu beharko du gaurko eskola-ereduko curriculum eta haurren gaitasunak uztargariak diren be-

re horretan. Nolanahi ere, gauza bat ez dago onatzerik: hainbeste urte ereduak aztertu eta gainditu behar direla esaten ibili ondoren, gauzak berbideratzeko ardura etorri, zerbait aldatu eta beste urte mordoska batez itxaron behar izatea emaitzak lehengoak edo okerragoak direla jakiteko. Oraingoan kreditua ez dago hain luzera fidatzerik. Hori jakin beharko lukete auzi honetan protagonista diren guztiek.

Nafarroako Amejoramenduari buruzko lege organikoa

Kontseiluak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko lege organikoaren inguruko eztabaidan, alderdi politikoek aurkeztu dituzten proposamenen azterketa egin du, euskarari dagokionez. Bertako 9. artikulua honela dio:

1. Gaztelera da Nafarroako hizkuntza ofiziala.
2. Euskarak ere hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan. Foru lege batek eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilera ofiziala arautu eta Estatuko Legeria orokorra abiapuntutzat harturik, hizkuntza horren irakaskuntza antolatuko du.

Argi dagoenez, 86an sortutako «vascuencearen lege»aren ezaugarri nagusiak Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko legeak ezartzen dituen ezaugarrietan oinarritzen dira. Horregatik, 86ko legea onartzeko ezinbestekoa da NFEBH legearen idazkuntza aldatzea, batez ere dituen oztopo nagusiak —ofizialtasun eza eta zonifikazioa— gainditzeko.

Kontseiluaren iritziz honako puntu hauek jaso beharoko lituzke testu berriak:

1. Euskara Nafarroako berezko, lehentasuneko eta ezagutu beharreko hizkuntza dela.
2. Hizkuntza-politika osoa behar dela, Administrazio Nagusitik Toki Administrazioarainokoa, baliabidez hornitua, sailartekoa eta gizarteko sektore guztietara iristeko

modukoa gizarte osoa inplikatzeko xedez, helburu eta epe zehatzak dituena.

3. Herritarren hizkuntza-eskubideak giza eskubide diren heinean bermatu egingo direla eta horretarako administrazio publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak lehentasunez euskaldunduko direla.

Alderdi politikoek egin dituzten ekarpenak azterturik, honako ondorio nagusiak atera dira:

1. UPN, PSN eta CDN alderdiek ez dute aldaketarik proposatzen euskararen estatusari dagokionez; beraz, gaur egungo eskubide-urraketa sistematikoa ahalbidetzen duen markoari eusten diote etorkizunean gerta litekeen konponbidea ukatuz. Alderdi horientzat hizkuntza-eskubideek ez dute aipamena egitea ere merezi, nahiz eta gaurko Nafarroan desoreka soziala nabaria izan. Beraz, ez dute inolako ekarpenik egiten hizkuntza-politika justuago baten alde; eta kontuan hartzen bada gehiengo politikoa direla, nekez izan liteke borondaterik etorkizun hurbilean konponbidea bilatzeko.

2. Aralar, EA eta EAJ alderdiek euskararen ofizialtasuna eskatzen dute, baina bakar batek ere ez du euskararen estatusa definitzen lehentasuneko izaera erabiliz eta batek ere ez du ezagutu beharra aldarrikatzen.

Aralarren kasuan Justizia-administrazioari buruz egiten duena anbiguo samarra da, itzultzailearen bitartekarritza ontzat ematen duen ala ez argitzen ez duenez gero, eta «beharrezko baliabideak» soilik aipatzen dituelako.

Aralarrek, EAK, EAJk eta EBk egiten dute hizkuntza-eskubideen aipamena, baina aditz tinkorik erabili gabe kasu askotan.

Azkenik, bitxia gertatzen da EAJren kasua: EAEko Estatu Berrirako proposamenaren egilea izaki, testu horretan ez da jasotzen gaztelania berezko hizkuntza gisa, bai ordea Nafarroan egin duten proposamenean. Inon ez da ageri gaztelania Nafarroan berezko izatearen aldeko arazoirik.

Europako Kontseiluaren Adituen Txostena

Irailaren hirugarren astean Europako Kontseiluaren Aditu Batzordeak Euroitunaren ebaluazioa plazaratu zuen. Aurreko urteko maiatzean Kontseilua eta Behatokia Aditu Batzorde horrekin bildu zen, Hego Euskal Herriko beste ordezkari asko bezala, eta txosten bateratu bat aurkeztu zioten egoerari buruzko datuak izan zituzten. Esan behar da Itun horren eremua Estatu espainiarra dela eta Ipar Euskal Herria kanpoan geratzen dela. Aipaturiko adituek Administrazioak emandako datuak ere izan zituzten eta Europako Kontseiluak euskalgintzak salatutako urraketak berretsi egin zituen. Behatokiak egiten dituen diagnostiekin antzekotasun handia dute.

Badira datu kezagarri batzuk: estatuak hartutako hainbat konpromiso bete diren ezin izan dute baloratu datu zehatzik eskuratu ez zaielako. 57 konpromiso hartu ziren eta 20 baino ezin izan dituzte baloratu informaziorik izan ez dutelako. Beraz, ez dakigu bete diren ala ez. Bete diren konpromisoek herena osatzen dute, euskarari dagokionez.

Beste datu kezagarri bat: Ministroen Kontseiluak egindako sei gomendioetatik hiru zuzenean euskarari lotzen zaizkio eta beste bi beste hizkuntza batzuekin batera.

Espainiako Estatu Administrazioari dagokionez, inprimakiei eta langileen hizkuntza-gaitasunari buruzko azterketan, besteak beste, nabarmendu dute Administrazioak ez dituela konpromisoak bete; eta, horren ondorioz, herritarren hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa izan da.

Nafarroan zonifikazioaren baliogabetasuna eta logikarik eza da azpimarragarriena, Behatokiak sarritan salatu duen bezala.

Osakidetzaren euskalduntzea dela eta, Adituen Batzordeak adierazi du hartutako neurriak askiezkak direla. Eta Justiziarren eremuan, berriz, marko juridikoa bera aipatzen dute eta horren aldaketa abian jarri behar dela. Bada baieztapen guztiz interesgarri bat, esanez «gatzelania jakitea ez dela arrazoia euskaraz egitea ezinezkoa izan dadin».

Aste pare bat geroago (2005-10-07), Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak hizkuntza normalizatzeko Eusko Jaur-laritzak indarrean jarri nahi duen Dekretuaren kontrako txostena onartu du, honakoa esanez:

Txostena Konstituzio Doktrinan oinarritzen da eta Epai-leei zein Fiskalei hizkuntzaren derrigorrezko ezagutza ezin eska dakiekeela berresten du.

Horren bidez, herritarren hizkuntza-eskubideen urraketak betikotzeko hautua egin duela uste du Behatokiak. Paul Bilbaok hauxe adierazi zuen:

BJKNk ez dio erreparatu nahi egun ezarrita dagoen ofizialtasun bikoitzari, eta zeharka bada ere, gaztelania jakiteko derrigortasuna euskara erabiltzeko eskubidearen gainetik jarri du berriz ere.

Behatokiak, horren harira, Europako Kontseiluak berriki sistema judizialean aurkeztutako gabeziak ekarri zituen gogora, honakoa argudiatuz:

Estatuko xedapenek ez dute bermatzen prozedurak herritarrak hautaturiko hizkuntzan burutuko direnik; are gehiago, ez dirudi formalki bermatuta dagoenik akusatuak hizkuntza koofizialetako bat erabiltzeko eskubidea.

Era berean, Justizian gertatzen diren urraketak larriak direla gogoratu du Behatokiko Zuzendariak, «eta berriz ere, BJKNk oztopo berriak jarri nahi dizkie herritarren eskubideei», kritikatu du.

Prozedura juridikoak dialektikan oinarritzen dira, eta ez dago onartzerik herritarrak bere etorkizunaz epaia eman-go duen pertsonarekin zuzenean ezin hitz egitea eta interpreteta baliatu behar izatea, atzerritarra bailitza.

Behatokiak esan zuen ezinbestekoa dela Botere Judizialaren Lege Organikoaren aldaketa eta hizkuntzaren ezagutzaren derrigortasuna ahalbidetzea, epaile, fiskal zein idazkari judizialek hizkuntza ezagutzeko beharra izateko.

Bi hizkuntza ofizial dagoen eremuan herritarrak edozein erabiltzeko eskubidea izatea oinarritzko eskubidea da, ez da pribilegioa, bai eta hautatuko hizkuntzan zuzenean ulertua izatekoa ere.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren 5. urteurrena

Mendearen hasierarekin batera abian jarri zen Bai Euskarari Ziurtagiriak 5 urte bete izana agian ez da munta handiegiko efemeridea, baina Kontseiluarentzat eta dagoeneko Ziurtagiria eskuratu duten 1.300 enpresa, erakunde, saltoki eta elkarterentzat seguru asko badu bere garrantzia. Duela bost urte ur-ximpa isil baten antzera hasi zena dagoeneko errekasto kantari bihurtu da, eta datozen urteetako ahalegin eta ibiliaren ondorioz lehenik ibai oparo eta geroago it-saso zabal gertatzea opa diogu. Euskal Herri osoan zehar pixkanaka pizten ari diren izar gisa, euskararen normalizazioaren argitasun beteak gure lurralde osoa hartu arte Bai Euskarari Ziurtagiriak asko, gehiena du oraindik egiteko, baina hasiak erdi egin dirudien bezala iritsiko da eginak u rregorriaren distira izango duen garaia. ¶



Xabier Mendiguren Elizegi

Baikorrak eta ezkorrak

Argia astekariak 2.000 alea ateratzen zuela-eta (zorionak! Eta bete ditzala beste horrenbeste), mahai-inguru batera gonbidatu ninduten, hemendik hoge urtera begira euskal kultura nolakoa izango den prospektiba ariketa bat egiteko. Gandiagaren poema argitaragabeetako bat irakurri nuen orduan, artikulu hau plazaratzerako argitaratu berria izango dena eta nire zalantza aski ongi azaltzen zuena:

Batzutan uste dut
euskarak bizirik
iraungo duela
luzaro oraindik
eta idatzi egiten dut begiak
sortalderantz lasairik.
Bestetzutan badirudit
euskara heriotzetik
hurbilegi dagoela
zauri hilgarriz beterik
eta idatzi egiten dut begiak
sortalderantz oraindik.
Inoiz ere ez dut
zapuzten euskararik,
ezergatik ere
utzita ez dago konturik.
Eta idatzi egiten dut begiak
sortalderantz ernerik.

Etorkizunari igartzeko orduan ez ezik, iragan berri den aldiari begiratzean ere baikortasunaren betaurreko gardenak edo ezkortasunaren beltzak jantzi ditzakegu. Inportanteena, baina, ez da antiojoen kolorea edo norberaren aldartea: baikortasuna lanerako pizgarri edo utzikierarako aitzakia izan litekeen bezala, ezkortasuna ere gehiago

saiatzeko akuilutzat hartuko du batek eta etsitzeko arrazoitzat besteak. Jarrera zaigu axola eta, atrebentzia barkatzen badidazue, poetarena hartuko dut nik: «eta idatzi egiten dut begiak / sortalderantz jarririk».

Zinemaren oasia

Pasa den urteari erreparatzean, euskal zinemaren gorakadaz hitz egin behar ezinbestean. Bateko *Obaba* daukagu, Bernardo Atxagaren liburuan oinarriturik Montxo Armendarizek gaztelaniaz filmatua, eta bestetik *Aupa Etxebeste!*, Asier Altuna eta Telmo Esnalek egina, ia dozena bat urtean euskaraz sortu den film luze bakarra. Armendarizi zorterik onena opa diot, eta Oscar saria irabaziko balu hobe, baina benetako azaina, madarikazio antzeko bat hautsi duena, bestea izan da: egin egin dutelako, aurrena; film txukuna burutu dutelako, hurrena; eta ikusle asko bereganatu dutelako, azkena. Hiru pauso horietako lehena bakarrik eman balute, poz txiki bat izango zen; bi emanda, poz handiagoa; eta hiru urratsak eginda, sekulako poza.

2006a ere ez da hutsik joango, aurten aritu baitira errodatzen beste bi film euskaraz: bata *Kutsidazu bidea*, *Ixabel*, Joxean Sagastizabalen liburu arrakastatsuen gainean Fernando Bernués eta Mireia Gabilondok zuzendu dutena; eta bestea *Zeru horiek*, Atxagaren izen bereko nobela laburretik abiatuak Aizpea Goenagak egina.

Kutsidazuk ezagutu du dagoeneko antzerkirako bert-sio arrakastatsua, eta telebistarako beste bat ere egin omen diote. Batzuen ustez, formatu batetik bestera aldatze hori gure sormen eskasaren eta behi zaharraren errape-tik tiraka aritu nahiaren erakusgarria litzateke; baina badira kontrakoa diotenak ere, hots, kultura normal, bizi eta osasuntsuaren seinale dela horrelako merchandising operazioak egitea. Nolanahi dela, izan dadila film duina, barreri ukorik egin gabe baina generoak eskain dezakeen arlotekeriarako tentazioa gaitutuko duena. Eta, eskatzen hasita, izan dezala arrakasta komertziala.

Aizpea Goenagaren filmak baditu berezitasun azpi-marragarriak. Bata, TVE dela produktorea; hots, Espainia-

ko telebista publikoak dirua ipini du film bat euskaraz filmatzeko, eta hori, besterik gabe, nabarmentzekoa da. Ea txinparta bakarti eta bakartua ez den, eta ea instituzio hurbilagoak ere bide beretik joaten ausartzen diren. Beste alderdi aipagarri bat, honakoa: aurretik aipatu ditugun bi filmak ez bezala, hau pelikula serioa da, drama bat, algara eta txorakeria gutxi izango dituena. Kalitate maila dexentekoa lortzen badu, komedietan bezala erantzungo ote du publikoak? Antzerkiaren esperientziak esaten digu gauza «arin» eta barregarriak nahi dituela jendeak, eta ez pentsaraziko dizuten kontu tristeak. Pelikulak egitea lortu dugunez gero, saia gaitezen orain ikusleen infantilismoa gainditzten.

Hau da pelikula pila! Honezkero, satisfetxoan moduan eser gaitezke aretoko butakan, ezta?, euskal kulturaren alderdi ahulenetako bat konponbidean jarri dugulakoan... Ez ba, ahaztu amets horiek: kontu hauetaz ari girela lagun batek ohartarazi gintuen, aurtan film laburrak egiteko Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzetara ez dela aurkeztu euskarazko proiektu bakar bat ere. Basamortuaren erdiko oasi modura geratuko ote dira 2005-2006ko pelikula hauek?

Bloga, bloga, marinela

Horra modako hitza: bloga. Ez hitza bakarrik: sarearen barruko txoko pertsonal horiek gorakada dexentekoa izan zuten 2004an, eta 2005a egundokoa izan da. Bai munduan eta baita Euskal Herrian ere. Euskarak atzerapenik gabe harrapatu duen lehenengo iraultza komunikatibo eta teknologikoa dela esaten dute.

Modatik harago begiratuta, ordea, zer eskaintzen dute blogak? Funtsean komunikatzeko tresna dira, telefonoa, irratia edo aldizkari bat diren bezala. Horiek gero edukiz bete behar dira, eta edukiak izan litezke lerdokeriak edo perla zoragarriak. Komunikazio-bide honek badi-tu bere berezitasunak, hala ere, eta horietako batzuk aipatu nahi nituzke.

Bat: hitz idatziaren produkzioa izugarri handitu du. Sekula ez du hainbeste jendek idatzi euskaraz; ugaritasunak, noski, zabarkeria franko ekarriko du berarekin, baina baita ere non bilatua, aniztasuna, kolore eta zapore auke-
ra zabala, esperimenduak egiteko askatasuna...

Bi: harreman horizontalagoak sortzen dira, hierarkia-rik gabeak. Anjel Lertxundi bezalako idazle handi baten pa-
rekoa da sarean gaxte hasiberri bixarguri edo tititente bat: batengana bezain erraz iritsiko zara besteagana, eta norbere idazlanen interesaren indarrez bereganatuko ditu bakoitzak bere irakurle apurrak. Ez dut esan nahi demokrazia perfek-
tua ere duenik, baina bai itxurakeriak eta estatusak eragin txikiagoa dutela mezuaren kalitateak baino.

Hiru: onerako eta txarrerako, gorabehera ekonomikoetatik ia guztiz aparte dago blogen kontua: idazleak ez du txakur txikirik kobratzen; publikatzeak ez du gasturik; irakurtzea debalde da (konexio eta argindarraren gastuak alde batera utzita). Horrek bitartekaritzak eta morrontzak saihestea dakar, gutxieneko teknologikoak (tresna nahiz prestakuntza) edonoren esku baitaude gure gizartean.

Lau (Post Data): hau idazten ari nintzela (azaroaren 23a), Anjel Lertxundik azaldu ditu bere blogean fenomeno honi ikusten dizkion abantailak, nik baino egokiago eta zabalago. Ikusi nahi duenak: www.berria.info/blogak/lertxundi

Bi elkarte

Bi kultur elkarte nabarmendu dira urte amaiera honetan, oso arrazoi desberdinengatik. Bertsozale Elkarteak da bata, Idazle Elkarteak beste. Inoiz egin den bertsolari txapelketa jendetsu eta arrakastatsuen antolatu du bata; inoiz sartu den krisi, giro txar eta kakatza handienez murgildurik dago bestea, ni bazkide naizena. Bataren goraldia eta bestearen amildegia ez dira egun bakarreko kontua, ordea, bide baten ondorio eta segida baizik.

Bertsozale Elkarteak beste inork ez bezala landu du auzolana, elkartearen eta bazkideen arteko hartu-eman

eta komunikazio etengabea, garbi planteatu ditu helburuak, ez dio beldurrik izan erabaki zailak hartzeari, baina denen artean hitz eginez hartu dira (asmatu den edo ez, beste kontu bat da). Ez dut elkarte hori ere idealizatuko, edonon bezala hor ere badira kalapitak eta saltsak; asko hazi da urte gutxian, liberatu mordoa du gaur egun, baita lan militantea egiten segitzen dutenak ere (borondatezko profesionalak deitzen omen zaie bertan, to eufemismoa!); funtsean, baina, bide onetik ikusten dugu.

Idazle jendeak bakarka egiten du lana; bertsolariek elkarren beharra dute beren dohainak bete-betean erakusteko, eta igurtzi etengabe horrek, tentsioarekin batera elkarlana ere badakar. Idazlearen kasuan bestela da, eta beharbada horri zor zaio Elkartearen martxan askoz ere inplikazio gutxiagoa eduki izana. Eta inplikazio gutxi horretatik datoz, neurri batean, oraingo istiluak.

Zer gertatzen da ba Idazle Elkartean? Idazle Elkartea ere hazi egin da. Batzuen ustez neurriz gain, hazkundera bera helburutzat harturik eta elkartearen independentzia zalantzan jarririk, eta hortik datozke gainerako gaitzak. Ni ez nago seguru, baina ez dut horretaz jardungo. Hazkundera hazkunde, gaitz hauek sumatzen ditut, laburki, eta inor izen-abizenek salatuta gabe. Hasteko, zuzendaritzaren eta bazkideen arteko komunikazio-falta handi bat: idazle jendeak ez ikustea bere burua ordezkaturik, arrotz sentitzea erabaki asko (hau dena zuzendaritzaren errutzat jo liteke, nahi bada, baina bazkidearena ere bada, batzarretara agertzen ez delako eta parte hartzeko dauden bideak erabili nahi izan ez dituelako); horrez gain, zuzendaritzaren eta langileen arteko harreman txarra (honetan ere nahi bezala ikus litezke erruak, baina nik ziurta dezaket langile fin, prestu eta atseginak ditugula Elkartean, orain artean inorekin arazorik izan ez dutenak); eta, amaitzeko, karguak norbere mesederako erabiltzea, dela kalkuluz, dela oharkabean (edozein kasutan onartezina).

Lerrook argitaratzerako jakingo dugu ze buruk jantzen duen bertsolarien txapela. Edozein dela ere, ez daukat duda handirik ondo eramaten jakingo duela. Idazle Elkartearen aginte-makila berriz...

Nora zoaz? Où vas-tu?

Nola deitu behar zaio eutanasiari, pertsona bati ez baizik herri bati ezartzen zaionean? Ikasi beharko genuke hitz hori, behin baino gehiagotan erabili beharko baitugu aurrerantzean. Bi tokitan aditu dut denbora gutxian, Iparraldeaz ari zirela. Batek esan zidan, Euskal Kultur Erakundeak euskararen heriotza goxoki etortzea beste helbururik ez duela; besteak, Euskararen Erakunde Publikoa hizkuntzaren desagerpena kudeatzeko tresna dela.

Hitz gogorak dira horiek guztiak. Barne minez esanak, ez debaldetan. Ez nuke erakunde horietan lan egiten duten euskaltzaleen borondatea auzitan jarri nahi. Nagusiak dituzte, naski, euskararik ez dakitenak eta interesatzen ez zaienak, eta haiek utziriko diru apurrekin eta zirrikituak baliatuz aritu behar dute. Dena dela, ez dakit arazoa agintari frantximantak ote diren soilik.

Orain dela denbora puska bat, Euskal Kultur Erakundeak iragarri zuen inkesta bat egin behar zuela, jendeari galdegiteko zer kultura nahi zuen. Ideia hori, berez, aberrazio bat da, kultura denaren eta izan behar duenaren kontrakoa. Berriki Kultur Erakundearen diru-laguntza oparoz egin diren antzerki-lan pare batean, haren ikusten izan ziren batzuek esaten zidaten hizkuntza elementu huts bat zela ikusgarri horietan, beste askoren artekoa eta ez baitezpadakoa. Euskara ulertzen ez zuenarentzat azpituduluak ziren horietarik batean, hitzak bi hizkuntzatan esaten ziren bestean: «Nora zoaz? Où vas-tu?».

Horiek guztiak komentatzen ari ziren nire aurrean Iparraldeko bi kazetari: «Okerrena da Kultur Erakundeak ez dakiela zer nahi duen», esan nuen nik, inkesta hura go-goan. «Ez —erantzun zidan batek—, okerrena da Kultur Erakundeak badakiela zer nahi duen». Hots, horko arduradunen filosofia da euskaraz ez dakienarentzat egin behar ditugula gauzak. Ondorioa: euskararik ez da behar ezertarako. Ondorioaren ondorioa: euskara errekarra doa, lasterka gainera.

Oker ote nago? Agian! (Hitz honek Iparraldean beti izan duen zentzuan).


Orain hasten da

Balantze gisako hauetan beti hitz egin ohi dut literaturaz eta politikaz. Gaur literaturarik ez, eta politika ere apenas. Giro berri bat sumatzen da airean, horrek aldaketarik eka-
rriko duen ez dakigu baina. Aldaketak aldaketa, euskaltza-
leontzat lehengoan jarraituko du auziak, funtsean. Marko
juridikoaren balizko aldaketak ez dizkigula babak eltzetik
aterako, alegia.

Bertsoak eta txapelketak aipatu ditut lehen, eta horre-
lako batekin amaituko dut. 2000. urteko abendua zen, Biz-
kaiko txapelketaren finala. Bernardo Mandaluniz gai-emai-
leak kartzelako gaia azaldu dio Aritz Lopategiri, hiru bertso
osatzeke: «Hainbeste kostata baina, azkenik, gaur lortu dau
Euskal Herriak bakea. Esaiguzu zelakoa dan egun hori». Ni
ez nintzen bertan: telebistaz ari nintzen ikusten, eta telebis-
taz entzun nuen Lopategiren lehen bertso hau, bederatzi
puntuko handia:

Hainbat urtetan ibili gara bera lortzeko bidean
Jende guztia lagun eginda bide egiteko idean
Hainbat urtetan gure ametsak hor izan dira aidean
Bakoitzak bere helburuekin atzera egin ezinean
Halanbe batzuk ekin dautsenez hortxe jarrera finean
Lortu dogu, azkenean
Jarriaz bide onean
Politikoak badoaz orain danak hastera lanean
Egizko gerra orain hasten da bakea heldu danean

Telebistan kazetari bat ari zen esplikar, alboan bertso-
lari gazte bat hartuta, eta bertsolari horrek (hobe haren
izena isiltzea) halaxe esan zuen bertsoaren amaiera ent-
zunda: «Ze pena, Aritzek ez dau ulertu gaia». Lopategi
gazteak utzi zion bertso kantatzeari; bertsolari gazte hark
segitzen du, eta espero dut denborarekin iritsiko zela Arit-
zen bertsoa ulertzera. Ea benetan hasten den.¶



Allande Sokarros

Euskararen onarpena gora... euskararen erabilpena behera!

Joan den urriaren 19ko saio nagusian, Zuberoako 35 udal-erri batzen dituen Xiberoa Herri Elkarteak erabaki guztiz ga rantzitsu eta esangurantsu bat hartu zuen. Bileran parte hartzen zuten zinegotziek aho batez onartu zuten Atharratzeko kantonamenduko ikastolaren egoitza berria erai-kiaraztea. Basabürüko ikastolaren eraikin hau Herri Elkar-teak erosi duen Aloze herriko eskola katoliko baten kokale-kuan egongo da. Orain dela zenbait urte atek itxi dituen eskola horretako bastiza zaharkitu eta ezegokiak lurrera botako dira eta hauen ordeztu eraikiko dira alde batetik haurtzaindegi bat eta bestetik, beraz, Basabürüko ikastola.

Euskararen onurarako giro bat

Diru publikoarekin eraikiko da honezkero Atharratze in-guruko ikastola, Zuberoan dagoen bestea —Sohütako Epe-rra ikastola— ez bezala, hau aldiz gurasoen eta laguntzai-leen lanez, diruz eta, oro har, konpromiso osoz altxatua izan baitzen. Eperra ikastola eraiki zelarik, Herri Elkar-tea ez zen sortua, baina hala izan balitz ere, ez da erabat ziur-tatua Zuberoa osoko zinegotzien batzarre batek aho batez on-tzat hartuko zuenik euskarazko erakaskuntzako egitura bat sustatzea. Euskararen onurarako giroa nabarmen alda-tu da urte gutxitan, eta hori gertatzeko erabakigarria izan da hautetsiek eta egitura publikoek hartu duten joera bai-korra.

Euskararentzat giro hobetze horrek eragile bat baino gehiago izan du, hauen artean direlarik, nire ustez, azken

udal bozetan abertzale andana zinegotzi bilakatu izana, baita euskara herrialde baten garapenerako osagai izan daitekeela ohartzea ere. Euskara esparru publikora zabaltzea izan da lehenengo urratsetatik bat Zuberoan zein Ipar Euskal Herriko beste eskualde gehienetan. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean esparru publikoan elebitasuna bultzatzea autonomia egituraketa bateko eskumenei lotuta baldin badago, kontuan hartzekoa da Ipar Euskal Herrian euskarak ez daukala inolako ezagupen ofizialik. Euskararen plazaratzea tokian tokiko egitura publikoen aukerako jokabidea da; ez da legez babestua eta are gutxiago behartutakoa den egonmolde bat.

Lotsa beste aldean dago

Kontzientzien kolonizazio luze, sakon eta maltzurra jasan duen herri batean, egun batetik bestera, lekuen, egoitzen, zerbitzuen, lantokien eta gaineratik argibideen euskarazko izenak seinale ofizialetan agertzea, zin-zinez, go-goan iraultza baten antzekoa izan zen. Euskararen aldeko jarduleek soilik egina izan bazen, salaketa egileak egongo ziren, duda barik... Baina hautetsiek, lekuko botere publikoek bultzatuta zenez, herritarrak ez dute zalantzan jari! Kontrako iritzirik ez da aditu, halaber, Herri Elkarteak aurren bertan ere moldatu eta aho batez onartu duelarik euskararen sustatzeko egitarau bat jasotzen duen *libunuzuria*. Ez nago, hargatik, ameskerietan ibiltzen; jakin badakit euskararen plazaratze horren aurkakoak badaudela, baina hauen iritzi esparrua estutu egin da. Gaur egun, oso zaila bihurtu da euskararen aurka, argiki ala zeharka, agertzea, kargudunen munduan batez ere. Lotsa aldez aldatu da. Lehen, orain dela ez hain aspaldi, euskararen alde mintzatzea eta jokatzeko gaizki ikusia zegoen, euskarak ez zeukan sinesgarritasunik ezta kargudunen babesik ere. Oraingoan, aitzitik, euskararen aurka hitz egitea da gaizki ikusia dena eta politika zein gizarte arduradunek nabarmendu gogo dute euskarari atxikiak daudela, hitzetan baizik ez bada ere. Giro eroso honi esker da Basabürüko ikastola nola edo

hala nahikunde publiko baten ondorioz eraikiko, 25 urtez egoitza finkorik gabe noraezean egon ondoren.

Ofizialtasuna, euskararentzat premiaz lortu beharrekoa

Onartutako eta sustatutako ikastola horrek euskararen erabilera esparrua zabalduko duelako esperantzaz hazi behar gara, zeren eta, gure hizkuntzaren egoera etengabe larriagotuz baitoa Ipar Euskal Herri osoan oro har, eta Zuberoan bereziki. Eta horra hor, hain zuzen ere, paradoxa: euskararen onarpena gero eta gorago joaten ari den unean bertan, euskararen erabilpena gero eta beherago doala. Ikastolan dauden haurrez kanpo, ia ume eta gaztetxo bakar bat ere ez da euskaraz mintzatzen gaur egun Zuberoan. Mirari huts bat bilakatua da haur edo gaztetxo bat euskaraz hitz egiten entzutea, Zuberoako herri ustez euskaldun batean ere. Gainera, euskaraz dakiten bi haur egonda ere leku batean, haur erdaldun bat haiekin bateratzearekin, akabo euskara eta gora frantsesa! Ez da egungo kontua ezta atzo goizekoa ere, baina egoera gero eta okerragoa bihurtzen ari dela, hori bai begi-bistakoa... edo belariz nabarmen ohartu daitekeena dela.

Euskara hiltzorian dago Zuberoan eta erdipurdiko neurriek ez dute ezertarako balio izango. Nahitaez, legez behartutako neurriak hartzearekin bakarrik buelta eman ahal izango zaio heriozbide honi. Argiki mintzatzearren, euskara eskola publikoan —Frantziako Hezkunde nazionalaren sarean— derrigorrez sartu beharko da. Ezinbestekoa da, euskarazko irakaskuntza, gurasoen borondatezko urrats bat izatetik, bete beharreko araua izatera bilaka dadin eta, ordutegi kontu, oso nabarmen haz dadin. Horrelakorik ez da egongo legeak hala aginduko ez duen bitartean; eta legezko betebeharra izan dadin, euskarak, baitezpada eta premia gorrienez, ofizialtasuna lortu behar du Ipar Euskal Herrian. Abertzaleen, euskaltzaleen, herrizaleen —izen ezberdinak erabil daitezke euskararen alde jardun dutenentzat— indar egitez eta mobilizazioz lortu da ikas-

tolen ezagupen publiko zer bait, euskara plazara zabaltzea, euskararen aldeko giroa haztea.

Aukerakoa izatetik behartutakoa izatera

Orain, haatik, gehiago berantetsi ezin den borroka saila da gure hizkuntzaren ofizialtasuna eta honek deragitzan ondorio guztiak behingoz onar ditzan estatu frantziarrak. Euskara hizkuntza ofiziala bihurtze arkin, eskola publikoetan euskarazko irakaskuntza nahitaez onartu eta obratu beharko dute irakasle eta gurasoek. Ez dela demokratikoa, esango du baten batek? Demokratikoa al zen frantses hutsean Ipar Euskal Herriko seme-alabak heztea? Demokratikoa al da bere jatorrizko lurrean hizkuntza bat zokoratuta izatea, bizitzeko eta garatzeko baliabiderik gabe egotea?

Bati baino gehiagori zinikoa irudituko bazaio ere, menperatzea jasan duen herri batean, aginteak ebazten duena ezinbestez onesten dute herritarrek. Ipar Euskal Herrian, Parisko gobernuak bihar erabakiko balu euskarak behar duela ofiziala izan, ez litzateke aurkako oldaraldi handirik izango, non ez den, beharbada, Hezkunde nazionalako irakasleen artean, hauetatik asko «Errepublika batu eta zatiezin»aren zaindari zorrotzak baitaude. Oldaraldirik egon ala ez, irakasle hauetatik gehienen euskararen menperatze mailaz eta euskarazko irakaskuntzarik obratzeko gaitasunaz, baina, zalantza handienak badaude. Beraz, bidea oso luzea da eta bada garaia euskararen ofizialtasunaren lortzeko urrats eraginkorrak egiteari ekin diezaiozun. Bestenaz, hemendik gutxira, ofiziala izango den kontu bakarra euskararen heriotza izango da.

Santa Grazin, ikastola non grata...

Euskararen aurkariak, gaur egun, agerian azaltzera ez dira ausartzen erran dut lehenago. Ez da osoki egia, toki jakin batzuetan menturatzen baitira euskaltasunari arbuio egiten edo behintzat politika jokaerazkotzat ematen du-

ten euskaltasunaren kontra azaltzen. Eta hara beste paradoxa bat, euskararen etsaigo hori euskaldun petto-pettoak direnek aldarrikatzea. Horra hor lekuko datorkigun urteko pastoralaren egile izango den Santa Grazin hartua izan den erabakia. Aspaldidanik, eta salbuespen bakan batzuk gorabehera, pastoral agerraldi osteko afariaren atonketa Zuberoako ikastolen esku utzi izan dute antolatzaileek. Santa Grazin ez da horrelakorik izango... pastoralaren antolaketarako batzordeak erabaki baitu jarduera hori ezin zitzaiola eman «politika egiten duen egitura bati». Hara zertan dauden Santa Grazin, edo behintzat santagraztar batzuk: duela hogeitamar urte ikastolaren bultzatzaileei aurpegiatzen zitzaizkien aitzakia zitaletan tematuak. Horiek horrela, eta mugak muga, bakoitzak nahi duena pentsatzeko eta egiteko askatasuna duelakotz, Santa Grazik eskubidea dauka ikastolari uko egiteko eta pastoraletako afariaren prestakuntza nahi duenaren esku uzteko. Eskubidea dauka, bai..., euskaltzaileek jokaera horren hazle ez izateko haizu duten bezala eta, beraz, pastoral osteko afariari muzin egiteko aukera izango duten bezala.

Pastorala ez dadila euskararen tragedia bihurtu

Hu rrengo udan, beraz, Junes Casenave-Harigile herriko semeak idatzitako *Andere Santa Grazi* tragedia (pastorala) gozatzeko aukera izango dugu. Ikastolari arbuio eginagatik, santagraztarrak euskaldunak, euskal hiztunak, direla ezin da uka. Egunero euskaraz ari diren arizaleak izango dira, beraz, pastorala honetan, hori ez baita, tamalez baina, betiko kontua... Joan den urtean, esaterako, Ligi, Athe-rei, Lexantzü, Zunharre eta Etxebarrek taularatu duten *Bere-reteretxe* pastoraletan ia esan daiteke erdaldunak euskaldunak baino kopuru handiagoan zirela! Gauzak horrela, eta sinesgaitza badirudi ere, jakin beharrekoa da Jean-Pierre Rekalt errejenta frantsesez mintzatzerat behartuta zegoela mustraka edo trebealdi saioetan!

Egia esatearren, 2004an, Maule erdaldunduan eman zen *Antso Handia* pastorala joan den urtean Basabürüko

herri hauek eskaini digutena baino nabarmen euskaldunagoa zen. Nahiz eta erdaldun asko egon, hasiera-hasieratik giroa euskararen aldekoa izan zen. Jean-Louis Davant idazleak eta Jean-Fabien Lexardoi errejentak hartu eta jendeari ongi azaldutako jarrerak izan ziren, duda barik, giro horren hazle. Horrek agerian uzten du beste behin ere Ipar Euskal Herriak pairatzen duen diglosia egoera oso larria. Euskara da zokoratua eta baliabiderik gabe utzia den hizkuntza eta, aldiz, euskaldunak, euskal hiztunak gara erdaldunen zokoratzaille bezala agertzen garenak euskaraz mintzatzeagatik... Edo, beharbada, guk geuk geure buruari zokoratzaille izatea egozten diogu oharkabean. Kolonizatuaren sindromea nonbait... Albert Memmi gogoetari eta idazle tunisiarrak hain ongi aztertu duena *Portrait du colonisé* saiakera entzutetsuan. Egoera larri honen aurrean, intolerantea izateko gogorik banuke ia..., kasu honetan, tolerantziak esan bahi baitu euskararen zokoratzeari eta itotzeari «halabiz» esaten diogula.

Irnotasunez jokatu beharko genuke pastoralak bezalako abaguneetan behintzat, zinez harrigarria iruditzen baitzait euskarazko kultur sorkuntzaren adierazgarri bat izan behar lukeen ikus-entzungai hau erdaraz moldatu dadin.

Alta bada, ez dirudi horretara goazenik hurrengo urteetan. Pastorala egiteko asmorik luketen herri eta herri multzorik ez bide da eskaz. Gamere-Zihiga eta Aloze-Zibozze-Onizegaine aipatu izan dira, baita Ezpeize-Ündürene, Ainharbe, Ürrüstoi-Larrabile eta Sarrikotapea herrien arteko elkarlanerako zerbait ere. Ezpeize-Ündürene eta Sarrikotapea herrietan, esaterako, euskara dakiten bakanak, salbuespenak salbuespen, 60 urtetik gorakoak dira. Pastoralari dagokienez, 18. mendean eman zituzten azkenak. Ainharbe eta Ürrüstoi ere kasu berean dira, baina herri hauek euskaldunagoak dira, nolabait esatearren. Pastoralik egiten bada, honek sor dezakeen giroak, euskaraduna izatearen harrotasuna pizteak, gizarte lokarri eta harremanetarako baliabide den hizkuntza bizidunik gabe bizirik den kulturarik ezin dela izan kontzientzia hartzeak... horiek guztiak agian eragotziko dute euskara eta euskal kulturaren etorkizuna tragedia bihurtzea.¶



Andres Urrutia

Aurten ez da Akarregi etorri

Jakin aldizkariaren irakurleak ondotxo dakienez, sarri-sarri izan dut, nire testugintzaren sorosle, Akarregi izeneko herritarraren laguntza. Hainbatez, bera izan zait gozagarri eta atsegingarri, urtean-urtean euskal kulturak izaten dituen on-gaitzak, gaingiroki bederen, papereratzeko orduan.

Aurten, hala ere, ez dut sumatu haren presentzia. Akarregi ez da etorri. Ez dut, hortaz, haren aholku egokirik izango zuei, *Jakin* aldizkariaren irakurle prestu zareten horiei, nire burutazioak azaltzerakoan.

Egia esan, harritu nau haren faltak, eta nire buruari galdetu diot, behin eta berriz, zergatik ez den Akarregi agertu. Noiz eta azaro-abendu honetan, hain zuzen ere, urteko begizatze hau ontzeko biltzen garen honetan. Filosofiari banagokio, ezinezko iruditzen zait haren etorrera eza, Akarregi ausart eta sendoa baita; ez, ordea, kikiltzen diren horietarikoa. Politikari buruz badihardut, askoz gutxiago, gustura aritu izan delako, denbora-mugarik gabe, bateko eta besteko aukeraz nahiz asmoez. Kultura da, agian, biziki kezkatzen duen arloa, hortxe baitago haren ustez Euskal Herriaren gakoa.

Kultura ulertzen du hark letra larrietan, eta, jakina, horrek nahitaez eramaten du beste puntu batera, hots, euskararen arrangurera. Zinez arduratuta dago gure Akarregi euskararen geroaz.

Esan gabe doa Akarregi euskal kulturaren militantea dela, beharbada militante kritikoa, zenbait iritzi eta askoren buruiritziak erraz irensten ez dituen. Horra jo beharko dut, ziur asko, haren ihesaldiaren zergatiak asmatzeko. Horrek ere bidera dezake, nire ustez, oraingoaren ahalegina.

Norbaitek ahaztuxe bazuen ere, aurtan hogeita hamar urte pasatu dira aurreko erregimenaren buruzagia joan zenetik eta aro berri batean sartu ginenetik. Hura zen historia berriaren hasiera; hura ere askatasunaren seinalerik argiena. Errealitatea, ostera, tematiagoa izan da, eta hortxe uztartu gaitu, egunerokotasun latz eta gordinean.

Baldin eta gai izango bagina hogeita hamar urte atzerago joateko, geure buruak harrituko lirateke, zalantzarik gabe, ordukoa eta gaurkoa balantza batean jarrita. Norbaitek ere galde zezakeen, norabide zehatzean baino, balantzaka ez ote garen ibili edo gabiltzan oraindik ere, euskarari eta euskal kulturari dagozkionetan.

Izan ere, hortxe dateke, askoren ustez, Akarregik izan zezakeen zalantza berberaren jatorri eta arrazoia. Euskal kulturaren besoetan bizi, egunero bi egunkari (edo gehiago) irakurri (bata euskaraz, jakina) eta barruan barruko konbentzimendua izan, etsipena dela nagusi euskal kulturari.

Etsipena, edo, hobe esanda, desliluramendua. Gizartearen normalizazioa ere, bistan dago, horretarako eragile indartsua. Euskararen epika genuen amets, eta elebitasun urri batekin geratu behar. Literatura nazionalaren autobiode zabalean ibiliko ginatkeelakoan, errepidegintzan ari gara, aldameneko hizkuntzen literatura, euren mintzamoldez, zabal eta ugari dabilkigula etxean ere.

Teknika berrietan jarri dugu esperantza, teknika soilak aski balira legez gainean dugunari aurre egiteko. Ez dakit ez ote den oraingoa garai eta aldi bateko igurikimenak desegiteko bolada. Onik onenean, beraz, etsipena, eta, zergatik ez esan, merkataritza ere, itxurazko profesionaltasunaren azpian maiz ikusten delako ezin baztertuzko jokoak, alegia, euskararen militantismoaren izenean diru-irabaziak eta bizimoduak erdiesteak.

Halaxe dela eta halaxe izan behar duela sinestarazi nahiko ligukete batzuek. Beude. Agi denez, horixe da oraingo hizkera, gizarte jakitun eta modernoari dagokiona. Hala bedi. Seguru nago, edonola ere, nire etsipen-susmo hori, neurea ez ezik, Akarregirena, eta, zer esanik ez, euskaldun batzuen ere badela.

Euskararen ofizialtasuna: Europa eta Ipar Euskal Herria

Aidez edo moldez dugu euskara Europan sartua, eta, modu batez ere, ofizializatua. Aurrerakuntza izugarria omen, batekoek eta bestekoek adierazten duten moduan. Hala bada ere, kezkatzeko modukoa, ofizialtasun horrek dituen mugak ikusita.

Ez dut nik ukatuko ofizialtasun horrek izan ditzakeen ondorioak. Goretsi eta ederretsi egingo ditut halakoak, euskararen onerako badira. Beldur naiz, ordea, ez ote den hori aitzakia ezin aproposagoa, batzuen aurpegi-garbiketarako eta bestetzuen ezintasuna estaltzeko.

Natorren, alabaina, harira. Legelaria izan eta galderak bat-batean bururatzen zaizkit. Has nadin egiaztapen sotil batez. Izan, euskara betidanik izan da Europako hizkuntzetatik bat. Hurrean ere, antzinatik omen dago euskara Europan bertan. Bestelakoa da europartasun horrek izan behar duen indarra. Izatekotan, nik ofizialtasun-aldarrikapen hori aktiboa nahi nuke, hau da, eragilea eta benazko ondorioen sortzailea.

Inork badu asmorik euskara hizkuntza Europako ondarearen arloan sartzeko, berehala erantzun beharko zaio ondaretasun hori ez dela zerbait hila, bizia baino; ez dela zerbait geldoa, abian doana baino.

Ondare kontzeptu horrek eman behar dizkigu tresna egokiak, euskara babesteko eta sustatzeko, eta, bistan denez, arkeologia baino, biologia egiteko, biologia baita bizien zientzia, arkeologia behinola izandakoen zientzia den neurri berean.

Bizirik dagoenari ezin zaio bizitasuna ukatu. Bizitasunak dakar, bestalde, euskara bera aintzat hartzea bere esparru osoan, euskarari dagokiona eskaintzeko. Abagune aparta, hortaz, Europatik etorriko zaiguna kontu handiarekin gureganatzeko, euskara bera, Euskal Autonomia Erkidegoaz landa, Nafarroan eta Iparraldean ere badelako mintzaira eta elea.

Horrenbestez, euskarari etorriko zaizkio, euskaraz idatziak, Europan aginduzko diren arauetatik hainbat, Euskal Herriaren esparru osoan aplikagarri direnak. Hegoalde-

ko heritarrek ere, eskubidea izango dute Europako erakundeei euskaraz mintzatzeko eta idazteko.

Hori dela bide, euskaldunak helmenean izango ditu, kasurako, Europako aginduak, bere herrian aplikagarri direnak. Ipar zein Hegoaldeko euskaldunek euskaraz irakurgarri izango dituzte horiek. Halaber, egunero esku artean dituzten euskarazko testuekin alderatzeko abagunea.

Azpimarratzekoa da, orobat, Ipar Euskal Herrian hasitako ekimena, herriko etxeetan testu administratiboak euskaraz eta frantsesez emateko. Horra hor hasiera egokia, dagoeneko bere fruituak ekarri dituena, berrikitan argitaratu den hiztegi administratiboaren bidez. Dirudienez, horiek ere izan daitezke euskararen ofizialtasunaren lehen urratsak.

Lanabes nagusia, beste behin ere, itzulpena izango du euskarak. Itzultze-bidean, esan dudan legez, berebiziko erronkak ditu euskarak aurrean. Artean, alegia deus ez, euskara pausoak ematen ari da ofizialtasunaren bidezidorean. Beharrik, aitzina garamatzate urrats horiek, oraindik eginkizun dena handia bada ere.

Lazarragaren itzalpean

Zinez harigarria izan da Lazarragaren eskuizkribuaren plazaratzea. Zorionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak ikuspegi egokia erakutsi du, eta berehala eskuratu, euskararen altxorra aberasturik gera dadin.

Hizkuntzari dagokionez, ukaezinak dira haren ezaugarriak eta xehetasunak. Are ohargarriagoa, hala ere, gizartearen ikuspegitik, hark erakutsi digun errealitatea, argi geratu baita gizarte-maila ikasi eta elebidun baten lekukotza.

Orain arte, alabaina, lekukotza hori pasiboa izan da, alegia, euskara bera ostenduta agertu da, batera eta bestera, hitz edo esamolde solte batzuen azpian. Hamaseigarren mendea da horretan, ez bairik gabe, menderik erabakigarriena.

Bistan dira orduko hartan Europako hizkuntzak, handi zein txiki, naziotasunaren bidean. Euskara bera ere, oztopo guztien gainetik, bide berebean, Etxepare ren eskutik.

Norabide horretan, haatik, laster etorriko ziren oztopo eta debekuak. Historiaren erakustaldiak, beste behin ere, horren froga nabariak ematen ditu.

Dena den, esan dezadan argi eta garbi, Lazarragarena jakin ondoren, neronek ere hobeki ulertu ditudala XV eta XVI. mendeetako eskribau elebidunen aitortzak eta testuak, hortxe baitira, ageriko diglosia baten barruan, orduko euskal gizartean, aitoren semeek zuten jokabide linguistikoaren zergatiak.

Lazarragarenak bultzaturik, aztertuko al dira inoizko batean, gure eskribauen eta leinuzkoen diglosia eta jakinbideak? Nago ez ote diren aski argigarriak horiek euskararen historia aldiz aldi artez osatzeko.

Antonio Zavalaren *Auspoa*

Noizbait harrapatu dut gure Akarregi eskuan liburu bat zuela. Galdetu ahala, askotan erantzun dit, harrotasun puntu batez, *Auspoa* bildumaren idazkia zuela eskuan. Bera izan da Antonio Zavalaren berri eman didana eta haren joan-etorriak azaldu, euskararen ahozko tradizioa eraz zertzeko asmoarekin.

Badira, hizkuntzaren bizimoduan, ibai zabalak, errekek eta errekaetoak. Aldi frankotan, liluraturik ikusten ditugu errekaen ur-azalak, bertako kolore desberdinak erakartzen gaituztela, literatura idatziaren zertzeladak atsegingarri zaizkigun modu berean.

Azaleko uretan baino, sakonekoetan ibili zaigu beti Antonio Zavala. Jakin du herriari ateratzen, batera eta bestera, errekaen ur hondoenetan zegoen indarra eta grazia. Biltzaile ez ezik, ikertzaile ere zaigu Zavala, eta haren obra osoak, zinez harigariak, horretan izan du erakustaldirik bistarakoena, hots, euskaldunen begi-belarrietan jartzean euskaldunek eurek mendeetan sortu duten herri-euskararen literatura.

Behar-beharrezkoa zen hori, ezinbestekoa, beste aldeetik, euskararen uretan osotasunean barruratzeko herri euskaldunaren izatea eta ezaugarriak. Bada hor tartean ga-

rrantzia kendu diona langintza honi, Zavalak bildutakoa ezjakinen literatura balitz legez.

Oker dabilta horiek, nire ustez. Are okerrago, euskarra moduko hizkuntza batez ari bagara, euskararen erreka ibai zabala egin nahi dugun honetan. Bestela, argi dago, errekasto indargea izango litzateke euskararena, inolako etorkizunik gabekoa.

Horrexegatik da poztekoa Gipuzkoako Foru Aldundiak Zavalaren ondarea jasotzea eta digitalizatzeko konpromisoa hartzea, horrek bermatzen baitu, orenen gainetik, langintza horrek, gaurkoa ez ezik, gerokoa ere baduela euskararen eta Euskal Herriaren onurarako.

* * *

Aurten, esana dago, ez da Akarregi etorri. Beharbada et-sipenez eta euskararen minez. Edota, menturaz, gustura dagoelako, epel suma ederrean, *Auspoa* bildumaren azken zenbakia irakurtzen. Nork daki!¶



Iñaki Zabaleta Urkiola

Adore politiko urria

Iparaldeko Demoek bost urte bete zituzten 2005eko urtarrilean. Hil horren 9an, berrehunen bat lagun bildu ziren Baionako geltokian, tren-txartelak euskaraz eskatzeko. Euskarazko kulturak urteari protesta, interpelazio, manifestaldi eta elkarretaratze batekin eman zion hasiera. Oso sintomatikoa. Demoen eta Euskal Herrian Euskaraz elkarre a π beharra ere badago Hegoaldeko EAEn eta Nafarroan. Bai, Euskal Autonomia Erkidegoan ere bai. Hiru probintzietako kultur eragile eta euskaltzale askotxo Iparralde eta Nafarroara begira egoten da, frantsesek eta UPNk euskararen aurka egiten dituztenak harrিতuta eta, errukiz, misioan modura, lurralde horietako euskaldunei laguntzera joateko prest.

Baina EAEko euskarazko kulturaren egoera ikusita, ekintzarako garaia ere badela dirudi. Ez da pentsatu behar Eusko Jaurlaritzan bi alderdi abertzale daudelako, euskararen aldeko protestak, interpelazioak, manifestaldiak, elkarretaratzeak eta idatziak behar ez direnik. Oso bestela izan beharko luke, nire ustez, egoerak hori adierazten baitu. Gainera, agintari politikoez presioa behar dute, errespetuzkoa, baina «irutzia» (Leitzan izen eta aditz modura erabiltzen dugu), bestela herriarentzako baina herririk gabeko ilustrazioa izango genuke.

2000ko artikuluan nioen euskarazko kulturaren nabarmena zela gipuzkoarren ekarri oparoa, bertsolaritzaren pisua, eta Eusko Jaurlaritzaren sos-banatzaille funtzioa. Lehena eta hirugarrena, puntu batean behintzat, batu beharrean egonen gara, Kultura saileko buruak ere gipuzkoarrek baitira, aurreko urteetan izan diren legez.

Estrategikoa

Ez dakit nola doan probintzia horretako euskarazko kultur ekoizpena, ez gaizki, seguru, Ibon Sarasolaren azken ekarpenak dendara joan eta erosteko modukoak baitira, kasu. Baina badirudi Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza emailearen zeregina urritu dela. Horren inguruan kezka serioa agertu izan du Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak behin baino gehiagotan. Apirilaren 14ko txosten batean, 2001-2005 legegintzaldian Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarak euskararen alde egindako lana aztertu eta aurrerapauso nabarmenik ez zela eman ondorioztatu zuen. Azaroaren 29an, 17 zuzenketa egin zizkion Eusko Jaurlaritzak 2006rako aurreikusitako EAEko aurrekontuari eta, «kontinuista»tzat jo ondoren, ia 30 milioi euro gehiago jarzea eskatu zuen. Euskalgintzaren erreferentzia garrantzitsuenak bihurtu den Kontseiluak, gainera, Osakidetza eta Ertzaintza euskalduntzeko partidak sortzea eta hedabideek euskara sustatu dezaten diru-laguntzak handitzea galdegin zuen (lotsagarria da euskararen egoera bi sail hauetan).

Egun gutxi batzuk beranduago, abenduaren 2an, *Berriak* informazio eta iritzi sendoak zekartzan. «Pixka bat gehiago, askoz gutxiago» izenburuarekin, Jakes Goikoetxeak xehe aztertu zuen diru-laguntzen bilakaera, datuen taula handi bat eta gutzi. Horren arabera, EAEko gobernuak 2002an 4,08 milioi euro eman zizkien euskarazko hedabideei, eta 2005ean 3,80 milioi; alegia, 0,28 milioi euro gutxiago. Joanmari Larrarte EKTS eta Kontseiluko burukideak «Euskal hedabideen aldeko apusturik ez!» iritzi-artikulu gogorra idatzi zuen Eusko Jaurlaritza eta horren Kultura saila kritikatzeko. Edukia hiru puntutan labur liteke: diru-laguntzak urtero oso berandu etortzen direla, horiek behera doazela, eta Kultura sailak ez duela euskarazko komunikabideen sektorea estrategikotzat hartzen, Euskara Biziberritzeko Planean horrela definituta egon arren. Baieztapen irmoak, Kultura sailak gogoan hartu beharke lituzkeenak. Patxi Baztarrika sailburuorde berriak (beste zereginetan lan ona egindakoa) erantzun zuen baina bere arrazoiak ez zitzaizkidan konbentzigarriak irudituko.

Beraz, egoera kezkarri baten aurrean gaude eta, dirudenez, EAEko Kultura sailak ez du adore politikorik, kemen gidatzailerik, engaiamendu erabakigarririk, euskarazko kulturaren garapenean *funtsezko jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa emateko*. Ausardiaren ezean, errutinak jota daudela dirudi, «lehengoa berriz ere», zerbait doituta.

Zartagia sutan eta Eusko Jaurlaritzak euskarazko kulturaren eta hezkuntzan. Hor frogatzen dira biak. Gobernuko beste sailetan edozein autonomi erkidegotan egoten eta egiten diren politikak antzekoak baitira (industria, merkataritza, etab.). Areago oraindik. Guk gorai patzen ditugun sail batzuetan inbertsio gutxiago dago, gainera, hori uste ez bagenuen ere. Adibide bat. ELAk informatu berri du Eusko Jaurlaritzak osasunean inbertitzen duen portzentajea Europako Batasuneko batez bestekoa baino franko gutxiago dela. Ezin nuen sinetsi, «aurrera doan herria/Un pueblo en marcha» propagandak lausotuta. Iazko artikuluan banioen, nahiko politika neoliberalak daramala Eusko Jaurlaritzak kulturaren eta ekonomian, propaganda sozialdemokrata eginik ere.

Euskarazko kulturaren garapenean aurrerapauso kuantitatibo eta kualitatibo esanguratsua emateko, eragileekin adostutako plan estrategiko propio, espezifikiko eta sendo bat behar da lehenik, berbazko kulturari zehazki zuzendua eta «Plan Vasco de la Cultura» orokor horretatik berezia (gaztelaniaz ernatuta, pentsatuta eta idatzita dagoen plan hori «Kulturaren Euskal Plana» itzuli da, non «euskal» horrek «euskal herritar» edo «EAE herritar» esan nahi duen); plan berri hori diruz ongi hornitu, bigarren; eta agindutako helburuak, neurriak eta eginkizunak bete, hirugarren. Hirurak falta dira eta dagoen «Euskara Biziberritzeko Plana», txarra izan gabe, eskasa da, eta bere helburu mugatuak ere erdiraino bakarrik bete dira aurreko urteetan.

Horren guztiaren erantzule nagusia Eusko Alderdi Jeltzalea da, ez baitu erabateko konpromisorik hartzen. Jakina, euskaltzale bikainak, jakintsuak eta ekileak daude barrenean, ongi ezagutzen ditugu, baina alderdi modura indarra falta zaio euskararen alde; baita subiranotasun osoaren defentsan ere. Gobernuko alderdi nagusi modura nekatuta dagoela dirudi. Ulertzekoa da. Urte asko dara-

matza agintean eta, halaber, ez dugu ahaztu behar Isabel de Bergarechek 2005eko martxoan egindako inkestak berretsi duela EAJren boto-emaileen erdia baino gutxiago dela erabat abertzalea, hots, Euskal Herria ren askatasun osoaren aldekoa. Nazionalista izatea ez baita abertzale izatea, ez eta alderantziz ere.

Hala ere, eman diezaiogun beti zalantzaren aukera. Eusko Jaurlaritzak erabaki berri eta garrantzitsua hartu behar du hilabete hauetan: lurreko toki-telebisten lizentzien banaketa. Nahi dituen irizpideak jar ditzake, bere eskumenean baitago oso-osoan. Topagune erakundeak eta euskarazko komunikabideetako arduradunek eskari zehatzak egin dizkiote. Labur jarrita, barruti bakoitzean euskara h utsezko kanal oso bat izatea, eta beste kanaletan, minimo batzuetatik abiatuta, euskaldunen portzentajea errespetatzea programazioan, bai kanal publiko eta pribatuetan. Baina ez dut esperantza handiegirik, Kultura saila go-bemuaren mahaian ez baita sail boteretsua, eraginekoa, eta EAJko beste sailburuak, bizkaitarrak batez ere, pisu politikoa dutenak, ez baitira horren euskaltzaleak eta abertzaleak (gogorra da azken hau esatea, baina biografiei eta egintzei begiratzea besterik ez dago).

Erretorikoa

Bertsolaritzak txapelketa nagusia egin du 2005ean. Finala Bizkaian. Jende asko saio gehienetan. Ongi. Abenduaren 10ean, *Berrian*, Jon Agirre Garmendiak galdera bota zuen ea norbaitek aldatu ote duen bertsoaren kontzeptua eta «ongi neurtu eta errimaturiko hitz bilduma izatetik amaigabeko neurrietara (betelanean oinarriturik asko) pasatzen ez ote den ari egungo bertsolarien jomuga». Behar-bada bai.

Euskarazko kulturen bertsolaritzaren pisua behar baino handiagoa zela iruditzen zitzaidan 2000n. Horren zergatiak adar askotan bilatu behar dira, eta ikastoletan haur eta gazteekin lantzen den ahozkotatasuna (zorionak horregatik) ez da txikiena, seguruenik. Baina nago gaurko gi-

zartearen izaerarekin eta erretorikaren kontzeptuarekin ere zerikusia baduela. Ez da esplikazio garrantzitsuena, agian, tradizioak ama asko baititu. Erretorikak ez du egia bilatzen, egiantzekotasuna baizik. Erretorikak helburu jakin baten bila doan komunikazio eraginkorra lortu nahi du eta helburu hori mota askotakoa izan daiteke: dela bertsolaritzako jolasa eta gozamina, dela politikako pertasua, besteak beste. Edozein modutara, erretorikaren erroan itxura egitea dago, rol bat antzetztea, aktore modura jardutea, simulakroa, eta hori da neurri handi batean, ez osoan, bertsolaria: aktore bat, hizkuntzaren teknika batzuk ongi menderatzen dituen artisaua, entzuleentzako «gauza ederrak eta zirigarriak» izango direnak esateko prest, entzulea psikologikoki bereganatzeko asmoa duena (psikagogia edo erretorika psikagogikoaren helburua), nahiz eta itxura-egilearena egiten jardun eta, beharbada, bertsotzen duena ez zinez sinetsi, momentuko sinesmena ez bada. Osoan ez dela esan dut, «egiantzekotasunaren bertsolaritza»tik haratago bai baitago «egiaren bertsolaritza», egiaren bila doana, alegia.

Alabaina, argitu behar da gaurko oholtzara igotzen den bertsolari franko ez dela bertsolari soilik, baizik eta baita ere idazle, intelektual (?)... euskal filologian lizentziatua, behintzat (umorez hartu hau).

Erretorikaren balioetasuna gehiegi estimatzen da gaurko gizartean, politikan, komunikabideetan, eta baita uni-bertsitateko irakasleen artean ere, komunikazioaren alderdi garrantzitsuena balitz bezala. Ez da horrela, nire ustean, egiantzekotasuna ez baita egia, fartsaren eremuko iturria baizik. «Asuntoa» eraginkorra izatea omen da, mezua barrokotasunez eta bertsolaritzatasunez puztu behar bada ere. Azken gogoeta-bide honetatik abiatuta, euskararen kalitate eta egokitasunaz azken hilabete hauetan idatzi diren barrutietara igo gintezke, igo, desadostasunak nabarmentzeko... baina utz ditzagun aldapa horiek oraingoz.


Nafarroako Gobernuak ere erretorika bete-betean aplikatzen du euskararen inguruan. Beti euskararen alde dagoela esan eta gero Foruzaingoko hogeita hamalau postu betetzeko lan-deialdian ez zuen meritutzat hartu; bai,

ordea, alemanez, frantsesez edo ingelesez jakitea. Hori gutxi balitz, Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusi Pedro Pegenautek azaroan esan zuen Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak ontzat eman duela Nafarroako Gobernua ren hizkuntz politika, eta alor honetan Nafarroa abangoardian dagoela. Beste bertsolari bat, beste aktore bat.

Baina erretorikaren maisu handienetakoa Frantzia da. Urtarrilean, Frantziako Parlamentuak Konstituzioko «Frantsesa da Errepublikaren hizkuntza» dioen 2. artikulua ez aldatzeko erabakia hartu zuen. Hitz bakoitzero bi gezur esatea zaila bada, frantses politikariek maila hori gaindi dezakete.

Esandakoak esanda, ez naiz bertso txar bat egiten hasiko, lehen ere gaizki errimatutako bertsoak eta poemak bai baititut, eta prosan amaituko dut, esanez, euskarazko kultura egoera txarrean dagoela Nafarroan, Iparraldean eta baita Euskal Autonomia Erkidegoan ere; egindako aurrerapenek, handiak izanik, ia hiltzoritik abiatu ginelako, ez baitute deus bermatzen gerora. Horregatik, EAEko gobernuak, abertzaleenak, ez badu erabaki politiko sendo eta estrategikoa hartzen, gutxi balio du abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeak. Euskaldun gehienak, oraingoz, Euskal Herrian baikaude, komunitate uniforme bano hizkuntz unibertso anitza osatuz, identitate politiko eta kultur-inguru franko desberdinetako unibertsoa gainera. ¶

Gaiak



BEATRIZ ZABALONDO

Euskal nerabeak eta Euskal Telebista

71



IGNAZIO AIESTARAN

Abegi kosmopolita, Europa eta globalizazioa
Jacques Derrida in memoriam

95

Euskal nerabeak eta Euskal Telebista

BEATRIZ ZABALONDO

Sarrera

XX. mendearen bigarren erdian hasita, ikaragarri ugari-ritu eta zabaldu dira ikus-entzunezko produktuak mundu guztian, hasi zinemarako filmetatik, telebistarako saioak ondoren, eta, azkenik, gaur merkatuan gero eta toki handiagoa hartzen diharduten DVD, bideo-joko, ordenagailurako produktu askotarikoak, eta, oro har, multimedia teknologiak baliatzen dituzten hainbat eta hainbat produktu.

Globalizazioaren aroa parez pare etorri da digitalizazioarekin eta multimedia teknologien garapenarekin, eta eragin bete-betean, azken hamar-hamabost urteotan are pisu handiagoa hartu du ikus-entzunezkoen alorrak, industriaren hedapenagatik ez ezik, baita hartzaile kopuruagatik ere. Beste alor batzuetakoak bezalaxe, telebistagintzako merkatuak mundura zabaldu dira. Gaur ekoizle handiek apenas duten arazo tekniko edo fisikorik sorburuko estatu mugak gainditzeko. Berez, etorkizun interesgama irekitzen zitzairen hizkuntza txikiei ere, euskarari, katalanari zein galegoari, kasu, soilik gertueneko hizkuntza txikiak aipatzearen.

Gaur-gaurkoz, ingelesaren bidez zabaltzen dira munduan fikziozko produktu gehienak, baina ez den-denak. Horrek, besteak beste, ikaragarritzko boterea dakar atzetik.

► **Beatriz Zabaldondo** Kazetaritzan lizentziaduna da eta bikoizketarako testu eta gidoiden itzultzaile-egokitzailea.

Ezin dugu ahaztu Europako herrialdeetan ezarri duen menpekotasuna ekonomia jardueran eta kultura-hizkuntza azturetan.

Ikus-entzunezkoen industriak sortutako produktuen ondoz ondo, horien transferentzia linguistikoa planteatu da, unean uneko egoerak zein helburuek aginduta, kasuan kasuko hizkuntza eta kulturara.

Bi bide nagusi erabili izan dira fikziozko produktuak hizkuntza batetik bestera aldatzeko: azpidazketa eta bikoizketa. European oso zabaldua dago azpidatzi bidezko itzulpengintza. Aldiz, herrialde handienak eta hizkuntza handienak dituztenek —alegia, hiztun kopuru handiena— bikoizketaren bidea hobetsi izan dute, hala nola Alemaniak, Erresuma Batuak, Espainiak, Frantziak eta Italiak.

Gurera etorrita, euskara hizkuntza gutxitua izan arren —European zein Espainia eta Frantziaren barruan—, Euskal Telebistak sorrera beretik hartu zuen bikoizketaren bidea, nahiz eta azpidazketa ere baliatu izan duen garai eta saio jakin batzuetan.

Euskal Telebistako produktu bikoiztuekin 13-18 urte bitarteko nerabeek duten harremana aztertzeko abiatu genuen ikerlanaren laburpena emango dugu segidan: «Gazte euskaldunen jarrera Euskal Telebistako saio bikoiztuen aurrean». Doktoregorako Gaitasun Ikertzaileko lanaren fruitua izan zen ikerlan hori.

Aspaldiko urteetan Euskal Telebistak ez du eskaintzen programaziorik 13-18 urte bitarteko ikus-entzuleentzat. Eta horietarik ia guztiak Euskal Telebista bazela jaiok dira gure herrian; alegia, etorkin berriak kenduta, gaur 20 urte-tik behera dituztenak ETB sortu ondoren jaiok dira. Esan nahi baita, ikus-entzunezkoei buruzko kultura euskaraz garatu dute —edo okerreanean, euskaraz *ere* garatu dute—, eta, *a priori*, gure ustez, ez dute zertan aurreiritzirik izan euskarazko bikoizketaren kalitatea zalantzan jartzeko. (Aurreko belaunaldiko ikus-entzuleek gaztelaniazko bikoizketa zalantzan jarri ez zuten bezala, bide batez esanda).

Marrazki bizidun ugari eta haur-programazio nahiko txukuna izan dute haurrek euskal telebista publikoan txiki-txikitatik, 12-13 urte arte. Baina hortik aurrera, zer kon-

tsumitzen dute? Zer eskaintzen zaie euskaraz? Zer ohitura hartu behar izan dituzte? Nora jotzen dute? Nerabezaro erdaldun bete-betea edo *Goenkale*: fikzio mailan nekez eskaintzen zaie beste aukerarik ETB1en. Handik aurrera ere ezer gutxi: film luze bat astean, igande gauetan (*Zine Oro*).

Hizkuntzaren normalizazio bidean falta den eskailera maila ezinbestekoa da hori, gure ustez, eta nerabe euskaldunekin hutsegite handi bat ari da egiten euskal telebista publikoa. Eta ez euskaradunekin bakarrik, Euskal Herrian bizi diren eta bizitzera etorri berri diren hainbeste eta hainbeste etorkinekin ere bai, baita etorkin horien seme-alaba jaio berriekin eta datozen urteetan jaioko direnekin ere: horiek guztiak ere badira euskararen etorkizuna.

Inguruan ezagutzen ditugun hizkuntza handiek ez diote uko egin bikoizketari (gaztelania, frantsesa, italierra...); ezta hizkuntza txikiagoek ere (katalana, galegoa...). Azken urteetan telebista ia guztietan barne-programazioaren joera gailendu den arren, kanpo-programazioari eskainitako orduak aztertzea besterik ez dago konturatzeko oraindik pisu handia dutela telebista generalistetan, eta espezializatuetan zer esanik ez.

Ez dugu aipatu gabe utzi nahi lan honetan euskarak ere behar dituela bikoiztutako produktuak bere telebist(et)an. Batetik, produktuen eklektikotasunak euskararen lantegian egin duen ekarpenagatik —eta egiten jarraituko du—, eta bestetik, telebistari aitortzen zaion komunitatearen indar kohesionatzaileak programazio zabal eta askotariakoan duelako oinarri, ez kirolean eta haur-programazioan oinarriturikoan soilik.

ETBk euskarara bikoiztutako produkzioa

Zertaz hitz egiten ari gara, zehazki? Euskal Telebistak zenbat bikoizten du, urtean? Bikoiztutako kanpo produkzioaren datuak eskuratu guran EITBra bertara jo dugu. Joselu Blanco EITBko Programazio arduradunak emandako datuen arabera (2005), azken hamabost urteetan bikoiztutako ordu kopurua hauxe izan da:

Taula I: Euskal Telebistan euskarara bikoiztutako orduak, urtez urte

<i>Urtea</i>	<i>Bikoiztutako ordu kopurua</i>
1989	1.134
1990	1.020
1991	1.287
1992	1.044
1993	772
1994	779
1995	733
1996	613
1997	617
1998	411
1999	492
2000	596
2001	525
2002	512
2003	458
2004	513

Iturria: EITB (Joselu Blanco).

Datu horietatik ateratzen denez, 1995-2004 urtealdian, 5.470 ordu bikoiztu ziren. Aurreko hamarraldian baino dezente gutxiago, Xabier Mendiguren Bereziartuk 1995ean eman zituen datuak kontuan hartuta:

Taula II: ETB sortu zenetik, lehen bi hamarraldietan euskarara bikoiztu duen ordu kopurua

<i>Urtealdia</i>	<i>Bikoiztutako ordu kopurua</i>
1983-1994	9.497
1995-2004	5.470

Iturriak: X. Mendiguren Bereziartu (1995) eta EITB (J. Blanco).

Euskarara bikoiztu den ordu kopurua ikus-entzuleek kontsumitzen dituzten produktuetan nola banatzen den ulertzeko, orduak generoka zehazteko ere eskatu genion Joselu Blancori. Azken hiru urteetakoak baino ezin izan ditu gure eskura jarri, hain zuzen, hemen behean emango ditugunak:

Taula III: Euskarara bikoiztutako produktuak generoka

	2002	2003	2004
Film luzeak	50	47	45
Dokumentalak	130	156	146
Marrazki bizidunak	296	270	322
Guztira	512	458	513

Iturria: EITB (J. Blanco).

Ohara: II eta III tauletan alde txiki bat agertzen da 2002 eta 2003ko ordu kopuru guztien zenbaketan. EITBko departamentu desberdinek emandako datuak direlako da. Nolanahi ere, ez dira alde esanguratsuak eta II. Taulako datuak hartuko ditugu beti erreferentziazat.

Lehendabiziko ondorioak

Horra datuetan, begi-bistan, ETBn bikoizketan izandako beherakada, batik bat 1994tik aurrera. Bi arrazoi nagusi izan dira horretarako: batetik, ETB1eko fikzio eskaintza urritu egin da, orokorrean; bestetik, etxean ekoiztutako produkzioak indartu egin dira, betiere produktu bikoiztuen kaltean (Irazu, 2001: 133). Gaur, gutxi gorabehera, eguneko ordubete bikoizten da urtean (Asier Larinagari elkarrizketa, 2005-IV-28).

Urteen joanean, halaberrez, bikoizketako profesional horietako askok eta askok beste ogibide batzuk bilatu behar izan dituzte. Fikzioaren itzulpen-egokitzapenetik erabat bizi den itzultzailek apenas dagoen Euskal Herrian. Gehienak derrigortuta daude beste mota batzuetako lanak, eta hobeto ordainduak, onartzera.

Enpresa errentagarritasunak bultzatuta, segur aski, bikoizketa etxeetan lanean diharduten dozena erdi bikoiztailerekin atera izan dute produkzioaren gehiena, falta ziren ahotsak *free-lance* dabiltzan bikoiztaileekin osatuta. Bikoizketaren gainbeherarekin eta lan sistema horrekin, bikoiztaile asko trebetasuna galtzen hasi ziren, eta gero eta gutxiagotan deitzen zituzten lanerako. Horren guztiaren ondorio zuzena izan da, besteak beste, bikoizketako ahotsen urritasun eta uniformetasuna.

Gauza jakina da lanerako baliatu ezean nekez izaten dela erremintarik finena ere zorrozuta. Eta halaxe gertatu izan da euskarazko telebistarako lanean ziharduten itzul-tzaile-egokitzaille zein bikoiztaile askorekin ere: lana urri-tzearekin «kamustuta» geratu dira.

Gure ikerketa

Bikoizketa produkzioaren gainbehera baietsita, nerabeen ikuspegia jasotzea interesatzen zitzaigun. Arestian ere esan dugu: behin marrazki bizidunak ikusteko adina atzean utzitakoan, ETB1ek ez du eskaintzen programarik, jo deza-gun, 14-18 urte bitarteko ikusleentzat. Euskarazko telebista kate publikoak fikziorik eskaintzen ez badu adin tarte horretako ikusleentzat, nekez iritsiko dira gaztaroan eta hel-duaroan euskarazko fikzioaren kontsumitzaile izatera.

Euskara hizkuntza minorizatua izanik, esparru guztie-tara zabaldu behar da inoiz normalizatuko bada. Alegia, zinemara ere hedatu beharko da. Gaur oraindik hutsune handia daukagu horretan ere. Gabonetako bueltan eskain-tzen diren dozena erdi film kenduta, zinema aretoetan ez da euskarara aldatutako filmak ikusteko aukerarik izaten. Dagoen eskaintza apurra ere haurrentzako da; oraindik ez da nerabe-gazteentzat zinema programatzeko saiorik egin, are gutxiago helduentzat. Euskarara bikoiztutako filmen programazioa zinema aretoetan hutsaren hurrengoa da, guztiz testimoniala.

Euskal Telebistak sorrerako helburuen artean zituen euskararen normalizazioa eta euskal kulturaren zabaltzea eta babestea. Gure ustez, helburu horien barruan daukan egitekoetako bat da ikus-entzuleengan filmak euskaraz kontsumitzeko ohitura sortu eta aukerak eskaintzea.

Puntu horietan zentratu zen gure ikerketaren muina, eta gaur ETBk hain nabarmen eten duen programazio es-kaintza hori nondik nora gertatu den eta zer ondoriotara garamatzen aztertzea hartu genuen helburu.

Ikus-entzunezko lanei buruzko bibliografia arakatzean, nagusi dira ikerketa kuantitatiboak. Audientziak eta, oro

har, telebistari buruzko azterketak mugatu izan dira programa eta genero mota bateko ikusle kopuru bati lotutako emaitzetara. Audientzia-ikerketak eskatzen zuen enpresak nolabaiteko legitimazioa bilatu izan du, teleikusle/kontsumitzaile kopuru jakin bat izateak ematen dion ahalmenarekin, nahi duen programazioa ezarri eta bere nahierara eragiteko gero ikusleengan, baina inola ere ez ikuslearen jarrerak edo iritziak ezagutzeko asmoarekin (Gamendia, 1998: 29).

Baina guk nerabeen ahotsa entzun eta jaso nahi genuen, eta azkenean, metodologia kuantitatibo zein kualitatiboak, biak baliatzea erabaki genuen.

- 1) Hamarna ikasleko bi eztabaida talde.
- 2) Hiru adituri egindako sakoneko elkarrizketak.
- 3) Inkesta: DBH 3ko sei gelatan. Guztira: 122 ikasle.

Ikerlan honetarako Hego Euskal Herriko nerabeak bakarrik hartu ditugu kontuan, eta, zehazki esateko, EAEko D ereduko ikasleak. Ez dira izan kalean alirirtzira hartutako nerabeak. Guk geuk egindako inkesta izanik, ikastetxeetara jo genuen laguntza eske. Era berean, kontuan hartu behar da oso lagin mugatuarekin egindako ikerketa dela, inondik ere ez inkesta-etxe handiek dituzten baliabideekin.

Eztabaida taldeak

Nerabeek eurek bikoizketari buruz zer iritzi duten jasotzeko antolatu genituen bi eztabaida taldeok: Zarauzko Oteitza Lizeoko Lehenengo Batxilergoko hamar ikaslerekin lehena, eta Donostiako Santo Tomas Lizeoko DBH 3ko hamar ikaslerekin bigarrena (bost neska-mutil, talde bakoitzean). Taldeak zirikatzaila lana egiten du horrelakoetan, eta adin horretako subjektuekin aritzeko oso metodo egokia begitandu zaigu: nerabeak seguruago aurkituko du bere burua talde ezagun baten barruan, eta, gure ustez, erosoago sentituko da erantzunak arrazoitzeko. Guk botatako galderei Bai/Ez soilekin erantzutea saihestu nahian, ikaskideen artean sortuko den solas giroan espero dugu aurkitzea bila gabiltzana.

Ikasle taldeen solasaldia gidatu eta gutxi gorabeherako galdera batzuei erantzuten zigutela ziurtatzeko, gidoi bat prestatu genuen aurrez.

Eztabaida taldeetako grabazioak aztertzen hasi bezain pronto ohartu ginen ikasketa maila desberdineko taldeak izanik eskola-ordutegian ere aldea zegoela bi taldeen artean, eta horrek behartuta, ikasleek ere ohitura desberdinak dituztela telebistaren aurrean jartzeko. Esate baterako, Zarauzko taldeak, lehenengo batxilergokoak, goizean 08:00etan hasi eta 15:00etan amaitzen zituen eskolak. Ikasle askok telebista piztuta bazkaltzen zutela aitortu ziguten —gehienean, ordu horretan bakarrik zeudelako etxean—, eta guztiek hartzen zuten tarte bat bazkalondoan telebista ikusteko: dokumentalak, euskarazko zein gaztelaniazko kateetan, eta foiletioiak nahiz *Pásalo* eta antzeko saioak gaztelaniazkoetan. Donostiako taldeak, berriz, bi ordu eta erdiko atsedeen tarte zeukan eguerdian —13:00etatik 15:30era—, berriz eskolara itzuli aurretik; bestela ezin, eta tarte hori baliatzen dute telebista ikusteko: eta marrazki bizidunak eta *Hasi berrak* ikusten dutela diote (euskaraz).

Edozelan ere, talde bateko zein besteko ikasleek diote gauetan ikusten dutela telebista gehienbat —aratsaldeak beste zeregin batzuetarako hartuta dauzkatelako—, eta asteburuetan gutxiago aste barruan baino. Ia ikasle guztiek aitortu zuten telebista bat baino gehiago dutela etxean, eta askok berea dute logelan. Ahal dela, nahiago dute bakarka ikusi nahi dutena; familia apenas biltzen den telebista ikusteko, bestela «diskutitzen amaitzen dute». Ia guztiek ikusten dute gaueko albistegia, eta familiarekin komentatzen dituzte eguneko gorabeherak. Fikzioaren gainean, ostera, gehiago aritzen dira lagunartean eta ikaskideekin.

Eztabaida taldeetan parte hartu zuten nerabeek emandako telebista saioei buruzko iritziak honako puntu haueetan laburbiltzen dira:

1) «Badakigu kate bakoitzean zer ematen duten, eta plana egiten duzu telebista ikusteko». Alegia, telebista aurrean ematen dituzten aisialdiko orduak antolatuta dauzkate astea, egunean-egunean dagoen eskaintzaren arabera. Ez dute edozer ikusten, ez dira telebista aurrean esertzen

zerk erakarriko zain: badakite non zer emango duten eta horen arabera hautatzen dute saioa eta katea, bistan denez.

2) Gehien zer ikusten duten galdetuta: *Los Serrano*, *Gran Hermano*, *Vaya Semanita*... Bat-bateko erantzunetan ez da entzuten euskarazko saioen izenik, ez barne produktiozko, ez euskarara bikoiztutako.

3) Gogokoen zer programa mota duten galdetuta, honako hauek aipatu zituzten: telesailak, umorezko saioak, kirolak... Baina telesailetan ETBn aukera gutxi dutela diote, eta eskaintza ugarituz gero, ikusiko lituzketela, betiere, «interesanteak izanez gero» edo «kalitatearen arabera». Euskarazko eskaintza urria izanik, beste kateetara jotzen dute ezinbestean (nahiz eta oso garbi duten «elkarri kopiatuak eta txarrak» direla asko).

4) ETB1etik gehien zer gustatzen zaien galdetuta: *Haberriak* (2005eko udaberrian eguerdian eman dute berriro —bazkalostean, eskolara sartu aurretik ikusten zuten—), dokumentalak eta *Goenkale* diote (gehienek gogaitzen hasita daudela onartzen duten arren); kirola (mutilek, batez ere) eta filmak.

5) ETB1en astean behin ematen dute film bakarra, igandean: *Zine Oro*. Ikusteko joerarik baduten galdetuta, «filma polita bada, bai» erantzuten dute batzuek. Eta gainbalio gisa aipatzen dute ordutegiaren egokia eta publikitate etenik gabe ematea. Beste batzuek gogoratzen dutenez, berriz, *Siete Vidas* dute beste kate batean, ordu bertsuan.

Bikoizketaren inguruan duten iritzia lausoagoa da. Oro har, onartzen dute haurtzararen marrazki bizidunak normal-normalikusten direla, denek halaxe ikusi dituztela.

1) Printzipioz, hizkuntzagatik ez dute baztertzen ETB, baina «filmek asko galtzen dute euskaraz», dio batek.

2) Eta zergatik galdetu genien: «Ahotsak beti berdinak direlako», diote batzuek. Euskaraz gaizki egiten dela iruditzen zaien galdetuta, ezetz diote, berriz lehengo erantzunari heltzeko, ahotsak gehiegi errepikatzen direla.

3) Estatuko beste kateetan aditzen diren ahotsak errepikatzen direla onartuta ere, hemengo ahotsak ezagunak direla diote: «*Goenkale*» aktoreen erdiak bikoizketan da-

biltza: boz hau halako aktorea da, beste hau, bestea...». Nolabait esan, zenbait ahots entzuteaz bat, aktorearen aurpegia ikusten ari dira. Hala diote ia ikasle guztiek. Filmetara zaletuena denak bozak besterik ez dituela entzuten erantzun zuen: «Film ona izan ala ez izan», hortxe zegoela beretzat gorabehera bakarra.

4) Baina berriz agertzen da bikoizketaren «mamua»: ez da ahotsagatik bakarrik. «Zuk erdaraz ikusten duzunean pelikula bat, ingelesetik erdarara galdu egiten du, eta erdaratik euskarara ere bai», dio lehenengo iritzia eman duen berak. Baina jatorrizkoa ezagutzen ez bada, nola jakin? Izan ere, ikasleek ez dute horretarako erantzun garbirik: «Porque se supone. Berez, pelikula amerikanoa baldin bada, ingelesez egingo zen, ingelesez landuko zen, eta gero erdarakoan galdu egingo zuen». Taldeko ikaskideek ez dute iritzi garbirik horren inguruan, edo ez dira ausartzen ematera. Eta ikasle berak arrazoi bera ematen du ostera: «Nire ustez, berez doblajea galdu egin behar du, ez delako hizkuntza horretan egindako gauza bat».

5) Baina ez ditu denak konbentzitzen, antza. Denbora pixka batera, beste ikasle batek dio beste kate batzuetan pelikula hobeak ematen dituztela, «arazoa ez da doblajea». Beste batek igandeko ordutegiaren desegokia aipatzen du, eta azkena ausartzen denak ere bikoizketak ez duela «horrenbesteko pisurik» irizten dio.

6) Marrazki bizidunen inguruan eramanda gaia, gehien iritzia da umetan batetik oso ahots gutxi ezagutzen dituztela eta bestetik ez daudela horri begira, marrazkieta-ko pertsonaiek liluratuta daudelako-edo. Baina gaztelaniazko marrazki bizidunei buruz galdetuta, hona erantzun harigarria: «*Dragoi Bolak* pila bat galtzen zuen gaztelaniaz, baita *Doraemonek* ere». Produktu bat lehenengoz zein hizkuntzatan ezagutzen den, eragin handia duela onartzen dute ikasleek. Lehenengo hizkuntzan ezagutzen den produktua, oroimen onarekin gorde ohi dute; «galera» —hautematekotan— produktu bera bigarren hizkuntzan entzun ondoren gertatzen da, eta bigarren hizkuntzari lotuta egon ohi da (kontuan hartu gabe zein hizkuntza den kaltetua; bigarrena izate hutsagatik baizik):

Zu ohitu zara txiki-txikitatik serie bat ikusten euskaraz, eta gero erdaraz beste ahots batekin; baina zuk beti pertsonaia lotzen duzu ahots batekin, eta gero beste ahots batekin entzutean txokatu egiten dizu.

Adituekin elkarrizketak

Ikasleekin solasean aritu ondoren, adituengana jo genuen hurrena, bikoizketaren arloan ETB1erako lanean diharduten profesionalengana, hain zuzen. Elkarrizketa sakon bana egin genuen Karmele Huegunekin (2005-IV-14), Asier Larrinagarekin (2005-IV-28) eta Joselu Blancorekin (2005-V-12): hurrenez hurren, Mixer-Irúsoin etxeko Bikoizketa arduraduna, EITBko Euskara Saileko arduraduna eta EITBko Programazio eta Kanpo Produkzioko arduraduna.

Bikoizketaren hainbat alderdi jorratu genuen eta honela azaldu ziguten zertan den euskarazko bikoizketa gaur egun:

1) ETB1eko programazioaren apustua da, hasteko eta behin, telebista generalista eta publiko guztientzakoa izatea. Izan ere, hori da beste herrialde batzuetako joera ere, ETBko adituen esanetan. Horrek esan nahi du barne produkzioko fikzioa bultzatuko dela —*Goenkale*, *Martin* eta antzeko erreferenteak—: «Herriaren imajinarioa sortu eta indartzen dutelako» (J. Blanco). Kirola ere produktu nagusietakoa da ETBn: futbola, FORTArekin Ligako eskubideak lortu zituelako, eta pilota, «gure kirola» delako.

2) Gainera, haur programazioan lider izango den telebista katea izatea nahi dute, eta horretara bideratzen dira hainbat baliabide, hizkuntzari berari jarritako arreta barne: «E t o rkizunera begira oso publiko garrantzitsua delako» (J. Blanco). Haurrentzako saioretan marrazki bizidunak gailentzen dira (bikoizketa, alegia), baina lehenago ere esan dugu: marrazkiak ikusteko adina 14 urterekin amaitzen da, asko jota. Adin horretatik gorakoentzat, eta nerabe-gazteei begiratuta espresuki, ez da ez filmik ez telesailik programatzen euskarazko katean: «Publiko hori ez da batere fidela eta genero horiek guztiz desprestigiatuta daude gazteen artean» (A. Larrinaga, J. Blanco). Era horretan, nerabe eus-

kaldunek fikziorik ikusiko badute euskaraz, publiko guztientzako saioak ikusi behar dituzte, besterik ez baita ematen: *Goenkale*, astean lau aldiz; *Martin*, astean behin, eta *Zine Oro*, astean behin; hori da fikzio eskaintza guztia ETB1en.

3) Programazio etena gertatu gertatzen dela ez du ukatzen inork. EITBko arduradunak, gainera, erabat etsita daude horretan:

14 urtetik gora gazteek ikusi nahi dituzte helduentzako programak, *realityak*... Ez dute nahi haientzat bereziki jarritako ezer. [...] Hasteko, telebista gutxi ikusten dute, oso gutxi. Eta ikusten dutenean, bereziki fikzioa —barne produkziokoa— ikusten dute. [...] Adibidez *Martin* asko ikusten dute: aste askotan liderra da 12-24 urte bitartekoan artean (J. Blanco).

Programa bat, ikuslerik ez badauka, ez da errentagarria, eta ikuspegi horretatik, gazteek ez dakarkioten errentagarritasunik telebistari. Ikuspegi horretatik ez zaigu zail egiten ulertzea zergatik ez den euskarazko saiorik programatzen nerabeentzat.

4) A. Larrinagak «hipoteka kulturalak» deitu dituenen zama ere ikusten du Euskal Telebistaren eskaintzan:

Hitzetik hortzera eta era horretako beste hainbat programa eman egin behar dira, zeren osterantzean ETB1ek ematen ez baditu, ez dago.

Beste hipoteka bat da barne produkzioa ere bultzatu egin behar dela. «ETBk hemengo industria bultzatu behar du». Horrelakoetan, kostuaren eta audientziaren irizpideen aurretik dago kultura zabaltzeko lehentasuna.

5) Lehenago aipatu dugunez, ikasleek fikzioko pertsonaia bat ezagutzen dutenean, horrek sortzen du erreferentzialtasuna: lehenengo zein ahotsi lotuta ezagutu duten huraxe da «benetakoa» beraiantzat, pertsonaia horrek zein hizkuntzatan hitz egin duen bainoago. Adituek ere garrantzitsutzat daukate hori. Oso kontuan hartzekoa dela deritzote, are gehiago merkatuaren nondik norakoa ikusita:

Filmei dagokienez, Euskal Telebista da azken-azken leihoa: lehendabizi zinea, gero DVD edo bideoak, gero gaztele-

razko beste kateak —salbuespenen bat kenduta—, eta azkenik, askotan baita Euskal Telebistan ere, lehenengo gazteleraz, eta azkenik dator euskaraz. Orduan, zuk daukazun erreferentziak beste batzuk dira. Gazteleraz dauden erreferentziak ere ez du esan nahi jatorrizkoak direnik (K. Huegun).

Eta erreferentzialtasun horrek, esaterako, eragin nabarmena izan zuen *Harry Potter* filma eman zutenean 2005eko Urteberri egunean:

Harry Potter jende askok ikusita zeukan. Pelikula hori ikusi dute, familiako umeekin, etxeko guztiek eta zazpi bider. Zer gertatzen da hor? Hizkuntza batean ohitzen zarenean, gero arazoak sortzen dira sinesteko, benetan sinesteko beste hizkuntza batean. Guk arazo hori daukagu, baina katalanek diote arazo bera daukatela, nahiz eta hogeitau urte daramatzaten katalanezko filmak emititzen, eta nahiz eta Katalunian film gehiago estreinatzen diren zinema aretoetan, arazo hori ere hor daukate eta penalizatuta daude (J. Blanco).

6) Ondoan daukagun hizkuntzaren bitartez sortutako erreferentziek euskarazko imajinarioa eratze bidean jaten diguten espazioaz gain, bikoizketak baditu beste aje batzuk ere. Sinkronia da bikoizketari egozten zaizkion akatsetako bat. Oso nabarmena izan arren ez da bakarra. Ahotsak gehiegitxo errepikatzen dira: bikoizketan ez ezik, baita beste saioretan ere, batetik ahots erreparto murrizta daukagulako, eta bestetik ahotsen tipologia bera mugatua delako: ia tankera bereko ahotsak daude, bai emakumezkoetan, bai gizonezkoetan, eta haurrik ez dabil. Kasu ezagun bat aipatzearren, haur ahotsetan dagoen hutsuneak ondorio larriak ekarri zituen *Harry Potter* filmaren euskarazko bertsioan. Eta euskarazko bikoizketan ahotsak errepikatzeak eragin negatiboa du ikusleengan:

Ahots bariatatea murriztu egin da, beti entzuten ditugu ahots berak, pelikula guztietan, enpresa guztietan... eta horrek ez du laguntzen sinesgarritasuna sortzen... Baina hori ez da bikoizketaren akats bat; hori guk eragin dugu, ez badugu asko bikoizten, industria ere ez da asko hazten (J. Blanco).

7) Telebista ikustea ohitura eta heziketa kontua da, eta ikusleen alfabetatze mailari lotua dago. ETB1ek —telebista publikoa den heinean— euskarazko telebista kontsumitze-ko ohitura sortu behar du ikus-entzuleengan eta ikusleria hezteko lana bultzatu behar du. Gaur Euskal Herrian bizi diren gazte gehienek ez dute arazorik komunikabideetako euskara ulertzeko. Baina egia da 45 urtetik gora dituen jendeak euskarazko telebistatik ez zuela ezagutu haurtzaroan. Ez da zaila ulertzea 1982an, ETB sortu zenean, adin bat zeukan jendeak eta bizi guztian erdarazko hedabideak ezagutu eta kontsumitu zituenak eragozpen gehiago izatea euskarazko kateari lotzeko, are gehiago fikziozko saioretara (kirolen edo albistegien aurrean, esaterako). Besteak beste, erdaraz eskolatu zirelako denak, eta horietarik bakarren batzuk baino ez zirelako berandu batean alfabetatu euskaraz. Ikus-entzuleak, zein euskalkitakoa den, erreparoa izan dezake produktu bikoiztua onartzeko garaian:

Telebista ikusteko ohituren atzetik beste gauza batzuk ere badaude: hizkuntza batean alfabetatuta egotea edo ez egotea... ETB1 zergatik ikusten da Gipuzkoan gehiago Bizkaian baino? Azken batean, euskalkian ere alde handia dagoelako. Eta ezin da ukatu, gipuzkera euskara batetik hurbilago dago bizkaiera baino. Eta leku batzuetako bizkaiera, gainera, oraindino ere urrunago. Gauza horiek ere aintzat hartu behar dira (A. Larrinaga).

Gazteak euskarazko telebista kontsumitzera bultzatu nahi baditugu, ohitura hartzeko «amu» egokiak eskaini behar zaizkie. Beharbada oso ikusle exijenteak dira, agian ez da beti dirua irabaziko, baina, gure iritzian, telebista publikoak apustu hori egin behar du. Etorkizunera begira egindako apustu sendoa:

Euskaldunok eta orokorrean denok daukagu heziketa falta. Baina ikus-entzunezko hedabideek itzelezko garrantzia hartu dute gizartearen barruan eta inork ez digu erakutsi horiek kontsumitzen. Azken batean, kontsumo mota bat da, ezta? Bada inork ez digu erakutsi hori kontsumitzen. Nik uste dut pelikula bat ikusten ikasi egin behar dela, telesailak ikusten ikasi egin behar dela, albistegiak ikusten ikasi egin behar dela, zeren osterantzean... (A. Larrinaga).

8) Telebista on batek kalitateko bikoizketa behar du, kantitatean ere gora egin eta zinemarako bidea iritsi dezan. Zalantzarik ez dago horretan:

Gure gizartean euskara normaltzea gura badugu, nahi eta nahiezkoa da bikoizketak etorkizuna edukitzea eta, gainera, urrats handia egitea. Ez aurrera bakarrik kalitatean, aurrera kantitatean ere bai. Askoz ere gehiago bikoiztu behar dugu, nahi eta nahi ez, zeren egiten ez badugu jai daukagu. Zinemetara heldu behar dugu, telebistan askoz ere aukera zabalagoa behar dugu... ez daukat zalantzarik horretan, zeren osterantzean alferrik da (A. Larrinaga).

Sorreratik bertatik, ETBri aitortzen zaizkion funtzioetako bat da euskal kultura eta euskara sustatzea. Hainbeste alditan goratua izan den eginkizun hori, ordea, hizkuntzaren normalizazioarena, ezin da barne produkzioko saioen esku utzi bakarrik. Euskaraz eta gure herrian sortutako saioak garrantzitsuak dira, bai, baina produktu bikoiztuak ere behar ditugu. Euskara gaur-gaurko mundura gerturatzeko leiho ezinbestekoa da:

Euskara egoera guztietan agertzen da filmetan, baita marrazkietan ere: euskara egoera guzti-guztietan, baita oraindik inoiz euskaraz jorratu ez diren egoeretan ere. Berdin dokumentalei buruz [...] (K. Huegun).

9) Bikoizketa oso garrantzitsua da euskararen normalizazioan, baina agintarien bultzada eta herritarren borondatea, biak beharko ditu aurrera egiteko:

Ez da ez aitortzearren Eusko Jaurlaritzak bere aldetik egiten duen ahalegina, baina zer gutxiago euskaragatik, ezta? Euskararen normalizaziorako, zer gutxiago, ezta? (K. Huegun).

Nolanahi ere den, programazio eta hizkuntza politika guztiez gain, ikusleak behar ditu telebistak. Eta ikus-entzuleak erakartzeko borondate onena jarri eta ahalegin guztiak egin arren, ikusleen, batez ere euskal ikusleen inplikazio falta sumatzen da.

Bikoiztutako produktu askotan ez dago aitzakiarik. Dago ohitura falta, eta agian gai hori ez dela inoiz euskaraz eman. [...] Askotan oso-oso audientzia eskasa dute. Baina

zer dio herriak? Nik herriari ere gauza asko dauzkat aurpegira botatzeko. Herri honetan, euskararen normalizazio batera iritsi nahi badugu, hemen denok egin behar dugu ahalegin bat. Denok. Eta denok horretan... hezkuntzan egiten den bezala, geuretik hasita, geuk ahal dugun heinean geure erantzukizuna badaukagu (K. Huegun).

Inkestaren emaitzak

Ikerlan honetarako egindako inkestan *EAEko 122 ikaslek* parte hartu dute, DBH 3koak zehazki. Lau ikastetxe hautatu ditugu lan honetarako, eta guztira sei gelatako ikasleei pasatu genien inkesta.

Ikasleekin antolatutako bi eztabaida taldeetatik atera genuen lehendabiziko ondorioa izan zen maila bat eta bereko ikasleekin komeni zitzaigula inkesta antolatzea. Hala, *DBH 3. mailakoekin* lan egiteko hautua egin genuen. Horrela ziurtatu nahi genuen ordutegi beraren barruko saioak ikusteko aukera zutela ikasle guztiek.

Behin ikasketa maila aukeratuta, ikastetxeak aukeratu behar genituen. Geure erosotasunez Zarauzko Lizardi Institutua (ikastetxe publikoa) eta Donostiako Santo Tomas Lizeoa (ikastetxe pribatua) hautatu genituen lehenik, biak ala biak Gipuzkoan. Bina gelatan pasatu genuen inkesta.

Lagina aukeratzeko hasita, eta kuantitaboki mugatua zela onartuta, irizpide soziologikoa ere ia-ia bigarren mailara zetorkigun. Lehen lau geletan egin genuenean inkesta, alirizira hautatu genuen Elorrioko Institutura (Bizkaia) eta Gasteizko Koldo Mitxelena Institutura (Araba) jotzea.

Lehenago ere esan dugu: onartzen dugu hemendik ateratako datuak ez direla baliagarriak izango bere horretan. Gure inkestak izango duen zehaztasun zientifikoagatik baino gehiago gazteen *joerak erakusteko* balioko digu.

Hain zuzen, EHUko Uda Ikastaroetan uztailearen 7 eta 8an aurkeztutako ikerketa baten datuekin alderatzeko aukera izango dugu. Txema Ramirez de la Piscina irakasleak zuzendutako «Komunikabideak eta nerabeak Euskal Herrian» da ikerketa horren izenburua: 2003ko urrian abiatu eta 2005eko urrian amaitu zen. CIES etxeak lagundu zien

lan horretarako galdetgia prestatzen. Galderen edukietan, hedabide guztiak eta telebistagintzako genero guztiak hartu dituzte kontuan, eta oso lagin zabala hartu, gurearen aldean (1.882 inkesta, 35 ikastetxetan —publiko eta pribatu—, Iparralde eta Hegoaldekoak). Behin baino gehiagotan esan dugun bezala, gure ikerlanak, berriz, telebistaren alorrera mugatu nahi du, eta zehazki euskarazko bikoizketarenera; alde horretatik ere, beraz, askoz mugatuagoa da gurea. Nolanahi ere, interesgaria ikusi dugu EHUko ikerketa honen emandako datuen argitara txertatzea gure emaitzak.

A) Gure inkestan antzematen denez, telebista da egunerokotasunean gazteek gehien kontsumitzen duten hedabidea, Interneten, irratia, prentsa idatziaren, aldizkariaren eta liburuen aurretik. Inkestan parte hartu duten gazteen %61ek onartu zuten telebistara «kateatuta» daudela.

EHUko taldearen emaitzetan ere hala islatzen da: Hegoaldeko ikasleen %78k egunero edo ia egunero ikusten dute telebista (Iparraldeko %68k). Irratia kontsumitzen dute hurrena (%38 Hegoaldean eta %58 Iparraldean), eta alde handia rekingero prentsa (%18 eta %0,8, hurrenez hurren).

B) Telebistan zein saio dituzten gustukoak galdetuta, telesailen aldeko joera nabarmena da. EHUko ikerketak erakutsi duenez, telesailak eta filmak dira telebistan gehien ikusten dituzten saioak.

C) Zein telesail ikusten duten gehien galdetuta, honako emaitza eman zuen gure inkestak:

Telesail ikusienak (gure inkesta)	Kontsumo portzentajea
<i>Los Serrano</i>	26
<i>Aquí no hay quien viva</i>	18
<i>Vaya Semanita / Goenkale</i>	11
<i>Los Simpsons</i>	8
<i>CSI / Martin</i>	6

Emaitza hauek EHUko ikerketa taldeak Donostiako ikastaroetan plazaratu zituen emaitzen joeren barruan ditugu. Hegoaldeko ikasleen kontsumoari buruz, Txema Ramirez de la Piscina irakasleak honako datu hauek eman zituen ikastaroan:

Saiorik gustukoena (EHUko inkesta)	Kontsumo portzentajea
<i>Los Serrano</i>	58
<i>Aquí no hay quien viva</i>	34
<i>Vaya Semanita</i>	26
<i>Los Simpsons</i>	17
<i>CSI</i>	14

Ramirez de la Piscinak azaldu zuenez, telesail horien ondoren agertzen da *Goenkale*, saio ikusien artean. Gure inkestaren emaitzekin alderatuta agertzen diren gorabeherak azalpenik badutela uste dugu. Saiatuko gara, banan-banan aletzen.

- Hasteko, nabarmena da bi inkestetan lehen eta bigarren telesail gustukoena *Los Serrano*, *Aquí no hay quien viva* eta *Vaya Semanita* direla Hegoaldeko gazteentzat. Portzentajeetan aldea dago bi ikerketen artean, halere.

- Bigarrenik, gure inkestan *Goenkale* agertzen da *Vaya Semanitare*n pare: gure inkestatuen %11k jotzen dute telesail gustukoena artean. Horren zergatia bilatzen ez da zaila: Gipuzkoako lau ikasgela hartu ditugu inkesta egiteko, eta batez ere ikasle horiek erakutsi dute *Goenkale* ikusteko zaletasuna.

- Ondoren datoz *Los Simpsons* eta *CSI* saioak, nola gure inkestan hala EHUko ikerketan.

- Gure inkestan, hurrengo nabarmentzen den tele-saioa *Martin* da. Horrek ere *Goenkalerako* eman dugun azalpen bera dauka.

- Oro har, bai gure ikerketan eta bai EHUko irakasle taldeek egindakoaren emaitzetan ikusten den bezala, nerabeek gogokoago dituzte barne produkzioko telesailak, hau da, gaztelaniaz edo euskaraz sortutakoak. Beste modu batera esanda, bikoiztutako saioak ez dira ikusienak.

- Edozein moduz, nahiago dituzte gaztelaniazkoak euskarazkoak baino. Gure inkestan, bost saiotik euskarazko bakarra aipatzen dute gazteek gustukoena artean, eta hamaretik bi. EHUko ikerketan, berriz, bost saiotik euskarazko bat ere ez dute gogokoena ematen; badakigu *Goenkale* seigarren ageri dela, baina ez daukagu daturik esateko hamarren barruan beste euskarazko programarik ikusten duten.

	Gure inkesta	EHUko inkesta
1	<i>Los Serrano</i>	<i>Los Serrano</i>
2	<i>Aquí no hay...</i>	<i>Aquí no hay...</i>
3	<i>Vaya Semanita</i>	<i>Vaya Semanita</i>
4	<i>Goenkale</i>	<i>Los Simpsons</i>
5	<i>Los Simpsons</i>	<i>CSI</i>
6	<i>CSI</i>	<i>Goenkale</i>
7	<i>Martin</i>	
8	<i>Siete vidas</i>	
9	<i>Hospital central</i>	
10	<i>Mis adorables vecinos</i>	

D) Telebistagintzari buruz duten iritziaz galdetuta, honako emaitza hauek aurkitu ditugu gure inkestan:

- Oro har, nahiko iritzi ona dute gazteek telebistaz: informazioak ondo ematen ditu eta denbora-pasarako funtzioa betetzen du. Ikasle inkestatuen %73ren iritziz, telebista da ondoen informatzen duen hedabidea (Internet, irrati nahiz prentsaren aurretik). Era berean, %79k onartu dute telebista ezer bada denbora-pasa dela.

- Aurrerago esan dugu lau ikasletik hiruk baino gehiagok ikusten dutela telebista egunero edo ia egunero (%78). Gure inkesta bete duten gazteek diotenez, %61ek onartzen dute telebistak «kateatuta» dauzkala.

- Gaur-gaurko programazio eskaintzaren barruan, gazteek ez dute inolako saiorik baztertzen hizkuntzagatik. Gaztelaniazko zein euskarazko telebista izan, ez dute arazorik edozein saio jarraitzeko. Hala adierazi dute gure lagineko ikasleen %83k.

- Garbi dago, eskaintzaren barruan, beren gustuko saioak aukeratzen dituztela. Onartzen dute euren intereseko edukiak eskaintzen dituela telebistak (%76k). Gogora dezagun lehen esandakoa: telesailak eta filmak dira gehien interesatzen zaizkien saioak. Eta genero horietan gogokoenak gaztelaniazko telebistetan aurkitzen dituzte, gehienbat.

- ETB1ek eskaintzen dituen Euskal Herrian ekoiztita-ko telesailei buruz diote (*Goenkale*, *Martin*, *Bi eta Bat*, *Hasi-berriak...*) egoki ikusten dituztela beren adinerako: %72k.

E) Bestelako iritzia dute bikoiztutako produktuei buruz. Sinesgarri irizten dieten galdetuta, fikzioaren atalean

oso aldeko iritzi gutxi aurkitu dugu: marrazki bizidunak, %39; filmak, %47. Sinesgarriagotzat dauzkate dokumentalak: %66. Ez dira oso datu itxaropentsuak bikoizketaren alde. Generoen arteko gorabehera hauei azalpena produktu horietan erabiltzen den erregistro motari dagokiola uste dugu. Alde batetik, fikziozko generoak (marrazki bizidunak eta filmak) oso gertu daude ahozko hizkera kolo-kialetik; dokumentalena, berriz, hizkera jasoagoa da, berez, nola jatorrizko hizkuntza hala bikoiztutako bertsioan. Eta hizkera «jasoago» hori da gazteek eskolan erabiltzen dutena. Okertzeko beldurrik gabe esan genezake, gazteei sinesgarriagoa egiten zaiela dokumentalen hizkera, ikasketetan darabilten euskara eredutik gertuago dutelako. Ezin esan gauza bera fikziozko hizkerari buruz: aisialdian erabili beharreko euskara kolokialaren eredurik ez dute, eta gehienbat gaztelaniaz mintzo dira eskolako gaiet lotutakoez beste esparru ia guztietan.

- Gazteek nola hautematen duten bikoizketa ere jakin nahi izan dugu, eta aurreko puntuko datuak baieztatzen dituzten emaitzak lortu ditugu. Gaztelaniazko filmen hizkera gertukotzat daukate gazteen %73k. Aldiz, euskarazko filmen hizkera %48ri baino ez zaie gertukoa egiten. Eta, hizkerari dagokionez, berriz ere dokumentalei hobeto irizten diete gazteek: %70ek diote hizkera egokia erabiltzen dela euskarazko dokumentaletan. Beraz, ausartuko gara esatera, gazteen iritzi, dokumentalen generoa ondo samar lantzen dela euskaraz. Baina filmek ez dute estimazio bera.

Gu re inkestaren galdetegian ez zegoen bikoizketari buruzko beste galderarik. Inkestan bildutako datuek, nolabait, eztabaida taldeetan adierazitako iritziak baieztatu zituzten: euskarara bikoiztutako film eta telesailen estimazio urria.

Nolanahi ere, bikoiztutako produktuei buruz ikasleek hautemandakoarekin, azterketa zehatzagoa beharrezkoa dela esatera ausartuko ginateke. Galdera oso orokorrak eginda, hartzaileei —DBH 3. mailako ikasleei— eskatu dieguna hautemate hutsa besterik ez da; horretara mugatu gara lan honetan. Baina bistan da gaiak lan sakonagoa eskatzen duela, galderak zehatz eta modu kuantifikagarrian

eginda. Horrek, besteak beste, metodologian urrats garrantzizua egitera behartuko gaitu, beste unibertsitate batzuetan egiten diharduten ikerketen ildotik.

Ikerlanaren ondorioak

Ikerlan hau abiatzeko unean hartu genuen asmo nagusia hauxe izan zen: gure lanbide esperientziatik euskarazko bikoizketaren inguruan jaso ditugun hainbat pertzeptzioren nondik norakoak aztertu, eta gazte euskaldunek euskarara bikoiztutako saioen aurrean zer jarrera duten ikusi.

Diagnosi hau egiteko, hasiera-hasieratik mugatu dugu ikerketa Euskal Telebistako produkziara, jakinda ETB1ek bikoiztutakoa ez dela produkzio osoa (esate baterako, zinemarako eta enpresa-komunikazio lanetarako ere bikoiztu baitira lanak). Nahita baztertu ditugu gure lanetik, halaber, beste ikus-entzunezko itzulpen mota batzuk, hala nola azpidazketa, ahotsaren gainjartzea eta abar. Eta ikerlana ondo hesitze aldera, ETB1erako bikoizten diren produktu guztietatik, arreta jarri dugu honako genero hauetan: film luzeak, telesailak eta dokumentalak, kanpo produkzioa esaten dena. Publizitatearen bikoizketa, besteak beste, ez da aztertu lan honetan.

Hona labur-labur esanda ikerlan honetan iritsitako ondorioak:

- 1) Euskal nerabeek ikusi ikusten dute telebista.
- 2) Gustuko dituzten saioak hautatzen dituzte. ETB1en aukera gutxi aurkitzen dute; *de facto*, gaztelaniazko kateetara jotzen dute.
- 3) Nahiago dituzte barne produkzioko saioak (nola euskaraz, hala gaztelaniaz).
- 4) Bikoizketaren inguruan, iritzi garbia baino gehiago «entzundakoa» dute nerabeek: «Galera izan behar da», «Porque se supone».
- 5) Euskarazko bikoizketaren ajea ez da hizkuntza, ahotsak gehiegi errepikatzea baizik:
 - a. Erreparto murrizta dago, batetik, eta oso tipologia mugatukoa, bestetik.

b. Erreferentzialtasuna: lehenengo hizkuntzan ezagututako ahotsak; horiek utzitako oroimen ona geratzen da, horien «benetakotasuna».

6) Beharrezkoa da gazteentzako filmak eta telesailak programatzea: aukera gaztelaniazkoa bakarrik izan ez dadin.

7) Euskarazko bikoizketaren ikerketa abiatzeko garaia da: EITB, bikoizketa etxeek eta unibertsitateek elkar hartuta, ikerketa sakonagoetarako abiapuntuak ezartzea komeni da.

8) Programazio orekatua behar da Euskal Telebistan, haurtzarotik helduarorako katea eten ez dadin: gazteek euskarazko telebistan sumatzen duten hutsunea bete behar da, eta zinemarainoko bidea erakutsi behar du.

9) Ikusleak telebistaren aurrean bilatzen duen «gratifikazio» faktoreaz hornitu behar dira produktu bikoiztuak: euskaratutako filmei gainbalioa ezarri behar zaie, eta «amuak» jarri ikusleak eta bereziki nerabeak eta gazteak erakartzeko.

10) Bikoizketaren sektoreak garrantzi estrategikoa du euskararen normalizazioan. Eremu urriko hizkuntzetan, egun behar-beharrezkoa da telebistaren 'bozgorailua' baliatzea hizkuntzaren egonkortze eta normalizazioan:

En la televisión vasca, el doblaje y la subtitulación son también instrumentos de normalización y euskaldunización. [...] En esta autonomía [EAEn], la televisión ha asumido el papel de impulsora y de difusora de una lengua casi extinguida (Agost, 1999: 55-56).

El que sí que té el doblatge en català és el factor afegit de ser un vehicle al servei de la normalització lingüística, cosa que implica la presència d'uns mecanismes de control lingüístic en el procés de producció (Sellent, 2001: 121).

Edozein hizkuntzaren bizitzan telebista erreminta garrantzitsua bada, areagotu egiten da pisu hori euskara bezalako hizkuntza minorizatu baten kasuan. [...] Hizkuntza minorizatu bateko herri batean, bidezko iruditzen zaigu hizkuntza normalizazioaren funtzioan legitimatzea telebista (Torrealdai, 1985: 193-194).¶

Bibliografia

- Agost, Rosa (1999): *Traducción y doblaje: palabras, voces e imágenes*. Bartzelona: Ariel Practicum.
- Agost, Rosa eta Chaume, Frederic (2001): *La traducción en los medios audiovisuales*. Castelló: Universitat Jaume I.
- Andoingo Udala (2004): *Ramon Labaien. Euskal Telebista, hutsean sortua*. Andoain: Andoingo Udala.
- Arana, Edorta (1998): *Telebista pribatuaren eragina programazioaren bilakaeran. Zer 5*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 317-336 or.
- Arana, Edorta (2004): *Programaziogintza irрати-telebistan*. Bilbo: Uda-ko Euskal Unibertsitatea.
- Aranguren, Txiliku (1997): *Telebista eta bikoizketa. Jakin 99*. Donostia: Jakin, 65-70 or.
- Basterretxea, Jose Inazio (2002): *Kultura-aniztasuna eta Gizarte-ko -munikazioa*. Bilbo: Uda-ko Euskal Unibertsitatea.
- Callejo, J. (2001): *Investigar las audiencias. Un análisis cualitativo*. Bartzelona: Paidós, Papeles de Comunicación.
- Chaume, Frederic (2004): *Cine y traducción*. Madril: Cátedra, Signo e Imagen.
- Díez, Rosa (2003): *ETB. El inicio de una nueva era*. Bilbo: Euskal Irrati Telebista.
- Eguíluz, F. et al. (arg.) (1994): *Trasvases culturales: literatura, cine, traducción. 1*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Eguíluz, F. et al. (arg.) (2005): *Trasvases culturales: literatura, cine, traducción. 4*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Eguzkitza, Jesus (1997): *Telebista eta bikoizketa. Jakin 99*. Donostia: Jakin, 71-77 or.
- Etxebarria, I. (1994): *Doblaje y subtitulación en Euskal Telebista*. In Eguíluz et al. (arg.) (1994), 191-197 or.
- Garmendia, Maialen (1998): *¿Por qué ven televisión las mujeres?* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Ibáñez, J.L. (1993): *Orígenes y desarrollo de Euskal Telebista (1982-1992): Una aproximación a la historia de la Televisión Vasca*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea. (Doktorego tesia).
- Irazu, A. (2001): *Telelilura 1990-2000. Euskal fikzioa ETBn*. Madril: SGAE.
- Jensen, K.B. eta Jankowski, N.W. (arg.) (1993): *Metodologías cualitativas de investigación en comunicación de masas*. Bartzelona: Bosch.
- Jones, George (1999): *Minority Languages and Cultures in the Face of Globalisation*. In *Media in Multicultural Contexts* (www.aber.ac.uk/mercator/Papers/Klag.htm).
- Juaristi, Patxi (2003): *Gizarte ikerketarako teknikak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Mendiguren, Xabier (1995): *Euskal itzulpenaren historia laburra*. Donostia: Elkar.

- Mendiguren, Xabier (1993): Incidencia de la traducción en la normalización lingüística del euskara. *Livius, Revista de la Traducción* 4. Leon: Universidad de León, 107-115 or.
- Roberts, D.F. eta Foehr, U.G. (2004): *Kids & Media in America*, Cambridge: Cambridge University Press.
- NOR Ikerketa Taldea (2000): *Hedabideak eta Euskal Herria*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Sellent, Joan (2001): Qualitat y recepció en la traducció per al doblatge. In Agost eta Chaume (2001), 119-122 or.
- Televisió de Catalunya (1997): *Criteris lingüístics sobre traducció i doblatge*. Bartzelona: Edicions 62.
- Torrealdai, Joan Mari (1985): *Euskal Telebista eta euskara*. Donostia: Elkar.
- Zabalondo, Beatriz (2005): Bikoizketa euskaraz. In Eguíluz et al. (arg.) (2005), 297-305 or.
- Zuberogoitia, Aitor (2003): *Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea. Kazetaritza Saila. (Doktorego tesia).
- Zubizarreta, Iñaki (1984): Euskal itzulpena komunikabideetan. *Senez* 1, 1. urtea. Donostia: Itzultzaile Eskola-UZEI-Elhuyar, 63-67 or.
- Zubizarreta, Iñaki (1992): Euskara ikasten. *Senez* 1, 8. urtea. Donostia: Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte, 161-164 or.
- Zubizarreta, Iñaki (1997): Telebista eta bikoizketa. *Jakin* 99. Donostia: Jakin, 78-84 or.

Abegi kosmopolita, Europa eta globalizazioa

Jacques Derrida in memoriam



IGNAZIO AIESTARAN



Sarrera

Jacques Derrida (El-Bihar, Aljeria, 1930eko uztailaren 15a - Paris, Frantzia, 2004ko urriaren 9a) globalizazioaren garaiko ikur bihurtu da. Berak aurreikusi zuen hizkuntzak lortu ahal duen indarra informazio eta komunikazio gizar-tean. Berak ere aurreikusi zuen pentsamendu tradizionalaren bukaera hizkuntza kolonizatzaile gisa —logozentrista esango luke—, inbasio kultural eta botere tekno-ontologiko bilakaturiko hizkuntza, hain zuzen. Giza zientzia batzuen erretorikaren gehiegikeria kritikatzeko hasi ondoren, azken urteotan *déconstruction* edo deseraikitzearen mugimendutik adiskidetasunaren eta abegiaren politika eraberritzen hasi zen, eta Jürgen Habermasekin batera manifestu sendoa sinatu zuen Irakeko gerraren aurka eta Europarako izaera politiko berriaren alde.

Logozentrismoari eta fundamentalismo sasi-razionalistari egin zien kritikak, „halaber, bultzatu zuen abegi hori abian jartzera, *International Parliament of Writers* erakundearen sortzaile izanik, Adonis, Breyten Breytenbach, Édouard

► **Ignazio Aiestaran** idazlea eta Filosofian doktorea da.

Glissant, Salman Rushdie, Christian Salmon eta Pierre Bourdieu idazle eta pentsalariekin batera. Parlamentu berezi horretatik hainbat nazio eta kulturatako idazle erbesteratuei babesa eman zieten, Salman Rushdierengandik Wole Soyinkarengana.

Gure artean ere egon zen. 1981eko udan, Parisko *École Normale Supérieure* irakasle, Derrida Euskal Herriko Unibertsitatera etorri zen filosofia-ikasbide batzuk ematera. Karrikaratuak dira *La filosofía como institución* liburuan (Bartzelona, Granica, 1984).

Hori guztia dela eta, egia da Derrida zendu dela, baina etorkizunerako bere ondare abegitsua utzi digu, berak amets gisa baieztatu zuen hil osteko adierazpena: «demokrazia promes bat da», edonoiz betetzeko promesa, edonoiz eta edonon, orain eta hemen.

1968ko maiatzetik 2001eko irailaren 11ra

La pensée 68 (Paris, Gallimard, 1986) liburuan Luc Ferry eta Alain Renaut-ek gogor kritikatu zuten postmodernismoaren pentsaera, 68ko maiatzaren pentsaera zela baieztatuz. Ferry eta Renauten ustez Pierre Bourdieu «Marx frantsesa» zen, Lacan «Freud frantsesa», Foucault «Nietzsche frantsesa» eta Derrida «Heidegger frantsesa». Eta, oro har, egile horien arabera, Foucault, Lacan eta Derrida Heideggerren jarraitzaileak bertzerik ez ziren hurrengo batuketa soziofilosofikoetan:

Foucault = Nietzsche + Heidegger

Lacan = Freud + Heidegger

Derrida = Heidegger + Heidegger

Horrela, 68ko maiatzaren egituratzearen filosofia edo postestrukturalismoa kritikatu zituzten Ferry eta Renautek. Baina gauzak ez dira hain errazak, 68ko eztabaidetan egiaztatu zen eran. Lucien Goldmann-ek 68ko maiatzaren lelo bat komentatzen zuen Sorbonako arbela batean: «Egiturak ez dira karrikara joaten». Beranduxeago 1969ko mintegi batean Jacques Lacanek erantzuna eman zion:

«Maiatzaren gertakizunek zerbait erakusten baldin badute, horixe da egiturak karrikara joaten direla hain zuzen».

Gaurko globalizazioan egiturak ez dira karrikara atera: karrikak, hiriak, kontinenteak, planeta osoa irentsi dute egitura teknoekonomikoez eta militarrek. Marshall McLuhan-en herri globala ere heldu zaigu, baina orain dakusagu, McLuhanek baino garbiago, herri globalaren maizterra Marcuseren gizaki dimentsiobakarra dela eta gizaki horren ideiak pentsamolde bakarrarena direla (horretarako, ikus I. Aiestaran: «General Intellect & CIA: globalizazioa edo inperialismoa?», *Jakin* 122, 2001, 31-53. or.). Hortaz egia izaten jarraitzen du Joseba Sarrionandiak errandakoak:

Itzelezko aldaketa teknologikoak ari dira gertatzen, eta ziberespazioaren teorikoak modernizazio, progreso eta askatasun unibertsalaz mintzo dira.

Baina ez da egia aurrerapen teknologikoa denontzat denik. Arrazoi ekonomiko eta ekologikoengatik, modernizazioa minoria batentzat baizik ez da. Munduaren desoreka errejional eta soziala izugarria da eta ez da kultura teknologikoaren distribuzio igualitariorik izanen.

Globaltasunean, ez da egia denak on-line egongo garerik (J. Sarrionandia, *Hitzen ondoeza*, Tafalla, Txalaparta, 1997, «Teknologia» sarrera).

Azken urteotan Derridaren pentsamendua 68ko m a i atzetik 2001eko irailaren 11ra igaro da, postestrukturalismotik globalizazioaren ondorioetara, Aljeriako sorterritik Europako demokraziaren ametseraino.

Globalizazioa hausnartzeko leku on bat: Aljeria

Jacques Derrida hizkuntzaren pentsalaria izan da globalizazioaren eta Interneten garaian. Bere jarrera filosofiko eta politikoa uler dezagun, bere biografia ikusi behar dugu. No rmalean frantsesa dela baieztatzen da, baina, arlo guztietan bezala, Derrida frantses berezia zen, batik bat idazterakoan, hitz egiterakoan. Adibidez, bi esaldi kontraesanko-

rretan adierazi du Derridak bere historia *Bestearen eleba - kartasuna* liburu autobiografikoan (*Monolinguisme de l'autre ou la prothèse d'origine*, Paris, Galilée, 1996):

1. Hizkuntza bakar batean baino ez da hitz egiten, edota mintzaira bakar batean baino.
2. Ez da inoiz hitz egiten hizkuntza bakar batean, edota ez dago mintzaira hutsik/garbirik.

Hasteko Derridak azaltzen du ez zela frankofono hutsa, franko-magrebtarra baizik. Filosofoaren erranetan, frankofonoen artean hurrengoak dira:

1. Magrebtarrak ez diren frankofonoak, hitz batean, Frantziako hiritar frantsesak.
2. Frantsesak eta magrebtarrak ez diren frantsesak: suitzarrak, kanadarrak, belgikarrak, afrikarrak.
3. Frantsesak izan eta izango ez diren frankofono magrebtarrak: marokoarrak eta tunisiarrak, kasu.

Hala ere, Derridak ez zuen bere burua ikusi hiru multzo horien artean. Jaiotzez magrebtarra eta frantsesa zen aldi berean bere ustez. II. Mundu Gerran, Okupazioan, Aljeriako judu gisa, 1940ko urritik aurrera, herritartasuna edo naziotasuna kendu zioten, eskolan nabaritu zuenez. Derridak azpimarratu du erabaki horretan arduradunak ez zirela alemanak, frantsesak baizik. Ez ziren kanpoko okupatzaileak, barrukoak baizik. Jaiotzez frantsesa izanik ere, Frantziako herritartasuna gabe geratu zen. Derrigorrez hizkuntz solipsismoa topatu zuen gerra garaian. Alde batetik ez zen gai Aljeriako hizkuntza ez-frantsesa (arabiera dialektala, berberea) mintzatzeko, eta bertzetik eskolan Frantziako hizkuntzatik kanpo geratu zen Okupazioan.

Zein zen, orduan, bere ama-hizkuntza testuinguru hartan? Ematen du garai hartan Derridaren haurtzaroa adierazirik gabeko adierazlea zela. Aljeriako politika kolonialistan ez elebakartasuna zen legea, besteak inposatutako elebakartasun-legea. Ezabatutako hizkuntza (arabiera, berberea) hizkuntzarik arrotzena bihurtu zen, batik bat, Derida haurra bezalako «judu indigena» batentzat. Frantsesa zen bere ama-hizkuntza, inposatutako hizkuntza, bere

iturria, erregelak, arauak eta legeak bertze leku batean baitzeuden, metropolian baitzeuden, Hiri-Buru-Ama-Aberrian hain zuzen. Hiri-Buru-Ama-Aberria metropolia zen, kanpoko, ama-hizkuntzaren hiria, hiritartasun eta herritartasuna.

Paradoxa da Paris literaturaren hiri(buru)a izanik ere ama-hizkuntzaren metropolia urrun zegoela, oso urrun, itsasoz haraindikoa. Derrida haur a ren begietatik, ordea, Parisi itsasoa falta zaio, Aljeriako itsasoa, Afrikako kontinentea, bestelako hizkuntza. Hemeretzi urte zituela, *Ville d'Alger* itsasontziz, lehenengo aldiz metropolira heldu zen. Orduan buruz ikasitako metropolia, geografia-ikasbi-deetan memorizatua, bere begien aurrean agertu zitzaion. Horrela, Frantziako idazkera eta literatura hartu zituen, baina Aljeriako intonazioa eta doinua galtzeke, doinua gorputzean eramaten baita, inoiz ez idazkeran.

Horrela, ikasbide filosofikoa ulertu zuen Derridak: ez dago hizkuntza hutsik, hizkuntza garbirik. *Pied noir* gisa, dekonstrukzioa edo deseraikuntza garbitasunaren axiomaren eta jatorriaren sinpletasunetik kanpo kokatzen zen. Hori zen bere «Aljeriako independentzia», bere hitz zehatzak aipatzearren.

«Pied noir», gazte judu afrikarraren elebakartasuna neurotikoa zen: frantsesa zen bere hizkuntza bakarra, jatorrizkoa, jatorriz emana eta kendua batera, arazoimen eta eromenaren artean. Hizkuntza aztarna bertzerik ez zen, mamua, haustura eskizofrenikoa, batasunik gabeko bakartasuna. Horrela ulertzen da hizkuntza bakar batean baino ez dela hitz egiten, eta ez dela inoiz hitz egiten hizkuntza bakar batean.

Derridak horrela ikasi z(it)uen bere hizkuntza(k), ikasi zuen bere hizkuntza(k) eraikitzen eta deseraikitzen, galdutako oroimen eta denboratik harago.

Derridak ez zuen Aljeria ahaztu sekula santan. Hamarkada batzuk igarota, «Algérie, La guerre des Frères» artikuluan (*Temps Modernes* 580, 1995), Aljeriaren alde jokatzen zuen, lau aldiz, lau puntutan, politikoki neutroa ez zelako. Orduan programa politiko bat idatzi zuen Aljeriaren alde eta biolentzia eta gerra zikinaren aurka:

1. *Nazioarteko elkartasun berriaren alde*, erantzunak eta soluzioak aljeriarren eskuetan izanik ere, konponbide politikoak ez baitaude Nazio-Estatuaren hiritarren eskuetan. Gerra Zibila saihesteko, kanpo-zorra, langabezia, miseria, hondamen-pobretzea konpondu behar dira nazioarteko finantza-erakundeei dei eginez.

2. *Hauteskunde-itun berriaren alde*, hurrengo urratsak dirada bide: a) hauteskunde-konpromisoz beteriko egutegi bat; b) argudioz beteriko eztabaida publikoa, prentsa askea dela medio; c) hauteskunde-emaizta errespetatzea eta prozesu demokratikoan txandaketa onartzea. Bozez gain, bizitza demokratikoa, zuzenbidezko estatua, adierazpen-askatasunaren onarpena, gutxiengoaren eskubidea, txandaketa ona, hizkuntzen aniztasunarena, ohitura eta sinesmenena ere kokatzen ditu Derridak prozesu demokratiko horren sustraian.

3. *Teologikoa eta politikoa banantzearen alde*, demokraziak Estatua eta botere erlijiosoa bereizten dituelako. Horretarako laikotasun erradikala behar da, baita fedearen erabilera ere. Eztabaidatzeko eta interpretatzeko askatasuna proposatu zuen erlijio bakoitzaren barruan, Islamen exegesi-irakurketa politiko ezberdinak ager daitezen, arrazakeriaz beteriko anti-islamismotik itzurtzeko asmoz eta anti-islamismo honetatik sorturiko biolentzia islamiarra galarazi nahian.

4. *Hirugarren Estatu berriaren alde*, muturretan ez dauden aljeriarrak aldarrikatuz. Horretarako biziaren lekuen alde, bizilekuen alde, heriotza-zigorra, heriotza-mehatxua, tortura eta erailketa kondenatu behar dira Aljeriako gizartean, ezetza eman behar zaie. Azken buruan, gerra zibila giza gerra da eta batez ere gizon-gerra, gizonezko gerra, emakumeen aurka, eta hemen Hirugarren Estatuan Aljeriako emakumeek askeak izan behar dute etxeetan eta karrketan, eskolan eta unibertsitatean, lantokietan eta erakunde guztietan.

Lau urrats horietan Derridak deskribatu digu programa altermundialista bat, Afrika eta Europa elkartuz, bizitza eta biziaren alde, emakume eta gizonen alde.

Idazleen Nazioarteko Parlamentua

Aljerian aldeko manifestu horren garaian, 1993an hain zuzen, *Parlement des Écrivains* sortu zuen Derridak Wole Soyinka, Édouard Glissant, Salman Rushdie, Christian Salmon eta Pierre Bourdieurekin. Sorrera-gutunean Rushdiek zera idatzi zuen:

Idazleak herri ezberdinetako hiritarrak dira: [...] mugarik gabeko irudimenaren erresumakoak, erdi galdutako oroi-menaren eskualdekoak, bihotzaren federazioetakoak, kartsu eta jelatuetakoak batera, espirituaren estatu batuetakoak, desioaren nazio zerutar eta infernutarretakoak, eta apika jabetzako lurrik nagusietakoak: hizkuntzaren errepublika askekoak.

Hizkuntzaren errepublika askea globalizatzeko bertze era bat da, era altermundialista, era (des)eraikitzailea. Hori dela kausa, munduko jazarritako idazleak babesteko jaio zen Idazleen Nazioarteko Parlamentua.

Estrasburgen, 1996ko martxoaren 21ean, Idazleen Nazioarteko Parlamentuan, «Cosmopolites de tous les pays, encore un effort!» izeneko hitzaldia eman zuen Derridak, globalizazioaren eta mundializazioaren garaian kosmopolitika berria asmatzearren. Kosmopolitika hori Nazio-Estatuaren subiranotasun eta nazioarteko egituretatik harantz doa. Lehenik kosmopolita izateko galdetu behar da zer den *polisa* globalizazioaren garaian, zer den hiria. Gaur hiritartasun berria(k) d(it)ugu mundu globalean: hirira ailegatzen diren atzeritarrak, etorkinak, erbesteratuak, deserriratuak, deportatuak, herrigabeak, aberrigabeak, ego-kitzen ez direnak, bertzeak bertze. Jazarritako idazleak ere hiritartasun berri horretan sailkatzen dira.

Hiritartasunaren sailkapen berri horiek *polisa* eta politika, hiria eta hiritartasuna aldatzen dituzte kosmos global batean. Horrexegatik Idazleen Nazioarteko Parlamentutik Derridak proposatu zuen hiri batzuk babesleku bihurtzea, babes-hiriak (*villes-refuges*) izendatzea, Emmanuel Lévinas eta Daniel Payoti jarraituz. Hiri horietako xedea asilo-eskubidea da, inperio eta Nazio-Estatuetatik

haraindian. Babes-hirien sare bat ezarriz Estatuaren subiranotasuna ez da azken hitza izanen hiritartasun berriaren kosmopolitikan. Erran dezakegu horrela bertzelako mundu bat posible dela, bertzelako hiri bat, bertzelako subiranotasun bat.

Derridak sumatu zuen babes-hiria ohizko subiranotasunaren aurkako ideia zela. Babes-hirien aldeko apustua egin zuen hasiera-hasieratik, batik bat, bertzelako Europa bat (des)eraikitzearen. Babes-hiriak hiri franko eta irekiak dira, abegi onaren hiriak. Arestian aipatutako hitzaldian Hannah Arendt ekartzen digu gogora Derridak, Nazio-Estatuaren gainbehera, giza eskubideak, gutxiengo nazioak eta Estaturik gabeko herriak azpimarratu zituen Arendten filosofia. 1950eko hamarkadan Arendtek ohartarazi zuen asilo-eskubidea arrisku larrian zegoela, *Heimatlosen* pertsonak, herrigabeak, deserriratuak ikusiz. Horrexegatik hartu zuen Arendtek Erdi Aroko eskubidea ikur gisa: *quid est in territorio est de territorio*, horrek izan behar zuen nazioarteko eskubidearen idatzi gabeko legea hiritartasun herrigabe bat lantzeko, landatzeko. Errefuxiatuen mugimenduak mundu-gereen Europan eta mundu kolonialistan bi aukera zeuzkan garai hartan: aberriratu ala nazionalizatu, bertzerik ez. Derridaren galdera da nola asma dezakegun asilo-eskubidea aberriratzeko eta nazionalizatzeko.

Beraz, babes-hiria ez da bertze hiri bat, eskubidea eta politika egiteko bertze modu bat baizik. Babes-hiriek asiloa eta abegia eskaini behar dituzte. Herrigabeek ez dute (jaiotze) herririk, baina bai hiria eta hiritartasuna. Herrigabeek sorteria eta jaioterria galdu dituzte baina ez hiritartasuna babes-hirietan. Nazio-Estatuaren subiranotasunaren helmuga interes demografiko-ekonomikoa denez, herrigabea Nazio-Estatuaren hiritartasunetik kanpo uzten da. Interes horrek asilo-eskubidea murrizten du edonon, edonoiz. Abantaila ekonomikorik aurkezten ez duen etorkinak ez du asilorik lortzen. Europako Nazio-Estatuek horrela ulertzen dute, batez ere Schengen espaziotik. Baina Derridaren ustez, Europaren politika, Europaren éthos-etika, Europaren abegia neurri politiko-polizial horietatik atera behar dira, segurtasun, demografia eta merkatuaren

aurreiritzien gainera. Hori gertatzen ez denean, polizia sartzen da Estatuaren mekanismo politikoetan.

Hori ziurtatzeko Derridak Frantzian kurdu bati gertatutakoa aipatu zuen: Frantziako auzitegi batek asiloa eman zion kurdu horri, baina polizia frantsesak Turkiara kanporatu zuen inork protestarik egiteke. Walter Benjaminek fenomeno hori sumatu zuen: poliziak abegia, aurpegia galtzen du arduradunik ezean. Benjamini jarraituz Hannah Arendtek gauza bera susmatu zuen: Gobernuaren legeak zer egin jakiten ez baldin badu, Nazio-Estatuaren polizia bidaltzen du arazoa konpontzera. Orduan polizia da pertsonak zuzenean gobernatzen dituenak. Kasu honetan polizia ez da legea betetzeko tresna, Gobernu eta Ministeriotik at agintari menperatzailea baizik. Arendten idazlanetan, hori Mendebaldeko Europar gertatu zen lehenengo aldiz etorkinekin eta herrigabeekin. Ildo horretatik, poliziaren betebeharra terrorismoaren, mafien eta narkotrafikoaren aurka jotzea da, Derridaren aburuz, baina Nazio-Estatuko edo Nazioarteko botere/indar polizialak atzeritarren asilo-politikan sartzen diren heinean, kontrol politikotik kanpo kokatzen dira.

Abegi bretoaia eta euskaldunak

Horixe da «Toubon legearen proiektuan» agitua, non legetik kanpora edo egoera irregularrean dauden atzeritarrei edo paperik gabeko atzeritarrei abegi edo harrera ematea «terrorismo-delitu» edo «gaizkile-elkartze» bihurtzen baita. Toubon legearen proiektuari buruzko aipamen hori «Cosmopolites de tous les pays, encore un effort!» hitzaldian idatzita utzi zuen, eta bertze leku batean, solasean, Toubon lege-proiektuaren kasuaren aipu egin zuen berriro, globalizazio paleo-neo-liberalean abegia delitu bihurtu dela nabarmenduz.

«Abegi-delitua» aipamena Jacques Toubonengandik hartu zuen Derridak kasu bat miatuz. Bere erranetan,

familia bretoi batek egoera ilegalean lagun euskaldunak hartu zituen etxean laguntasunez. Baina, legearen arabe-

ra, Toubonek gogorarazi zuenez, egoera ilegalean dauden pertsonak etxean, mahaian edo teilatupean hartzen dituen jendea jazar dezake legegileak. Kasu horretan euskaldunak ziren. Adierazpen hori, horrela esatearren, hunkigarria iruditu zitzaidan. Kolpe batez, kolpe bat ere izan zelako, abegiaren eskaintza delinkuentzia-ekintza bati lotuta zegoen (Jacques Derrida eta Élisabeth Roudinesco, *De quoi demain...*, Paris, Libraire Arthème Fayard et Éditions Galilée, aurretik sumatu ezin den askatasunari buruzko 4. atala).

Ez dago ostalari edo arrotz etorri berririk abegi eta asilo-eskubiderik barik. Eskubide hori gabe, etxean sartzen dena parasito, arrotz harro, ez-legitimo, legez kontrako, klandestino bilakatzen da, kanporatzeko edo atxilotzeko gai bilakatzen da (Jacques Derrida eta Anne Dufourmantelle, *De l'hospitalité*, Paris, Calmann-Lévy, 1997, 57. or.). Globalizazioan, abegi hutsa, baldintzarik gabeko abegia, ez da abegi baldintzatua (abegi baldintzatua boteretuen tolerantzia baino ez delako). Gonbidatzearen abegia ez da abegi hutsa edo bisitatzearen abegia. Abegi hutsean edo bisitariaren abegian etorri berriari ez zaio pasaportetik edo agirik/paperik eskatzen; gonbidatuaren abegian, ordea, bai. Abegi hutsean etorri berriarentzat etxea irekita dago, ezer eskatzeke, baldintzarik gabe: berdin zaio etsaia zein laguna izatea, arrotza zein senidea. Abegia etxea ematea da: abegia etikoa da. Hori da *éthos* hitzaren etimologia: etxea, bizitokia, bizilekua, bizitegia, egoitza. Derridaren hitzetan: «etika abegia da», bizileku-eskubidea, bizitoki-eskubidea.

Ez dago gizarterik abegi onik gabe. Txera onik barik ez dago justiziarik. Agian bai zuzenbidea, baina ez justizia. «Il n'y a pas de culture ni de lien social sans un principe d'hospitalité». Gizarteak abegia eskatzen du, baina abegia zuzenbide eta politikatik harago dago. Kasik etikatik harago. Abegi onean bertzea onartzen dugu sexuari, erlijioari, ideologiari, politikari, klaseari, diruari begiratu gabe. Abegi onean gizakiaren duintasuna adierazten da: gizakia helburu gisa, ez bitarteko gisa, Kanten hiztegia erabiltzearren. Hori dela kausa, abegia zailena da, lagun

hurkoa jaso, dirurik eta paperik gabeko gizabanakoa babestuz. Abegi eginez kultura kosmopolita bilakatzen da. Harrera eginez laguna zein etsaia hartzen ditugu etxean, gure etxean, gure kulturari.

Nortasun-agiririk edo agiririk ez dutenen abegia da politika kosmopolitikoaren lehenengo urratsa. Derridak beti eskatu du asilo-eskubidea onartzea eta asiloen aurkako legeak desobeditzea, Parisko agiririk gabekoekin jazo zen moduan: 1996ko martxoaren 18an, egoera irregularran paperik edo agiririk gabeko 430 afrikar San Ambrosio elizan geratu ziren, Parisko XI. barrutian, elkarte humanitarioek lagundurik, etorkinei buruzko politika eskuindar eta atzerakoia borrokatzeko. *Paper Machine* (Paris, Galilée, 2001) lanaren hasieran Derridak azaldu zuen Interneten, komunikabideen eta paperen garaian bera ere «paperik gabekoa» zela.

Egokitu gabeez, erbesteratuek, atzerritarrek, deserriratuek, deportatuek, kanporatuek, deserrotuek, arrotuek, atzetuek, nomada ezezagunek, izenik gabeko ibiltariek, kanpotar absolutuek abegia eskatzen d(ig)ute, eta horixe da Immanuel Kantek proposaturiko eskubide kosmopolita, ilustrazioaren espiritua gaur, Internazional berria globalizazioan.

La nouvelle Internationale

Spectres de Marx. L'État de la dette, le travail du deuil et la nouvelle Internationale (Paris, Galilée, 1993) liburuan, Derridak azaldu du kapitalismo demokrata-liberalak edo sozialdemokratik mundu ordena berriaren ezaugarriak ahaztu dituztela. Ordena global horren izurritea hamar esaldiotako telegrama batean laburbildu du Derridak:

1. Merkatu berriaren, teknologia berrien, munduko lehiakortasunaren deserregularizazioak langabezia berria ekarri digu, lan eta ez-lanaren arteko mugak ezabatuz. Deserregularizazio erregularrak, ohizkoak, sufrimendu berriak sortu ditu, eta politikak ez du hitzik deserregulatze kalkulatu eta sozializatu horri aurre egiteko, pobrezia be-

rri horri buru egiteko. Jarduerarik ezaren, ez-lanaren eta azpienpleguaren funtzio eta eginkizunek bertze politika bat eskatzen dute eta.

2. Hiritar etxegabe, kanporatu, deportatu, deseriratu, erbesteratu, herrigabe, aberrigabe anitz esku-hartze demokratikotik at geratu direnez, lurraldeko mugak eta nortasun nazionala edo zibila berraztertu behar dira.

3. Etengabeko gerra ekonomikoek —Europako Batasunaren herrien artekoa, Ekialdeko Europako herrien eta Europako Batasunaren herrien artekoa, Europaren eta Estatu Batuen artekoa, Europaren, Estatu Batuen eta Japoniaren artekoa— nazioarteko zuzenbidea hustu eta desegin dute edonon, edonoiz, neurri aldakor eta ezberdinak aplikatuz.

4. Merkatu liberalaren arauak eta errealitateak kontraesankor menderakitzak piztu dituzte: Estatu kapitalisten protekzionismoak konkista sozialak hankaz gora utzi ditu bai Estatu kapitalistetan bai bertzeetan.

5. Kanpo-zorrak eta zorra bezalako bertze mekanismo batzuek gizateriaren proportzio handia bultzatzen dute gosera edo miseriara, gorabehera eta fluktuazio geopolitikoak astinduz, demokratizazioaren eta giza-eskubideen diskurtsoa eta erretolika izan arren.

6. Teleteknologiaren eta ohizko armamentuen komertzioa eta industria barneratu dira Mendebaldeko demokrazien ikerkuntza zientifikoaren, ekonomiaren eta lanaren sozializatzearen erregulazio arruntean. Denak lotuta daude, elkarturik doaz. Bertzalde, arma-trafiko munduan lehenengoa da, narkotrafikoaren aurretik. Hala ere arma-trafiko eta narkotrafiko sinergia berean ibiltzen dira maiz.

7. Armamentu atomikoaren hedadura eta barreiadura menperaezinak dira Nazio-Estatuan zein merkatu globalean. Gainera, halako armamentua sortzen duten herriek adierazten dute menperatu eta kontrolatu nahi dutela, paradoxa politikorik paradoxikoenean.

8. Etniarteko gerrak arkaismoan eta zaharkerian sartu dira, Nazio-Estatu, komunitate, subiranotasun, muga, lurzoru eta odolaren kontzeptu-mamua erabiliz. Arkaismo hori ez da guztiz okerra, baina lurralde, lurzoru, hiri eta gorputzen ontopologia berria asmatu behar da, egokitzen

ez diren gizabanakoek eta kulturek bere lekua eta denbora aurki ditzaten.

9. Mafiak eta drogaren partzuergoak diren Estatu-mamua jaio dira kontinente guztietan, Ekialdeko Estatu sozialistetan ere bai. Estatu-mamua horiek ehun sozio-ekonomikoetan eta kapitalen zirkulazio orokorrean infiltratu dira, baita estatu (arteko) erakundeetan ere.

10. Globalizazioan nazioarteko zuzenbidea eta bere erakundeena beraztertu behar dira, bi oztopo aurkituz: alde batetik, bere arauak eta normak, bere eginkizunaren definizioa kultura historiko baten menpe daude, kontzeptu filosofiko europarren eta nazio-estatu-subiranotasunaren kontzeptuaren menpe hain zuzen; eta, bertze aldetik, nazioarteko zuzenbide unibertsal hori Nazio-Estatu partikularretan betetzen da, ahalmen eta indar tekno-ekonomiko eta militarrek erabiliz. Hemen arazoa da nola sortu estaturik, izenik, titulurik, kontraturik, koordinaziorik, alderdirik, aberririk, klaserik, nazioarteko komunitaterik gabeko elkertasuna. Horretarako da premia zkoa Internazional Berria, *la nouvelle Internationale*.

Hemen Derridak hauteman du Karl Marxen mamua aldamikatzea falta dela. Bere manifestu ospetsuan Marxek komunismoaren mamua ikusi zuen Europan zehar. Gaur ematen du komunismoa mamua dela, Marx iratxoa dela. Baina gaur benetako mamua dirua da. Kapitala eta merkantziaren fetitxeak kapitalismo globalaren mamua dira: ez daude bizirik, baina bizidunen bizia eta bizitza menperatzen dituzte ordena tekno-ekonomiko-militarrean. Kapitala mamua bat da: kapitalistak (eta kapitalistak ez direnak) hiltzen dira, baina ez kapitalismoa, kapitalismoaren mamua. Ez da batere erraza mamua bat hiltzea. Max Weberrek kapitalismoaren espiritu protestantea begiztatu zuen: orain badakigu kapitalismoak ez duela espiriturik, mamua baizik.

Hori dela kausa, Internazional Berria beharrezkoa da arlo zabal bat kontuan hartuz: merkatuaren analisi ekonomikoa, kapitalen legeak, kapital-motak (finantzarioa zein sinbolikoa), parlamentuko demokrazia liberala, ordezkaritza politikoa eta sufragioa, giza eskubideak, ema-

kumearen eskubideak, haurra renak, askatasun, berdintasun eta, batik batik, senidetatasunaren kontzeptuak, duintasunarena, gizakiaren eta hiritarraren arteko harremana. Labur adierazirik: gizakia eta demokrazia hausnartu behar dira berriro, behin eta berriro, idealismo fatalistan zein eskatologia abstraktu eta dogmatikoan ez erortzeko.

Internazional Berri horrek Francis Fukuyamaren historiaren bukaeraren tesiaren aurka jotzen du, historiaren logozentrismoaren kontra, Mendebaldeko etno-euro-amerikar-zentrismoaren aurka, ordena tekno-ekonomiko-militarraren aurka, hondamen eko-logiko eta eko-nomikoen aurka, tratamendu ontologiko berri batean. Ontopologia berriaren gizakion (emakumeon eta gizonon) lekua eta denbora aztertu eta hausnartu behar dira: paperik/agiririk gabe(ko)ak, etxerik gabe(ko)ak, lanik gabe(ko)ak, herririk gabe(ko)ak, hiritartasunik gabe(ko)ak, nortasunik gabe(ko)ak, mundu globalean ematen baitu gizabanakoa *gizagabea* dela. Internazional Berriak, ordea, mundurik gabeko mundua aldarikatzen du, Lehen Mundukoa eta Hirugarren Mundukoa, baita Lehen Munduan dagoen Hirugarren Mundua (Laugarren Mundua deitzen dutena) ere, azken batean planeta global batean Lehen Mundua Hirugarren Munduan sartua delako. Internazional Berria *mundialatinizatzearen* aurka doa: Derridaren idazlanetan, globalizazioa munduko latin berria da, hizkuntzaren ordena global berria.

Internazional Berriak ez du mugarik, hizkuntza baik. Bere hizkuntza aktiboa da mugarik gabe, Itxaro Bordaren *Hautsak errautsa bezain* liburuan bezala:

Hitzaren itsasoak
Herioaren pare
Mugarik ez du.

Hori da Derridaren estrategia *Spectres de Marx* liburuan. Kapital globalaren mamuaaren aurka Internazional Berriaren hizkuntza (des)eraikitzailea altxatzea, historia ofizialez aparte, *apartheideko* historia ofizialean sartzeko diren biktima anonimoak, etxerik-lanik-herririk-hiritartasunik-nortasunik-agiririk-paperik gabeak oroituz. Izan ere, *Spectres de Marx* liburua Chris Haniri eskainita dago,

hots, lehenengo hauteskunde demokratikoak heltzear 1993ko apirilaren 10ean erail zuten Hegoafrikako Alderdi Komunistaren buruari.

*I*ntelektual disidenteak eta laguntasuna

Zio horiek izan dira Derridaren bizitzaren bihotza. Dagoeneko 1981ean Jean-Pierre Vernant-ekin Jan Huss elkartea sortu zuen, Txekoslovakiako intelektual disidente edo jazarriei laguntzeko asmoz. Hori dela eta, Pragara abiatu zen mintegi klandestino bat zuzentzera. Egun batzuetan polizia txekiarra atzetik, bukaeran aireportuan atxilotu zuten. Bere hatuetan drogak aurkitzearen plantak egin zituen poliziak eta espetxeratu zuten, drogak egin eta trafikatzegatik. Sinadura-kanpaina baten ondoren, Frantziako gobernuak afera honetan esku hartu eta gero, Txekoslovakia komunistatik kanporatu zuten. Hortik bere bizitzaren amaieraraino zuzengabeko zuzenbidea eta Estatu salatua izan ditu beti. Adibidez, gutun irekia izkiriatu zion Bill Clinton Estatu Batuetako presidenteari Mumia Abu-Jamalen epaiketaren berraztertzearen alde («Lettre ouverte à Bill Clinton», *Les Temps Modernes* 582, 1997ko otsaila-martxoa) eta José Rainha Brasilgo *Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra*ko buruaren alde ere idatzi zuen («Pour José Rainha», *L'Humanité*, 1999-11-30).

Leku horietan Derridaren proiektuaren garrantzi politikoa ageri izan da, berak deskribatu duen eran: Txekoslovakiako mintegi klandestinoan, Hegoafrikako apartheidaren aurka eta Nelson Mandelaren askatzearen alde, heriotza-zigorraren aurka, Mumia Abu-Jamalen alde, Idazleen Nazioarteko Parlamentuaren sorreran, Marxi buruz idaztean, abegiari buruz, agiririk gabeko lagunei buruz, barkamenari buruz, testigantzari buruz, sekretuari buruz, subiranotasunari buruz (horrela onartu du Derridak: «Autrui est secret parce qu'il est autre», *Le Monde de l'Éducation* 284, 2000ko iraila, 14-21. or.).

Estatuaren eta zuzenbidearen subiranotasunaren indarra deseraiki nahi izan du beti Derridaren abegi europa-

rrak. *Laguntasunaren politikak (Politiques de l'amitié*, Paris, Galilée, 1994) liburuan hala saiatu zen, Carl Schmitt zuzenbide naziaren sortzaileaz hausnartuz. Schmitten teorian, politikaren egitura laguntasunean datza. Bi mutur ziren nagusi politika hartan: etsaiak ala lagunak, (gure) aurka ala (gure) alde. Politika nazian, politika inperialistan, ez zegoen lekurik neutraltasunerako. Herri neutralak hutsak ziren, hutsaren hurrengoak. Derridak berriro hartu zuen laguntasunaren zioa, nazismoa kritikatu, laguntasuna politikatik eta demokratik harago doalako. Horregatik Montaigne eta Nietzscheren esaldi ezaguna errepikatu zuen: «Etsaiok, ez dago etsirik». Eta Derridaren galdera airean geratzen da globalizazioaren garaian: badago lekurik gaurko demokrazia programatuetan laguntasun ezusterako?

Rogue States eta irailaren hamaika

Horixe izan da erronka Derridaren azken urteotan. Zer/zeintzuk dira demokraziak 2001eko irailaren 11ren ondoren? Irailaren 11ren ondoren, Mendebaldeko Nazio-Estatuaren politika autoimmunitatearen legean sartu da. Prozesu autoimmune batean bizidunek ezohizko jarrera arraroa hartzen dute: bizidunak berak bere babesak apurtzen ditu, bere immunitate propioaren aurka immunizatzen hasten da txerto-logika suizida batean. (Auto)immunitatearen biolentzian gerraren mugak apurtu dira, gerra teknozientifikoak maisu direla eta. Orain zemaia mehatxu nuklearrak, bakteriologikoak, nanoteknologikoak, informatikoak dira. Orain ez du Gerra Hotzaren orekak balio. Orain ez dago orekarik, erabateko mehatxuaren indarrak izenik gabeak, aurretik jakin ezin direnak, kalkulaezinak direlako. Globalizazioan mundua mehatxu bilakatu da: ez dago bonba adimendunik horretarako, bonben biktimek (zibilek zein militarrek) erantzuna emanen baitute (ikus *Philosophy in a Time of Terror: Dialogues with Jürgen Habermas and Jacques Derrida*, by Giovanna Borradori, Chicago, University of Chicago Press, 2003).

Irailaren 11 gertatuz gero, etsaia ez da Nazio-Estatu bat: arerioa etxean dago, gure teknologiaz baliatuz, gure hegazkinak gidatuz. Bi hegazkin nahikoa dira baliabide ekonomiko, militar eta politikoak geldiarazteko, teknozientziari esker. Aitzinapen teknozientifikoak (bizidunaren menperatzea, hegazkina, informazioaren teleteknologia, posta elektronikoa, Internet, telefonia mugikorra) jende askoren suntsiketa-armak dira. Transmisio eta erasoaren teknologia berriak direla medio, birtualtasuna zemaia da baina trauma erreala da. Gainera, birtualtasuna etorkizunaz jabetzen da eta horrela biolentziak ez du bukaerarik (gerra batek, ordea, bai: badu bakea sinatzeko epea). Zibil, militar eta polizien arteko mugak eta bereizketak ezabatu dira eraso teknozientifiko horietan.

Irailaren 11ko terrorismo-mota izenik eta Estaturik gabekoa, aberatsa, hipersofistikatua, telekomunikatzailea da, globalizazioa bezalakoa: kokalekurik, jatorririk, zedarrik, mugarik gabe kapitalizatua eta birtuala baita. Autoimmunitatearen legeari jarraituz, «terrorismo» hitza motza geratzen da ikara eta terrorearen logika global horretan. Horrez gain, terrorismoaren lege (auto)immunean bakoitzak logika bera erabiltzen du:

Azken baliabide gisa terrorismoaz baliatzen naiz bestea ni baino terroristagoa delako; neure burua defendatzen dut, kontraerasoa egiten dut; biktima gisa, lehenengo erasotzaileak bere burua aurkeztu baino lehenago, beste biderik utzi ez zidana da benetako terrorista, gaiztoena.

Horrela gu ez gara terroristak, bertzeak baizik. Ni ez naiz terrorista, (nire orde) bertzea delako. Horixe da terrorismoaren lege autoimmunea, terrore eta izuaren terrorismoa abegi kosmopolitaren binperra delako.

Terrorismoaren lege autoimmunea Nazio-Estatuen esparrura eramaten denean, bizi ez den Nazio-Estatua gaizkile edo terrorista bihurtzen da. Horixe da «Rogue States» izeneko teoria, Noam Chomsky-k (*Rogue States. The Rule of Force in World Affairs*, Cambridge, South End Press, 2000) eta Robert S. Litwak-ek (*Rogue States and U.S. Foreign Policy*, Baltimore, Wilson Center Press-John Hopkins University


Press, 2000) salatu dutena. «Rogue States» Estatu gaizkileak dira ingelesez, gaizkileen Estatuak gaizkileen fitxategian. «Rogue» bilau, zital, doilor, gizatxar, donge, oies, baldar, trauskil, ganberroa da. Hitz batean (edo bi hitzetan): delitugile gaizkilea. Bill Clinton eta Madeleine Allbrightek hitz hau erabili zuten «outcast, outlaw nation» eta «pariah state» erratearren. Ronald Reaganek «outlaw» erabili zuen eta George Bushen (aitak) «renegade» hitza. 2001eko irailaren 11tik AEBetako gobernuak Estatu gaizkileen teoria usatu zuen.

*National Security Council*en lan egindako R. S. Litwakek, *Woodrow Wilson Center* erakundeko nazioarteko ikasketen zuzendariak, honela mugatu zuen «rogue State» kontzeptua: «A rogue State is whoever the United States says it is» (Estatu gaizkilea Estatu Batuek erraten duten hura da). Irailaren 11tik Estatu gaizkilea da Estatu bat(zu)ek erraten du(t)ena; eta hori erraten den unean, hori erraten duen Estatu gaizkile bihurtzen da hori errateagatik. Derridaren ustez, horrela Estatu Batuak ere badira Estatu gaizkileak. Estatu Batuek ulertzen ez dutena da eraso bakteriologiko, kimiko, nuklear eta informatikoen aurrean ez dagoela Estatu gaizkilerik, orain Gerra Hotzean ez gaudelako. Orain potentziak ez dira antolatua, egonkorak, iraunkorak, identifikagamiak, aurkitzekoak, lurreratzeak: oraingo potentziak suizidak dira, lege autoimmunen esku hartzen dutenak (J. Derrida, *Voyous: Deux essais sur la raison*, Paris, Seuil, 2003).

Hemendik aurrera biolentzia autoimmunea ez da nazioarteko gerra klasikoarena, gerra deklaratu duen Estaturik ez dagoelako. Ez da gerra zibila edo partisoen gerra, gerra iraultzailerik edo independentziaren gerrarik ez dagoelako. Beraz, gerra iraultzailerik, independentziaren gerrarik edo partisoen gerrarik ez dagoenez, «terrorismo» hitza ez da hoberena logika hori izendatzeko. Hortaz, denak «Estatu gaizkileak» dira: denak dira Estatu gaizkileak, nirea izan ezik. Bertzeak dira gaizkileak, nirea ez. Lege autoimmunea eta logika suizida inposatu dira horrela.

Irailaren 11ren trauma sendatzeko, globalizazioaren lege autoimmunitik ateratzeko, Derridak Europako demo-

krazian sinesten zuen (izan ere, Jürgen Habermasekin batera, «Europa: kanpo-politika komun baten alde» artikulua plazaratu zuen: «Europe: pour une politique extérieure commune», *Frankfurter Allgemeine Zeitung* eta *Libération*, 2003-05-31). Derrida europazale amorratua izan zen beti, ez, ordea, Europako Nazio-Estatuen zalea. Aljeriako *pie d noir* judu abegitsuak ez zuen inoiz erran: «gu filosofook», ezta ere «gu frantsesok»; bai, berriz, «gu europarok». Derridak ez zuen ere sekula santan adierazi: «gu demokratok», Europako demokrazia (des)eraikitzearen aldekoa izan aurren, demokrazia edonon edonoiz, nonahi noiznahi bete behar delako. Hemen, hor eta han. Atzo, gaur eta bihar. Ezinezkoa da eta beharrezkoa ere bai. Europaren ideia bezalako, abegi kosmopolita bezalako. Ez dago demokrazia hutsik, ez dago abegi hutsik: etortzekoak direlako, etorkizuna direlako. ¶



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jakingunea.com